

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Administrarien Kidegoa 2022



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Administrarien Kidegoa

2022

IVAPek kontserbatu egiten ditu argitaraturiko lanen ondare-eskubideak (copyright), eta lan horien berrerabilpena baimentzen eta sustatzen du, BY-NC-ND erabilera-lizentziaren pean.

Liburu hau edizio elektronikoan argitaratzen da, Creative Commons-en BY-NC-ND lizentziaren pean. Kopiatu, erabili, zabaldu, transmititu eta erakutsi daiteke, honako baldintza hauek beteta: 1) egiletza eta argitalpenaren jatorrizko iturria aipatzea (aldizkaria, argitaletxea eta lanaren URLa); 2) helburu komertzialetarako ez erabiltzea; 3) erabilera-lizentzia eta berorren espezifikazioak aipatzea.



Edizioa: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-663-5

1. gaia

- 1 **Espainiako Konstituzioaren arabera, hauetako zein da ordenamendu juridikoaren balio goren bat?:**
 - 1a) Nazioaren subiranotasuna.
 - 1b) Estatu soziala.
 - 1c) Berdintasuna.
 - 1d) Demokrazia.

- 2 **Espainiako Konstituzioaren arabera, zein da Espainiako Estatuaren forma politikoa?:**
 - 2a) Monarkia konstituzionala.
 - 2b) Demokrazia parlamentarioa.
 - 2c) Monarkia parlamentarioa.
 - 2d) Monarkia demokratikoa.

- 3 **Konstituzioaren izaera gorenak, zer esan nahi du?:**
 - 3a) Ezin dela aldatu, beste arau batzuk erreformatzeko jasotako prozeduren bidez ez bada.
 - 3b) Erreforma-lege baten bidez baino ezin dela aldatu.
 - 3c) Estatuko botereek ezin dutela inola ere aldatu.
 - 3d) Botere publikoek ezin dituztela haren aginduak kontuan hartu gabe utzi edo aldatu.

- 4 **Konstituzioak bermatzen dituen printzipioak (adierazi erantzun OKERRA):**
 - 4a) Arauen arteko hierarkia.
 - 4b) Kalterako diren xedapen zehatzaileen atzeraeragina.
 - 4c) Legezkotasun-printzipioa.
 - 4d) Botere publikoen arbitrariotasunaren debekua.

- 5 **Espainiako Konstituzio Auzitegia:**
 - 5a) Organo politikoa da, baina independentea bere eginkizunean.
 - 5b) Konstituzioaren eta lege-mailako arauen mende dago bakarrik.
 - 5c) Botere Judizialaren gailurrean dagoen jurisdikzio-organoa da.
 - 5d) Lege-indarreko arauen konstituzionaltasun-kontrola egiteaz arduratzen den organoa da.

- 6 Nork jo ditzake Konstituzioaren aurkakotzat Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako foru-arau fiskalak?:
- 6a) Konstituzio Auzitegiak bakarrik.
 - 6b) Auzitegi arruntek, ez baitira lege-mailako arauak.
 - 6c) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak.
 - 6d) Konstituzio Auzitegiak eta auzitegi arruntek.
- 7 Espainiako Konstituzioaren arabera, Herriaren Defendatzaileari dagokionez, zein da zuzena?:
- 7a) Gobernuak izendatzen du, I. tituluan jasotako eskubideak defendatzeko.
 - 7b) Bere jardunaren berri eman behar dio, aldian-aldian, Gobernuari.
 - 7c) Espedienteen eta gomendioen bidez gauzatzen ditu bere eskumen exekutiboak.
 - 7d) Administrazio publikoaren jarduna gainbegiratuko du I. tituluko eskubideen balizko urraketak antzemateko.
- 8 Konstituzioaren I. tituluko 3. kapituluan jasotako politika sozial eta ekonomikoaren gidarriak:
- 8a) Eskubide subjektiboak dira, zentzu hertsian.
 - 8b) Botere publikoei emandako aginduak dira, haien jarduna bideratzeko.
 - 8c) Zuzenean aipa daitezke auzitegi arruntetan, garatuko dituen lege baten beharrik gabe.
 - 8d) Konstituzio Auzitegian aipatu ahal izango dira, konstituzio-babeserako errekurtsoren bidez.
- 9 Espainiako Konstituzioaren arabera, zerga-sistemak honako ezaugarri hauek izango ditu (adierazi erantzun OKERRA):
- 9a) Sistema proportzionala izango da.
 - 9b) Ez da konfiskagarri izango.
 - 9c) Berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarrituta egongo da.
 - 9d) Guztiek lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera.
- 10 Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan jasotako bizitzeko eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea:
- 10a) Lege-mailako arau batek arautu behar du.
 - 10b) Herritarrek ezin dute baliatu legez garatu arte.
 - 10c) Lege organiko batek arautu behar du.
 - 10d) Erregelamendu bidez arautu daiteke, legerik gabe.
- 11 Herriaren Defendatzailearen jarduna (adierazi erantzun OKERRA):
- 11a) Demandak aurkez ditzake auzitegi arruntetan.
 - 11b) Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuak jar ditzake Konstituzio Auzitegian.
 - 11c) Ezin die iradokizunik eta gomendiorik egin administrazioari eta Gorteei.
 - 11d) Babes-errekurtsuak jar ditzake Konstituzio Auzitegian.
- 12 Konstituzioak 47. artikuluan aitortzen duen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea urratuz gero, zer egin dezakete herritarrek?:
- 12a) Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsua jarri zuzenean.
 - 12b) Epailen eta auzitegi arruntetan babes eskatu, lehentasunezko prozedura sumarioaren bidez.
 - 12c) Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsua jarri, auzitegi arruntetan bidea agortu ondoren.
 - 12d) Epailen eta auzitegi arruntetan babes eskatu, eskubide hori garatzen duten legeek xedatutakoaren arabera.

- 13 Nork EZIN du jarri babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian?:**
- 13a) Gobernuak edo Ganberetako edozeinek.
 - 13b) Herriaren Defendatzaileak.
 - 13c) Fiskaltzak.
 - 13d) Errekurritutako egintzak edo ez-egiteak zuzenean eragindako pertsonak.
- 14 Konstituzioan jasotako eskubideak Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren arabera interpretatu behar dira. Hitzarmen horretan jasotako eskubide bat urratu dela uste badu, edozein pertsona fisikok jar al dezake demanda bat Estraburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian (GEEA)?:**
- 14a) Bai, pertsona fisikoek zuzenean jo dezakete GEEAra, aurretik bide judicial arruntera jo beharrik gabe.
 - 14b) Bai, edozein pertsona fisikok jo dezake GEEAra, betiere jurisdikzio-bide arrunta agortu ondoren.
 - 14c) Bai, edozein pertsona fisikok jo dezake GEEAra, betiere barruko bide guztiak agortu ondoren, barne dela Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsoa aurkeztea, hala badagokio.
 - 14d) Ez, pertsona fisikoek ezin dezakete zuzenean jo GEEAra.
- 15 Alarma-egoeraren deklarazioak ondorio hauek izan ditzake:**
- 15a) Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazio librerako eskubidea mugatzea.
 - 15b) Egoitzaren bortxaezintasuna eta komunikazioen sekretua etetea.
 - 15c) Atxilotutako pertsona orok bere eskubideen eta atxilotetaren arrazoien berri izateko duen eskubidea etetea.
 - 15d) Bilera- eta manifestazio-eskubideak etetea.
- 16 Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera:**
- 16a) Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak aitortu eta berretsi egiten ditu.
 - 16b) Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatu egiten ditu.
 - 16c) Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak berretsi egiten ditu.
 - 16d) Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak berretsi eta garatu egiten ditu.
- 17 Konstituzioaren 15-29 artikuluetan jasotako eskubideek berme-sistema indartua dute. Jarraian zehaztutako berme horietatik, zein da OKERRA?:**
- 17a) Lege arrunt bidez arautzen dira nahitaez, eta ez erregelamendu bidez.
 - 17b) Haren erreformak prozedura areagotua eskatzen du.
 - 17c) Konstituzio Auzitegiaren babesa, babes-errekurtsoaren bidez.
 - 17d) Auzitegi arrunten jurisdikzio-babesa, lehentasun- eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozeduraren bidez.
- 18 Zenbat magistratuk osatzen dute Konstituzio Auzitegia?:**
- 18a) 10 magistratuk.
 - 18b) 12 magistratuk (erregeak izendatuak).
 - 18c) 10 magistratuk (Gobernuak hautatuak).
 - 18d) 12 magistratuk, Gorteek hautatuak.
- 19 Funtzio hauetatik, zein EZ dagokio Konstituzio Auzitegiari?:**
- 19a) Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-gatazkak ebaztea.
 - 19b) Konstituzioaren 53.2 artikuluan zerrendaturiko eskubide eta askatasun publikoak urratzeagatik jarritako babes-errekurtsoaz arduratzea.
 - 19c) Legeen eta lege-indarreko arau-xedapenen kontrako Konstituzio-aurkakotasun errekur-tsoaz arduratzea.
 - 19d) Estatuaren eta Europar Batasuneko erakundeen arteko eskumen-gatazkak ebaztea.

- 20 Konstituzioak oinarrizko eskubideei buruz ezarritako erregulazioaren arabera, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:
- 20a) Konstituzioan jasotako askatasun eta eskubideak interpretatzean kontuan hartu behar da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai horien inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere.
 - 20b) Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubideek mugak izan ditzakete.
 - 20c) Pertsona fisikoez gain, pertsona juridikoak ere izan daitezke oinarrizko eskubide batzuen titularrak.
 - 20d) Atzerritarrak, espainiarrak bezala, oinarrizko eskubide guztien titularrak dira; hala ere, eskubide horietakoren baten egikaritzea muga dakieke, tratatuetan eta legean ezarritakoaren arabera.

2. gaia

21 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera:

- 21a) Lurraldeari dagokionez, estatua udalerrri, probintzia eta autonomia-erkidegoetan antolatzen da. Horiek guztiak autonomia dute beren interesak kudeatzeko.
- 21b) Lurraldeari dagokionez, estatua udalerrri, probintzia eta autonomia-erkidegoetan antolatzen da. Bakarrik autonomia-erkidegoek dute autonomia beren interesak kudeatzeko.
- 21c) Toki-administrazioak eta administrazio autonomikoak autonomia politikoa dute aitortuta, baina probintziak ez.
- 21d) Toki-administrazioak eta administrazio autonomikoak autonomia politikoa dute aitortuta Konstituzioan.

22 Autonomia-estatutua:

- 22a) Autonomia-erkidegoko oinarrizko erakunde-araua da, baina Estatuko Konstituzioaren mende dago eta hark mugatua.
- 22b) Autonomia-erkidegoko oinarrizko erakunde-araua da, Estatuko Konstituzioaren maila berean.
- 22c) Autonomia-erkidegoko oinarrizko erakunde-araua da, baina ez dago Estatuko Konstituzioaren mende ezta hark mugatua.
- 22d) Ez da autonomia-erkidegoaren oinarrizko erakunde-araua.

23 Zer motatako legeak dira autonomia-estatutuak?:

- 23a) Lege organikoak dira, autonomia-erkidegoetako parlamentuek onartutakoak prozedura berezi bati jarraituz.
- 23b) Lege arruntak dira, Estatuko Parlamentuak onartutakoak.
- 23c) Lege organikoak dira, eta ez dute gainerako lege organikoekiko inolako berezitasun edo espezialitaterik.
- 23d) Lege organiko bereziak dira; izan ere, ez datoz bat gainerakoak prestatzeko edo erreformatzeko prozedurarekin.

- 24 Autonomia-estatutuen edukiarekin lotuta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 24a) Autonomia-estatutuek Konstituzioan ezarritako gutxieneko edukia izan behar dute.
 - 24b) Autonomia-estatutuek beren lurraldearen mugak jaso beharko dituzte.
 - 24c) Autonomia-estatutuek lurraldeko pertsoneri dagozkien oinarrizko eskubideen zerrenda jaso beharko dute.
 - 24d) Autonomia-estatutuek Konstituzioak ezarritako eremuaren barruan bereganaturiko eskumenak jaso beharko dituzte, baita eskumenoari dagozkien zerbitzuak eskualdatzeko oinarriak ere.
- 25 Lurralde mailako administrazio publiko diren aldetik, eta beren eskumenen eremuan, zeintzuk dira, besteak beste, udalen eta probintzien ahalak?:**
- 25a) Erregelamenduak egiteko eta autoantolatzeke ahala, baina ez zerga- eta finantza-ahala.
 - 25b) Jabetza kentzeko ahala eta beren ondasunak ofizioz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko ahala, baina ez nahitaez betearazteko ahala.
 - 25c) Beren egintzen legezkotasun-presuntzioa eta bete beharra, baina ez nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalak.
 - 25d) Beren egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahala.
- 26 Indarrean dagoen Espainiako ordenamenduaren arabera, hauetako zein EZ da lurralde-mailako toki-erakundea?:**
- 26a) Udala.
 - 26b) Autonomia-erkidegoa.
 - 26c) Probintzia.
 - 26d) Uhartea, Balear eta Kanariar uhartedietan.
- 27 Probintziari buruzko Espainiako erregulazioaren arabera, zein da zuzena?:**
- 27a) Probintzia toki-erakundea da, berezko nortasun juridikoa du, eta udalerrien elkarrekin zehazten du.
 - 27b) Probintzia baten mugak aldatzeko, Gorte Nagusiek lege arrunt bidez onetsi beharko dute aldaketa hori.
 - 27c) Probintzia baten mugak aldatzeko, Ministroen Kontseiluak onetsi beharko du aldaketa hori.
 - 27d) Probintziaz bestelako udalerrri-elkarerik ezin da sortu, Gobernuak interes publikoko arrazoiengatik onartu ezean.
- 28 Autonomia-estatutuei buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:**
- 28a) Estatutuak autonomia-erkidego bakoitzaren oinarrizko erakunde-araua izango dira.
 - 28b) Estatutuek erakunde autonomo propioen izena, antolaketa eta egoitza jaso behar dituzte.
 - 28c) Estatuak bere antolamendu juridikoaren osagai gisa aitortu eta babestuko ditu estatutuak.
 - 28d) Estatutuak eraldatzeko, Konstituzioan ezarritako prozedura bete beharko da, eta nahitaezko gertatuko da Gorte Nagusiek lege organiko bidez eraldaketa onestea.
- 29 Probintzia lurralde-entitatea da eta ezaugarri hauek ditu:**
- 29a) Diputazioei edo ordezkariak duten beste korporazio batzuei dagozkie probintziaren autonomiaren gobernu eta administrazioa.
 - 29b) Probintziaren gobernu probintzia-diputazio baten esku dago beti.
 - 29c) Udalerrien elkarrekin zehaztutako toki-erakunde gisa eratzen da, eta bere helburuak beteatzeko gaitasuna eta eskumen propioak ditu, baina ez du nortasun juridiko propioirik.
 - 29d) Probintziaren antolaketa eta gobernu autonomia-estatutuetan dago ezarrita.

- 30 Toki-ogasunen arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera:**
- 30a) Toki-ogasunek ez dute zerga- eta finantza-ahalmenik.
 - 30b) Toki-ogasunek behar beste baliabide izan behar dute legediak toki-korporazioei esleitzen dizkien zereginak burutzeko.
 - 30c) Toki-ogasunak tributu propioez baino ez dira hornituko.
 - 30d) Toki-ogasunek Estatuaren tributuetan parte hartu ahal izango dute, baina ez autonomia-erkidegoetako tributuetan.
- 31 Autonomia-printzipioari buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:**
- 31a) Konstituzioak bermatu egiten du Estatu osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea.
 - 31b) Konstituzioak aitortu egiten du udalerriek autonomia dutela beren interesak kudeatzeko.
 - 31c) Autonomia-erkidegoen eta udalerrien autonomia politikoa da, ez bakarrik administratiboa.
 - 31d) Probintziek beren interesak defendatzeko duten autonomia ez da autonomia politikoa.
- 32 Botere politikoa deszentralizatzeko ereduarekin lotuta, zein da baieztapen zuzena?:**
- 32a) Lurraldea autonomia-erkidegoetan antolatzea ezartzen du Konstituzioak.
 - 32b) Lurraldea autonomia-erkidegoetan antolatzea ez da aukerakoa, xedapen-printzipioan oinarritzen baita.
 - 32c) Lurraldea autonomia-erkidegoetan antolatzea ez dago autonomiaren xedapen-printzipioaren mende.
 - 32d) Estatu osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen arteko elkartasuna bermatzen du Konstituzioak.
- 33 Lurralde-autonomia eratzeko eta garatzeko prozesuarekin lotuta, zein da baieztapen zuzena?:**
- 33a) Autonomia lortzeko bi prozesu aurreikusten ditu Konstituzioak: arrunta bata eta areagotua bestea.
 - 33b) Konstituzioan autonomia lortzeko prozedura bat auresuposatzen da, baina ez da aurreikusten.
 - 33c) Ia autonomia-estatutu guztiak aldatu egin dira aurreko hamarkadetan.
 - 33d) Euskal Autonomia Estatutua Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorraren arabera onartu zen, eta dagoeneko aldatu da prozedura berari jarraituz.
- 34 Autonomia-erkidegoetako Justizia Administrazioarekin lotuta, zein da baieztapen zuzena?:**
- 34a) Justizia Auzitegi Nagusia izango da antolakuntza judizialaren gailurra autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan, Auzitegi Gorenak duen jurisdikzioari kalterik egin gabe.
 - 34b) Justizia Auzitegi Nagusiak autonomia-erkidegoetako jurisdikzio-organoak dira.
 - 34c) Botere legegilea eta botere exekutiboa bezala, botere jurisdikzionala lurralde-deszentralizaziora irekita dago.
 - 34d) Konstituzioak ez du berariaz jasotzen antolamendu judizialari buruzko xedapenik autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan.
- 35 Autonomia-erkidegoen erakunde-antolamenduarekin lotuta, zein da baieztapen zuzena?:**
- 35a) Autonomia-estatutuek ez dute zertan jaso erakunde autonomo propioen izena, antolaketa eta egoitza.
 - 35b) Autonomia-erkidegoetako parlamentuek ematen dituzte autonomia-erkidegoetako legeak, eta autonomia-erkidegoko lehendakariak promulgatzen ditu.
 - 35c) Autonomia-erkidegoko parlamentuei dagokie erkidegoko lehendakaria hautatzea; izan ere, autonomia-estatutuek gobernu presidentzialistako sistema xedatzen dute autonomia-erkidegoetan.
 - 35d) Autonomia-erkidegoko legebiltzarra sufragio unibertsalaz aukeratzen da, ordezkartza proportzionalan oinarritutako sistema baten arabera.

- 36 Autonomia-erkidego bakoitzak Gobernu Kontseilu bat du (adierazi erantzun OKERRA):**
- 36a) Gobernu Kontseiluak betearazteko eginkizunak eta administrazio egitekoak ditu esleituta.
 - 36b) Gobernu Kontseilua presidente batek zuzentzen du; izan ere, autonomia-estatutuek gobernu presidentzialistako sistema bat xedatzen dute autonomia-erkidegoetan.
 - 36c) Gobernu Kontseiluko kideak presidenteak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez.
 - 36d) Presidenteak eta Gobernu Kontseiluko kideek erantzukizun politikoa izango dute Legebiltzarrean.
- 37 Autonomia-erkidegoko presidentea:**
- 37a) Legebiltzarreko kideen artetik aukeratu behar du, nahitaez, Biltzarrak berak.
 - 37b) Legebiltzarraren aurrean erantzuten du politikoki, Kontseiluko kideek ez bezala.
 - 37c) Ez da nahitaez izendatua izan behar legebiltzarreko kideen artean.
 - 37d) Ez du politikoki erantzuten legebiltzarraren aurrean.
- 38 Xedapen-printzipioa eskumenak banatzeko sistemaren printzipio gidaria izateak, zer dakar?:**
- 38a) Konstituzioak ezartzen dituela autonomia-erkidego bakoitzak dituen eskumenak.
 - 38b) Konstituzioak ez duela eskumen-bloke zehatzik ezartzen autonomia-erkidego guztientzat, ezta bereziki autonomia-erkidego batzuentzat ere; aitzitik, erabaki hori lurralde interesdunen esku uzten du, betiere eskumen-banaketari buruzko konstituzio-arauak errespetatuta.
 - 38c) Konstituzioak eskumen-sistema bat egituratzen duela, non eskumenen banaketa Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko akordioaren esku geratzen den.
 - 38d) Konstituzioak Estuari dagozkion eskumenak eta autonomia-erkidegoenak adierazten dituela, eta eskumen-banaketa itxia xedatzen duela.
- 39 Konstituzioan jasotzen den eskumen-banaketarekin lotuta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 39a) Eskumen-banaketa bideratzeko Konstituzioak erabilitako tresna zerrenda-sistema da.
 - 39b) Konstituzioak 149.1 artikuluan xedatzen du autonomia-erkidegoen eskuragarritasun-eremutik kanpo geratzen diren Estatuaren eskumenen zerrenda bat.
 - 39c) Autonomia-erkidegoek beren gain har ditzakete 149.1 artikuluan jasotako gai jakin batzuen gainean Estatuarentzat erreserbatuta ez dauden eginkizunak; izan ere, zerrenda horretako gai askotan, Estuak funtzio batzuk baino ez ditu beretzat erreserbatzen, ez guztiak.
 - 39d) Konstituzioak 148.1 artikuluan jasotzen ditu autonomia-erkidegoek nahitaez bere gain hartu behar dituzten gaien zerrenda.
- 40 Eskumenen lurralde-banaketaren sistemari erreparatzen badiogu, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 40a) Autonomia-erkidegoek autonomia-estatutuetan jasotako eskumenak baino ezin dituzte eduki.
 - 40b) Estatuaren eskumenak autonomia-erkidegoei esleitzeko aukera xedatzen du Konstituzioak, estatu-titulartasuneko eskumenen transferentziaren edo eskuordetzearen bidez.
 - 40c) Konstituzioak Estuari ematen dio autonomia-estatutuek bereganatu ez dituzten gaien gaineko eskumena.
 - 40d) Konstituzioak berariaz Estuari esleitu ez dizkion gaiak autonomia-erkidegoei egokitu ahal izango zaizkie, bakoitzaren estatutuen arabera.

3. gaia

41 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia:

- 41a) Europako Parlamentuaren mendeko instituzioa da.
- 41b) Estatuetik independentea, baina Europako Batzordearen eta Parlamentuaren mendeko instituzioa da.
- 41c) Instituzio independentea da eta haren ebazpenak nahitaez bete behar dituzte estatu kideek eta EBko instituzioek.
- 41d) Instituzio independentea da eta haren ebazpenak nahitaez bete behar dituzte estatu kideek; ez, ordea, EBko instituzioek.

42 Non dauka egoitza Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak?:

- 42a) Luxenburgon.
- 42b) Estrasburgon.
- 42c) Bruselan, Batasuneko gainerako erakundeak bezala.
- 42d) Luxenburgon eta Estrasburgon, txandaka.

43 Justizia Auzitegiari buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:

- 43a) Auzitegia estatu kide bakoitzeko epaile batek osatzen du, eta abokatu nagusiek laguntzen diote.
- 43b) Europar Batasunaren Tratatuak xedatutakoaren arabera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere baitan hartuko ditu Justizia Auzitegia, Auzitegi Orokorra eta auzitegi espezializatuak.
- 43c) Justizia Auzitegiaren jurisdikzio-jarduera hiru edo bost epaileko saletan mamitzen da, edo 15 epailez osatutako Sala Nagusian, edo, salbuespen gisa, osoko bilkuran.
- 43d) Justizia Auzitegiko epaile eta abokatu nagusiek lau urteko agintaldia izango dute, eta beste behin bakarrik berriro ahal izango dituzte.

- 44 Honako errekurtsio edo gai hauetatik, zein EZ da bideratzen EBko Justizia Auzitegian?:**
- 44a) Arazo prejudiziala edo eragorpen prejudiziala. Prozedura horren bidez, organo jurisdikzional nazional batek, kasu jakin batean Batasuneko Zuzenbidea aplikatzeaz arduratzen denak, Justizia Auzitegiari kontsulta diezaiokie kasu horretan aplikatu beharreko Europako arauaren interpretazioari edo baliozkotasunari buruzko edozein zalantza.
 - 44b) Estatu kideen ez betetzearen aurkako errekurtsioa. Errekurtsio horren helburua da estatuek EBko kide gisa dauzkaten betebeharrak betetzen dituztela kontrolatzea.
 - 44c) Babes-errekurtsioa Justizia Auzitegian. EBko oinarrizko eskubideak defendatzeko prozedura da.
 - 44d) Deuseztatze-errekurtsioak eta ez egitearen aurkako errekurtsioak. Instituzioen ekintzaren edo jarduerarik ezaren aurka zuzentzen dira, hurrenez hurren.
- 45 Zer da EBko «Zuzenbide eratorria»?:**
- 45a) Estatu kideek EBk ezarritako jarraibideen arabera onartutako arau juridikoen multzoa da.
 - 45b) EBko instituzioek eta estatu kideek onartutako arau juridikoen multzoa da.
 - 45c) Konstituzio nazionaletatik datorren Europar Batasunari buruzko zuzenbidea da.
 - 45d) EBren tratatuetatik eratorria da, eta jatorria eta izaera instituzionala ditu. EBren egintza juridikoak dira.
- 46 Batasunaren egintza juridikoak, non integratzen dira?:**
- 46a) Formalki eta berehala integratzen dira estatu kideen zuzenbide nazionalean, EBren Aldizkari Ofizialean argitaratze hutsarekin, dagokion estatuak alde aurretik berretsi beharrik gabe.
 - 46b) Formalki eta berehala integratzen dira estatu kideen zuzenbide nazionalean, EBren Aldizkari Ofizialean argitaratze hutsarekin, baina dagokion estatuak berretsi ondoren.
 - 46c) Ez dira barne-zuzenbidean integratzen, eta Batasuneko instituzioek aplikatzen dituzte.
 - 46d) Formalki eta berehala integratzen dira estatu kideen zuzenbide nazionalean, BOEn argitaratuta.
- 47 EBren erregelamenduak eta zuzentarauak:**
- 47a) Juridikoki lotesleak diren egintzak dira beti.
 - 47b) Legegintzako egintzen edo eskuordetutako egintzen kategorian har daitezke, baina ez betearazpen-egintza gisa.
 - 47c) Legegintzako prozedura arruntaren bidez onartzen dira, baina ez legegintzako prozedura bereziaren bidez.
 - 47d) Ezin da betearazpen-erregelamendu eta -zuzentzaraurik egon.
- 48 Batasuneko Zuzenbidearen arabera, zein da baieztapen zuzena?:**
- 48a) Batasunaren egintza juridikoki lotesleak erregelamenduak, zuzentarauak, erabakiak, gomendioak eta irizpenak dira.
 - 48b) Erabakiak ez dira juridikoki lotesleak.
 - 48c) Irizpenak juridikoki lotesleak dira estatu kideentzat.
 - 48d) Gomendioak ez dira juridikoki lotesleak.
- 49 Egintza juridiko lotesleak EBren Aldizkari Ofizialean argitaratzea dela eta, zein da baieztapen zuzena?:**
- 49a) Egintza juridiko lotesleak argitaratzea funtsezko betekizun formala da estatu kideetako barne-zuzenbidean exijitu ahal izateko.
 - 49b) Egintza juridiko lotesleak argitaratzea funtsezko betekizun formala da legegintza-egintzen kasuan, ez betearazpen-egintzen kasuan.
 - 49c) Batasunaren egintza juridiko lotesleak beti sartuko dira indarrean EBren Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean.
 - 49d) Batasunaren egintza lotesleak egintza horien eraginpeko estatu kideetako hizkuntzetan bakarrik argitaratzen dira.

- 50 EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera, Batasunaren egintza juridikoek:**
- 50a) Arrazoietan oinarrituta egon beharko dute, eta Tratatuetan jasotako proposamenak, ekimenak, gomendioak, eskaerak edo irizpenak hartuko dituzte abiaburu.
 - 50b) Ez dute zertan motibatuta egon.
 - 50c) Arrazoituta egon beharko dute, baldin eta estatuei eragiten badiete.
 - 50d) Arrazoituta egon beharko dute, baldin instituzioei eragiten badiete.
- 51 Europar Batasuneko Erregelamendua, zer arau-mota edo kategoria da?:**
- 51a) Araugintzarako ahalmen handia duenez, Europar Batasunaren eskumen eskusiboko eremuetan baino erabiltzen ez dena.
 - 51b) Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen partekatuetan baino erabiltzen ez dena.
 - 51c) Estatu kidean zuzenean aplikatzekoa den araua.
 - 51d) Zuzenean aplikatu beharreko araua, estatu kideak hala onartzen badu.
- 52 Irismenari dagokionez, Europar Batasuneko Erregelamendua, zer arau-mota edo kategoria da?:**
- 52a) Irismen orokorra du, baina normalean hartzaile zehatzak identifikatzen ditu.
 - 52b) Irismen orokorra du, baina ez dira nahitaez bete beharrekoak haren elementu guztiak.
 - 52c) Ez du irismen orokorrik, espezifikoa baizik, baina nahitaez bete beharrekoak dira bere elementu guztiak.
 - 52d) Irismen orokorra du, nahitaez bete beharrekoak dira bere elementu guztiak eta estatu kide bakoitzeko barne-zuzenbidean zuzenean aplikatzekoa da.
- 53 Zer alde dago erregelamenduaren eta zuzentarauaren artean?:**
- 53a) Hierarkia-erlazio bat dago erregelamenduaren eta zuzentarauaren artean, eta erregelamendua zuzentarauaren gaineratik dago.
 - 53b) Erregelamendua zuzentarauari ezartzen zaio irismen orokorrekoa bada.
 - 53c) Erregelamenduan ez bezala, zuzentarauaren kasuan ez dira nahitaez bete beharrekoak haren elementu guztiak, lortu beharreko emaitzari dagozkionak bakarrik.
 - 53d) Zuzentaria erregelamenduari ezartzen zaio irismen orokorrik ez badu erregelamendua, eta emaitzari dagokionez baino ez du lotzen.
- 54 Europako zuzentariak estatu kide hartzailea behartzen al du?:**
- 54a) Lortu beharreko emaitzari eta hori lortzeko modua eta bitartekoak hautatzeari dagokionez bakarrik.
 - 54b) Ez ditu estatu kideak behartzen lortu beharreko emaitzari, soilik emaitza hori lortzeko moduari eta bitartekoei dagokienez.
 - 54c) Definizioz, ez da barne-zuzenbidean zuzenean aplika daitekeen arau-mota bat.
 - 54d) Definizioz, barne-zuzenbidean zuzenean aplika daitekeen arau-mota bat da; izan ere, lortu beharreko emaitzari dagokionez behartzen du.
- 55 Europar Batasuneko zuzentariak:**
- 55a) Ez dute barne-araurik edo estatu-araurik behar, erregulazioaren funtsezko alderdiak jaso eta erregulazioan ezarritako emaitza bermatzen duenik.
 - 55b) Transposizio-epe bat jasotzen dute, eta epe hori amaitu baino lehen, estatuak behartuta daude zuzentariaren ezarritako emaitza lortzeko beharrezkoak diren barne-arauak hartzera.
 - 55c) Nahitaezkoak dira estatuentzat, baina ez dute edukiaren transposizioarako eperik jasotzen.
 - 55d) Nahitaezkoak dira zuzenean, bai estatuentzat, bai herritarrentzat.

56 Nolako erakundea da Europar Batasuna?:

- 56a) Gaur egun, 28 estatuk osatzen duten erakundea.
- 56b) Estatu kideek eskumenak lagatzean oinarritutako erakundea.
- 56c) Nazioarteko erakunde klasikoa, non estatuek gogor lan egiten duten helburu komunak lortzeko.
- 56d) Gaur egun, Europako Konstituzioak eta Europako Erkidegoaren Tratatuak araututako erakundea.

57 Honako entitate hauetatik, zein EZ da Europar Batasuneko instituzio bat?:

- 57a) Kontseilu Europarra eta Europako Batzordea.
- 57b) Europako Kontseilua.
- 57c) Europar Batasuneko Kontseilua.
- 57d) Europako Banku Zentrala.

58 Kontseilu Europarra:

- 58a) Estatu kideetako estatuburuak edo gobernuburuak, Kontseilu Europarreko lehendakariak berak eta Europako Parlamentuko lehendakariak osatzen dute.
- 58b) Batasunaren garapena bultzatu, haren norabide eta lehentasun politiko orokorrak zehaztu eta Batasunaren legegintza funtzioa beteko ditu.
- 58c) Batasunaren garapena bultzatu eta haren norabide eta lehentasun politiko orokorrak zehaztuko ditu, baina ezin du inolako legegintza funtziorik bete.
- 58d) Estatu kideetako estatuburuak edo gobernuburuak, Europako Batzordeko lehendakariak eta Europako Parlamentuko lehendakariak osatzen dute.

59 Europar Batasuneko Kontseilua:

- 59a) Ez da Europako instituzio bat, Europako Batzordearen organo aholku-emailea baizik.
- 59b) Europar Batasunaren legegilekidea da, eta legegintza-funtzioa betetzen du Europako Parlamentuarekin batera.
- 59c) Estatu kide bakoitzeko hiru ordezkariak osatzen dute.
- 59d) Batasuneko herritarrek zuzenean ordezkatzeko dituzte eta estatu kideak zeharka.

60 Europako Batzordea:

- 60a) Batasunaren interes orokorra ordezkatzeko eta bermatzeko du.
- 60b) Legegintza-ekimenaren ia monopolioa du, eta, beraz, Europako Parlamentuarekin batera, Europar Batasuneko legegilekidea da.
- 60c) Europako gaien betearazle eta kudeatzaile den aldetik, Batzordeak erantzukizun politikoa du Europako Parlamentuaren aurrean, baina Parlamentuak ezin du haren kontrako zentsura-moziorik bozkatu.
- 60d) Batzordeko kideak estatu kideetako gobernuak izendatu eta proposatzeko dituzte, eta, horrela, estatu kideen ordezkari zuzena da.

61 Europar Batasuneko Parlamentuari buruzko baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:

- 61a) Europako herritarrek zuzenean hautatzen dute, eta Parlamentuak herritarrok ordezkatzeko dituzte Europaren eraikuntza politikoko prozesuan.
- 61b) Kontseiluarekin batera legegintza eta aurrekontu-eginkizunak betetzen ditu.
- 61c) Europako Batzordearen gaineko kontrol politikorako ahalmenak ditu.
- 61d) Europako Parlamentuko diputatuak zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpeko hautatuko dira, lau urteko agintaldi baterako.

4. gaia

- 62 Zein izan zen Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia lortzeko erabili zuen konstituzio-bidea?:
- 62a) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria.
 - 62b) Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorra.
 - 62c) 1978ko urtarrilaren 4ko Lege Dekretua, aurreautonomia ezarri zuena.
 - 62d) Konstituzioaren 143. artikulua.
- 63 Euskal Autonomia Estatutua (adierazi erantzun OKERRA):
- 63a) Konstituzioaren 151.2. artikuluan xedatutakoaren arabera egin zen.
 - 63b) Hura onartzeko prozesua 1979ko urriaren 25ean Euskadin egindako estatutu-testuari buruzko erreferendumarekin amaitu zen.
 - 63c) Euskadiko Kontseilu Nagusiak idatzi zuen eta erreferendum bidez onartu zen.
 - 63d) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organiko gisa aldarrikatu zen.
- 64 Euskal Autonomia Estatutuak:
- 64a) Autonomia-erkidegoaren izena eta lurraldearen mugaketa jasotzen ditu hitzaurrean.
 - 64b) Ez du atariko titulurik.
 - 64c) Ez du hitzaurrerik.
 - 64d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak jasotzen ditu atariko titulan.
- 65 Euskal Autonomia Estatutuaren edukia dela eta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:
- 65a) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoen antolaketa eta instituzioak berrezarri eta eguneratzen ditu.
 - 65b) Ogasuna eta Ondarea arautzen ditu, Ekonomia Itunaren sistema tradizionala berrezarritik.
 - 65c) Estatutua bera erreformatzeko prozedura jasotzen du.
 - 65d) Xedapen gehigarri bat dauka, eta bertan adierazten da Estatutuan finkatutako autonomia-araubidea onartu izanak ez dakarrela Euskal Autonomia Erkidegoak bere historiaren haritik herri gisa dagozkiokeen eskubideei uko egitea, eta ordenamendu juridikoak ezartzen duenarekin bat gaurkotu ahal izango direla eskubide horiek.

- 66 Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza Gasteizen dago, hala ezartzen baitu:**
- 66a) Espainiako Konstituzioak.
 - 66b) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak.
 - 66c) Espainiako Parlamentuaren lege batek.
 - 66d) Eusko Legebiltzarraren lege batek, Estatutuak berak hala adierazten duelako.
- 67 Euskal Autonomia Estatutuak:**
- 67a) Euskadiko bandera deskribatzen du eta, era berean, hura osatzen duten lurralde historikoetako bandera eta ikur propioak onartzen ditu.
 - 67b) «Eusko Abendaren Ereserkia» doinua Euskadiko himno ofizialtzat jotzen du.
 - 67c) Erkidegoaren armarrria arautzen du.
 - 67d) Erkidegoaren lurraldea gaur egungo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeek osatzen dutela behin betiko ezartzen du.
- 68 Hizkuntzak direla eta, Estatutuak ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 68a) Euskara eta gaztelania dira Euskal Herriaren hizkuntza propioak.
 - 68b) Euskara eta gaztelania dira Euskal Herriaren hizkuntza ofizialak.
 - 68c) Euskara da Euskal Herriaren hizkuntza propioa.
 - 68d) Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.
- 69 Euskal Autonomia Erkidegoaren antolaketa edo konfigurazio instituzionala dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**
- 69a) Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren birtutez gauzatuko dira.
 - 69b) Euskal Autonomia Erkidegoko barne-diseinu instituzionala gainerako erkidegoetako diseinuaren antzekoa da.
 - 69c) Euskadiren aginteak eta erakunde-antolaketa Eusko Legebiltzarraren lege batean daude finkatuta.
 - 69d) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde antolaketaren berezko ezaugarrietako bat lurralde historikoen existentzia eta protagonismoa da.
- 70 Estatutua erreformatzeko ekimena, nori dagokio, besteak beste?:**
- 70a) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta herri-ekimenari.
 - 70b) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta udal-ekimenari.
 - 70c) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gorte Nagusiei.
 - 70d) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta Lurralde Historikoen ekimenari.
- 71 Autonomia Estatutuaren erreforma dela eta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 71a) Estatutuak erreforma-prozedura orokor bat eta kasu zehatzetarako hiru prozedura espezifiko ezartzen ditu.
 - 71b) Estatutuak berriazko erreforma-prozedura bat jasotzen du, Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko hipotesia gauzatzen den kasurako. Aukera hori jasota dago Konstituzioaren Laugarren Xedapen Iragankorrean eta Estatutuaren 2. artikuluan.
 - 71c) Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak onartu behar dute erreforma-proposamena, eta, ondoren, Gorte Nagusietara bidali, onar dezaten.
 - 71d) Erreforma-proposamena, behin Eusko Legebiltzarrean onartuta, Gorte Nagusiei helarazi behar zaie, lege organiko bidez onar dezaten, eta, azkenik, erreferendum bidez onartu beharko da.

- 72 Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketaren konstituzio-ereduaren arabera:**
- 72a) Konstituzioak berariaz autonomia-erkidegoei esleitu ez dizkien gaiak Estatuari dagozkie.
 - 72b) Estatuak bere gain hartu ez dituen gaien gaineko eskumena autonomia-erkidegoei dagozkie.
 - 72c) Zuzenbide autonomikoa, betiere, Estatuaren zuzenbidearen ordezkia izango da.
 - 72d) Lege organiko bidez, Estatuak autonomia-erkidegoei transferi edo eskuorde diezazkieke Estatuaren titulartasunari dagozkion ahalmenak, baldin eta ahalmenok, beren izaera dela eta, transferitu edo eskuordetzeko modukoak badira.
- 73 Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko sisteman, eskumenak direla eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**
- 73a) Eskumenak eksklusiboak eta partekatatuak izan daitezke.
 - 73b) Eskumenak legegintzarako eta betearazpenerako eksklusiboak izan daitezke, baina ezin dira partekatu.
 - 73c) Eskumenak ezin dira partekatu legegintzan.
 - 73d) Eskumenak partekatatuak izan daitezke, baina gai guztietako oinarrizko legeria Estuati dagozkie.
- 74 Autonomia Estatutuan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak ez du legegintza-eskumenik honako gai hauetan:**
- 74a) Nekazaritza eta abeltzaintza.
 - 74b) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako foru-zuzenbide zibil eta berezia, dela idatzia ala ohiturazkoa, gorde, aldatu nahiz garatzea.
 - 74c) Ingurumena eta ekologia.
 - 74d) Jabetza intelektuala eta industrial.
- 75 Euskal Autonomia Estatutuak ezarritakoaren arabera:**
- 75a) Hauteskunde-barruti bakoitzeko hogeita bost legebiltzarkidek osatuko dute Eusko Legebiltzarra, zeinak bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuko diren.
 - 75b) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berak osatuko du Eusko Legebiltzarra.
 - 75c) Gehiengoaren ordezkari-irizpideen arabera hautatutako legebiltzarkideek osatuko dute Eusko Legebiltzarra.
 - 75d) Eusko Legebiltzarra gutxienez 75 legebiltzarkidek osatzen dute, eta probintzia bakoitzari dagokion legebiltzarkide-kopurua biztanleriaren arabera banatzen da.
- 76 Zeintzuk dira Eusko Legebiltzarraren eginkizun nagusiak?:**
- 76a) Legegintza-ahala eta eginkizun betearazlea gauzatzeta eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatzea eta kontrolatzea.
 - 76b) Legegintza-ahala gauzatzeta, bere aurrekontuak onartzea eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatzea eta kontrolatzea.
 - 76c) Legegintza-ahala gauzatzeta, bere aurrekontuak onartzea eta barne- eta kanpo-politika bultzatzea eta zuzentzea.
 - 76d) Legegintza- eta betearazpen-ahala gauzatzeta, bere aurrekontuak onartzea eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatzea eta kontrolatzea.
- 77 Eusko Legebiltzarrean, nori dagokio legegintza-ekimena?:**
- 77a) Legebiltzarreko kideei, lehendakariari eta lurralde historikoei.
 - 77b) Legebiltzarreko eta Jaurlaritzako kideei bakarrik.
 - 77c) Lurralde historikoak ordezkatzeta dituzten erakundeek badute legegintza-ekimena.
 - 77d) Eusko Legebiltzarrean ez dago legegintzako herri-ekimenerako aukerarik.

78 Eusko Legebiltzarraren legeak:

- 78a) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak aldarrikatuko ditu, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.
- 78b) Eusko Legebiltzarreko lehendakariak aldarrikatuko ditu, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
- 78c) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, baina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunak aginduko du indarrean noiz sartuko diren jakiteko.
- 78d) Indarrean noiz sartuko diren jakiteko, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunak aginduko du.

79 Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariaren hautaketa dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:

- 79a) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik eta erregeak izendatuko du.
- 79b) Hauteskunde autonomikoak irabazten dituen hautatuko da lehendakari, eta Eusko Legebiltzarrak izendatuko du.
- 79c) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du, baina ez legebiltzarkideen artetik, nahitaez.
- 79d) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du, eta Legebiltzarreko lehendakariak izendatuko.

80 Eskumen edo ahalmen hauetatik, zein EZ dagokio lehendakariari?:

- 80a) Eusko Legebiltzarra desegitea, Jaurlaritzak eztabaidatu ondoren.
- 80b) Gobernu-programa zehaztea eta sailburuak izendatzea eta kentzea.
- 80c) Konfiantza-arazoa eta zentsura-mozioa aurkeztea Eusko Legebiltzarrean.
- 80d) Jaurlaritzaren legegintza-egitasmoa koordinatzea.

81 Eginkizun edo eskumen hauetatik, zein EZ dagokio Eusko Jaurlaritzari?:

- 81a) Lege-proiektuak onartzea Legebiltzarrera bidaltzeko.
- 81b) Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatu eta betearazteko erregelamenduak dekretu bidez onartzea.
- 81c) Euskadiren ordezkari izango diren senatariak izendatzea.
- 81d) Ertzaintzaren agintaritza goren, lehendakariaren bitartez gauzatuko duena.

82 Eusko Jaurlaritza, instituzio gisa, kide anitzeko organoa da, eta honako hauek osatzen dute:

- 82a) Lehendakariak eta sailburuek.
- 82b) Lehendakariak, sailburuek eta Administrazioako goi-kargudunek.
- 82c) Lehendakariak, sailburuek eta sailburuordeek.
- 82d) Lehendakariak, lehendakariordeek eta Administrazioako goi-kargudunek.

5. gaia

- 83 Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen (Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza) eta lurralde historikoetako foru-organoen (batzar nagusiak eta foru-aldundiak) arteko eskumen-banaketa:**
- 83a) Konstituzioan eta Euskal Autonomia Estatutuan dago jasota.
 - 83b) Euskal Autonomia Estatutuan dago jasota.
 - 83c) Eusko Legebiltzarraren Lurralde Historikoen 27/1983 Legean dago araututa.
 - 83d) Espainiako Parlamentuaren Lurralde Historikoen 27/1983 Legean dago araututa.
- 84 Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan boterea banatzeko eremuan, lurralde historikoek eskumen batzuk dituzte erreserbatuta (adierazi erantzun OKERRA):**
- 84a) Foraltasunaren muina osatzen duten eskumen batzuk dituzte erreserbatuta, eta foraltasun hori ukiezina da euskal legegilearentzat.
 - 84b) Foraltasunaren muina osatzen duten eskumen batzuk dituzte erreserbatuta, eta foraltasun hori ukiezina edo erasoezina da Estatuko legegilearentzat.
 - 84c) Foraltasunaren berme instituzional gisa identifikatzen den eskumen-muina dute, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarritik eta foru-lurraldeen eskubide historikoen aitortpenetik eratorria.
 - 84d) Eskumen-muin indartua dute, eta legegileak baino ezin du mugatu edo murriztu.
- 85 Foraltasunaren funtsezko muin ukiezina osatzen duten lurralde historikoen eskumenen artean EZ daude honako hauek:**
- 85a) Beren antolakuntza eta autogobernurako erakunde propioak kontserbatzeko, berrezartzeko eta eguneratzeko eskumenak.
 - 85b) Errepide eta bideen gaineko eskumenak.
 - 85c) Beren erakunde propioen antolakuntza, araubide eta jardueraren gaineko eskumenak.
 - 85d) Zuzenbide zibil forala eta berezia kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko eskumenak.

- 86** Autonomia Estatutuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eta Lurralde Historikoetako foru-organoei berariaz aitortzen edo esleitzen ez zaizkien gai guztietan legeak egiteko eta betearazteko eskumena nori dagokio?:
- 86a) Lurralde historikoetako foru-organoei.
 - 86b) Foru-aldundiei.
 - 86c) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei.
 - 86d) Batzar Nagusiei.
- 87** Euskal Autonomia Erkidegoan, nori dagokio lege-mailako arauak emateko ahalmena?:
- 87a) Eusko Legebiltzarrari bakarrik, Autonomia Estatutuak adierazten duen moduan.
 - 87b) Eusko Legebiltzarrari bakarrik, Lurralde Historikoen Legeak (27/1983 Legea) adierazten duen moduan.
 - 87c) Eusko Legebiltzarrari eta Batzar Nagusiei.
 - 87d) Eusko Legebiltzarrari eta, tributuen arloan, Batzar Nagusiei ere bai.
- 88** Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoen artean eskumenak banatzeko sistema arautzerakoan:
- 88a) Batzuei eta besteei dagozkien eskumenen zerrendak Lurralde Historikoen Legean (27/1983 Legea) daude ezarrita.
 - 88b) Batzuei eta besteei dagozkien eskumenen zerrendak Autonomia Estatutuan daude jasota.
 - 88c) Batzuei eta besteei dagozkien eskumenen zerrendak lege organiko batean daude araututa.
 - 88d) Ez dago horrelako zerrendarik. Lurralde Historikoen Legeak (27/1983 Legea) lurralde historikoei dagozkien eskumenak aipatu besterik ez du egiten, eta gainerakoak erakunde komunei esleitzen dizkie, salbu eta lurralde historikoei transferitzen bazaizkie.
- 89** Lurralde historikoek, udal-hauteskundearen araubidearen arloan:
- 89a) Eskumen eskusiboa dute.
 - 89b) Ez dute eskumen eskusiborik, baina bai arauak garatzeko eta betearazteko eskumenak.
 - 89c) Betearazteko eskumenak baino ez dituzte.
 - 89d) Ez dute eskumenik arlo horretan.
- 90** Lurralde historikoek gai batean duten eskumena «arau bidez garatzekoa eta betearazlea» izateak, zer esan nahi du? (adierazi erantzun OKERRA):
- 90a) Lurralde historikoek ezin dutela gai horretan erakunde komunen arauen gaineratik dagoen araurik eman: men egin behar diete erakunde komunek agindutako arauari, eta arau horiek garatu eta betearazi.
 - 90b) Lurralde historikoek gai horretan erregelamendu-arauak baino ezin dituztela eman.
 - 90c) Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, eskumen mota honetan, erakunde komunek oinarrizko arauak egiteko eskumena dutela, eta lurralde historikoek, berriz, haiek garatzekoa.
 - 90d) Erakunde komunen araugintza-ahala «oinarrizkoa» arautzera mugatu behar dela.
- 91** Lurralde historikoek gai batean eskumen «esklusiboa» izateak, zer esan nahi du? (adierazi erantzun OKERRA):
- 91a) Lurralde historikoek legegintza-ahala dutela, bai eta arauak garatzeko eta betearazteko ahala ere.
 - 91b) Lurralde historikoek gai horretan emandako foru-arauak lehentasunez aplikatzen direla erakunde komunek emandako beste edozeinen aurretik.
 - 91c) Lurralde historikoek araugintza-ahala dutela, bai eta erregelamendu- eta administrazio-ahala ere, ikuskaritza barne, eta berrikuspen-ahala dutela administrazio-bidean.
 - 91d) Lurralde historikoei dagokiela gai horretan Estatuko oinarrizko legeria garatzeko eta betearazteko eskumena.

- 92 Eskola-kirolari eta guztiontzako kirolari buruzko programen arloan lurralde historikoez duten eskumena, nolakoa da?:
- 92a) Eskumen eksklusiboa da.
 - 92b) Arauen garapenerako eta betearazpen-eskumena da.
 - 92c) Arlo horretan, lurraldeek betearazpen-eskumenak baino ez dituzte.
 - 92d) Legegintza-, erregelamendu- eta betearazpen-eskumena da.
- 93 Ondare historiko-artistiko monumentalak eta arkeologikoa kontserbatu, hobetu eta zaharberitzeko lurralde historikoez duten eskumena, nolakoa da?:
- 93a) Legegintza-, erregelamendu- eta betearazpen-eskumena da.
 - 93b) Arauen garapenerako eta betearazpen-eskumena da.
 - 93c) Arlo horretan, lurraldeek betearazpen-eskumenak baino ez dituzte.
 - 93d) Eskumen eksklusiboa da.
- 94 Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako erakundeen artean eskumen-gatazkarik sortuz gero, nori ebatziko du?:
- 94a) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak.
 - 94b) Arbitraje Batzordeak.
 - 94c) Aholku Batzorde Juridikoak.
 - 94d) Auzitegi Goreneko eskumen-gatazken Salak.
- 95 Nola dago osatua Arbitraje Batzordea?:
- 95a) Presidenteak eta sei kidek osatzen dute. Kide horietako hiru Eusko Jaurlaritzak izendatzen ditu, eta bana foru aldundiek, Legebiltzarrari eta Batzar Nagusiei informazio-kontsulta egin ondoren.
 - 95b) Sei kidek osatzen dute. Kide horietako hiru Eusko Legebiltzarrak izendatzen ditu, eta beste hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea izango da buru.
 - 95c) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko sei magistratuk osatzen dute, eta Auzitegiko presidentea izango da buru.
 - 95d) Eusko Jaurlaritzak aukeratutako kide batek, Foru Aldundiek izendatutako beste batek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea osatzen dute.
- 96 Zertaz arduratzen da Arbitraje Batzordea?:
- 96a) Eusko Legebiltzarraren legeri buruz formulatzen diren eskumen-arazoez.
 - 96b) Batzar Nagusien foru-arauei buruz formulatzen diren eskumen-gatazkez.
 - 96c) Izapidetzen ari diren lege-proiektu eta -proposamenei edo foru-arauei buruz formulatzen diren eskumen-arazoez.
 - 96d) Izapidetzen ari diren lege-proiektu eta -proposamenei edo foru-arauei buruz formulatzen diren eskumen-gatazkez.
- 97 Arbitraje Batzordea honako gai hauen inguruan sortzen diren eskumen-gatazkez arduratzen da:
- 97a) Eusko Legebiltzarraren xedapen, ebazpen edo egintzak.
 - 97b) Batzar Nagusien xedapen, ebazpen edo egintzak.
 - 97c) Eusko Legebiltzarraren eta Batzar Nagusien xedapen, ebazpen edo egintzak.
 - 97d) Eusko Jaurlaritzaren edo Foru Aldundien xedapen, ebazpen edo egintzak.

98 Arbitraje Batzordeak eskumen-arazoak ebazteko hartzen dituen erabakiak:

- 98a) *Erabakiak* deitzen dira, irmoak dira eta ezin dira auzitegietan errekurritu.
- 98b) *Epaiak* deitzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian errekurritu daitezke.
- 98c) Auzitegi Gorenean baino ezin dira errekurritu.
- 98d) *Ebazpenak* deitzen dira, eta Konstituzio Auzitegian errekurritu daitezke.

99 Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko tributu arloko harremanak Ekonomia Itunaren foru sistema tradizionalaren bidez arautuko dira. Sistema horri buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:

- 99a) Itunaren aurrekari historikoak XIX. mende amaierakoak dira, 1876an Euskal Foruak indargabetu ondorengoak.
- 99b) Itunaren babesa Espainiako Konstituzioan bertan dago ezarrita, eta haren eguneratze orokorra Konstituzioaren eta Euskal Autonomia Estatuaren esparruan egiten da.
- 99c) Ituna Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez zehazten da, gaur egun 12/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.
- 99d) Bi aldeen artean egindako aldebiko ituna da, Estatuaren ordezkari eta euskal ordezkari ordezkatzeko dituenak. Azken hori, Autonomia Erkidegoko Erakunde Zentralen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen ordezkariak osatzen dute.

100 Autonomia Estatuaren arabera, zeintzuk dira lurralde historikoetako tributu-araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko erakunde eskudunak?:

- 100a) Eusko Legebiltzarra.
- 100b) Eusko Legebiltzarra, foru-aldundien ekimenez.
- 100c) Lurralde historikoetako Batzar Nagusiak.
- 100d) Foru-aldundiak.

101 Nor arduratzen da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko zergen foru-arauen aurka jarritako errekurtsioez?:

- 101a) Arbitraje-Batzordea.
- 101b) EAEko Justizia Auzitegi Nagusia.
- 101c) Konstituzio Auzitegia.
- 101d) Auzitegi Goreneko Hirugarren Sala.

102 Ekonomia Ituna onartzen duen Legeak ezarritakoaren arabera, Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da (adierazi erantzun OKERRA):

- 102a) Kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatua dago, Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.
- 102b) Kupo hori ezartzeko metodologia Gorte Nagusiek bozkatutako lege bidez onartzen da.
- 102c) Kupo horren kalkulua lege bidez onartzen da 10 urtean behin, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak alde aurretik adostuta.
- 102d) Kupo hori kalkulatzeko, lurralde historiko bakoitzari dagokion kupoari kendu beharko zaio tributu itundugabeen zati egozgarria.

103 Nork erabakitzen du bosturteko bakoitzean kupa ezartzeko metodologia?:

- 103a) Ebazpen Batzordeak.
- 103b) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak.
- 103c) Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak.
- 103d) Arbitraje Batzordeak.

- 104 Nork ebazten ditu Ekonomia Itunean dauden lotuneen aplikazioaz sortzen diren kontsultak?:
- 104a) Ebazpen Batzordeak.
 - 104b) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak.
 - 104c) Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak.
 - 104d) Arbitraje Batzordeak.
- 105 Nor arduratzen da banakako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkez?:
- 105a) Ebazpen Batzordea.
 - 105b) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak.
 - 105c) Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea.
 - 105d) Arbitraje Batzordea.
- 106 Non daude jasota, gaur egun, euskal udalen eta gainerako toki-erakundeen esparru juridiko arautzailea eta eskumenak?:
- 106a) Autonomia Estatutuan.
 - 106b) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean.
 - 106c) Gernikako Estatutuan eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legean.
 - 106d) Lurralde Historikoen Legean.

6. gaia

107 Nola hartuko dira emakumei eta gizonei tratamendu desberdina ematen dieten neurri guztiak?:

- 107a) Beti hartuko dira sexuagatiko neurri diskriminatzailetzat.
- 107b) Bakarrik hartuko dira diskriminatzailetzat justifikazio objektiborik edo arrazoizkorik ez badute.
- 107c) Diskriminazio anizkoitzeko egoeratzat hartuko dira.
- 107d) Neurri diskriminatzailetzat hartuko dira, baldin eta aurrekontu-aurreikuspen bat badute.

108 Itxura neutroa duen xedapen edo praktika batek sexu bereko pertsonak beste sexuarekiko desabantaila-egoeran jartzen baditu, zer daukagu?:

- 108a) Zuzeneko diskriminazio-egoera bat.
- 108b) Zeharkako diskriminazio-egoera bat.
- 108c) Diskriminaziorik gabeko egoera bat, xedapena edo praktika itxura neutrokoa delako.
- 108d) Diskriminazio anizkoitzeko edo interseksionaleko egoera bat.

109 Noiz gertatzen da diskriminazio anizkoitza edo interseksionala?:

- 109a) Bai emakumeak eta bai gizonak diskriminazio-egoeran daudenean.
- 109b) Bi diskriminazio-faktorek edo gehiagok aldi berean elkarreraginean dihardutenean, diskriminazio-modu espezifiko bat sortuz.
- 109c) Diskriminazioa batez ere emakumeek diharduten lanbideetan gertatzen denean.
- 109d) Botere publikoek ekintza positiboak aplikatzen dituztenean.

110 Zer eskatzen du emakumeen benetako berdintasun eraginkorrak?:

- 110a) Mekanismo eta tresna eraginkorrak antolatzea ekintza positiboaren esparruan.
- 110b) Berdintasun-printzipioa arau bidez aitortzearekin nahikoa litzateke.
- 110c) Berdintasunerako lege bat onartzea.
- 110d) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten erakundeak egotea, Emakunde esaterako.

111 Genero-ikuspegia txertatzeak zer EZ du esan nahi?:

- 111a) Gure gizartean gizonen eta emakumeen abiapuntuetan, aukeretan eta posibilitateetan dauden desberdintasunak benetan eta zehatz-mehatz ezagutu behar direnik.
- 111b) Bi sexuen arteko desberdintasun biologikoetan oinarrituta justifikatu nahi den emakumeenganako diskriminazioa, desberdintasuna eta bazterketa identifikatu, zalantzan jarri eta balioestea ahalbidetzen duen metodologia behar denik.
- 111c) Desberdintasunaren faktoreetan eragiteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraikitzen aurrera egin ahal izateko behar diren aldaketa-baldintzak sortzeko abiarazi beharreko ekintzak behar direnik.
- 111d) Sexuak identikoak direnik (hau da, pertsonak berdin-berdintzat tratatu behar direnik beti).

112 Arau-proiektu bat sustatzen duen administrazio publikoko edozein organok genero-eragiren ebaluazioa egin behar du alde aurretik:

- 112a) Salbu eta administrazio eskudunak ebaluazioa ez egitea erabakitzen badu, aukerakoa baita eta ez derrigorrezkoa.
- 112b) Salbu eta administrazioak ebaluazioa araua onartu ondoren egitea erabakitzen badu.
- 112c) Ez da egingo, salbuespen gisa, organo eskudunak arrazoitutako eta onetsitako txosten bat dagoenean, non ebaluazioa ez-egitea justifikatzen den.
- 112d) Beti egin behar da, prozedura guztietan, salbuespenik gabe.

113 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako ordezkari-tza orekatuari dagokionez:

- 113a) Sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkari-tza izatea bermatzen duen ordezkari-tza portzentajea da.
- 113b) Erakunde pribatu guztietan errespetatu beharko da, ez bakarrik administrazio publikoko kide anitzeko administrazio-organoeetan.
- 113c) Ez da errespetatuztat joko sexu-etako batek % 40tik gorako ordezkari-tza badu.
- 113d) Pixkanaka lortu beharko da, eta administrazio publikoek ez dute esku hartu beharko hura sustatzeko neurriak hartuz.

114 Gizarteak ezartzen dizkien rolen eta estereotipoen ondorioz emakumeek historikoki jasan dituzten desberdintasunak ezabatu nahi dituzte ekintza positiboko neurriek:

- 114a) Ekintza positiboko neurri horiek pertsona onuradunaren arabera legitimatzen dira.
- 114b) Ekintza positiboko neurri horiek kolektibo diskriminatu bateko kide izatearen arabera legitimatzen dira: emakumeena.
- 114c) Ekintza positiboko neurri horiek sarbide-baldintzak berdintzeari buruzkoak baino ez dira, hau da, «abiapuntuak».
- 114d) Ekintza positiboko neurri horiek emaitzak berdintzea baino ez dute helburu; hau da, «hel-mugakoak» dira.

115 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikia. Nola sortu zen?:

- 115a) Euskal Autonomia Erkidegoko 1979ko Autonomia Estatutuan sortu zen, berdintasun-prin-tzipioa sustatzeko.
- 115b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sortu zen.
- 115c) Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez sortu zen, 4/2005 Legea garatzeko.
- 115d) 1988an sortu zen, *ad hoc* lege batean.

116 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari dagokionez:

- 116a) Espainiako Estatuan onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako Lege Organikoa garatzen du, eta, beraz, geroagokoa da.
- 116b) Bi printzipio orokor ditu ardatz: tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna.
- 116c) Gai bera arautzen duen Espainiako Estatuaren Lege Organikoa baino lehenagokoa da.
- 116d) Euskal botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak finkatzen ditu, hau da, autonomia-erkidegoko organo eta erakundeena, baina ez foru- eta toki-esparrukoena.

117 Honela dio 4/2005 Legearen 3.6 artikulua: «Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez». Hori guztia kontuan hartuta, honako baieztapen hauetatik, zein da zuzena?:

- 117a) «Sexuaren araberako estereotipoa» da gizonek eta emakumeek dituzten ezaugarri berruzko iritzia edo aurreiritzia, zeregin jakin batzuk egitera bultzatzen dituztenak, eta ez beste batzuk.
- 117b) «Sexuaren araberako estereotipoa» da gizonek eta emakumeek dituzten ezaugarri berruzko arau idatzia, zeregin jakin batzuk egitera bultzatzen dituztenak, eta ez beste batzuk.
- 117c) «Gizarte-rola» da maila sozial jakin batekoa izateagatik gizartean pertsonen esleitzen zaizkien jokabideak edo jarduerak.
- 117d) «Euskal aginte publikoak» dira autonomia- eta foru-mailako organoak eta erakundeak, baina ez udal-mailakoak.

118 4/2005 Legeak euskal botere publikoei ezartzen dien lankidetzeta-betebeharrak egitura formalak sortzea ekarri du. Zeintzuk, besteak beste?:

- 118a) Sailarteko Batzordea; Sailarteko Talde Teknikoa; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- 118b) Sailarteko Talde Teknikoa; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea; Berdinsarea.
- 118c) Berdintasunerako Unitateen Sarea; Erakundearteko Talde Teknikoa; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- 118d) Berdintasunerako Unitateen Sarea; Berdinsarea; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.

119 Zer dira Berdintasunerako Unitateak?:

- 119a) Koordinazioko administrazio-unitateak dira, izaera informalekoak, 4/2005 Legeak sortuak eta abenduaren 26ko 213/2007 Dekretuak arautuak.
- 119b) Koordinazioko administrazio-unitateak dira, izaera formalekoak, 4/2005 Legeak sortuak eta abenduaren 26ko 213/2007 Dekretuak arautuak.
- 119c) Koordinazioko administrazio-unitateak dira eta Emakunderen parte dira.
- 119d) Koordinazioko administrazio-unitateak dira eta Berdinsarearen parte dira.

120 Zer da Berdintasunerako Unitateen Sarea?:

- 120a) Emakundek eta Eudelek bultzatutako udalerrien sarea da, eta Berdinsarea ere deitzen zaio.
- 120b) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-mugimenduak koordinatzen dituen sarea da.
- 120c) Formalki araututako egitura da, Berdintasunerako Unitateak koordinatzen dituena.
- 120d) Formalki arautu gabeko egitura da, Berdintasunerako Unitateak koordinatzen dituena.

121 Emakumea diskriminatzeneko era guztiak deuseztatzeari buruzko 1979ko Konbentzioari (CEDAW) dagokionez:

- 121a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lehen aurrekari garrantzitsua da, eta Europako Kontseiluan onartu zen.
- 121b) Europar Batasunean onartu zen gai horren inguruko lehen ituna da.
- 121c) Mundu osoan onartutako printzipioak eta estatuak eta zenbait eragile pribatuk hartu beharreko neurri zehatzak aldarrikatzen ditu, juridikoki betebeharrekoak.
- 121d) Mundu osoan onartutako printzipioak eta estatuak eta zenbait eragile pribatuk hartu beharreko neurri zehatzak aldarrikatzen ditu, baina ez dira juridikoki nahitaez betebeharrekoak.

122 Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria borrokatzeko eta prebenitzeko 2011ko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena):

- 122a) Adierazpen politiko bat da, arau-izaerarik gabea, eta estatu sinatzaileek emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren inguruan duten jarrera adierazten dute.
- 122b) Estatu sinatzaileei betebeharririk sortzen ez dien araua da.
- 122c) 2014an sartu zen indarrean Espainian, berretsi ondoren.
- 122d) 2011n sartu zen indarrean Espainian, Europako Kontseiluak onartu zuenean.

123 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, nola lortu nahi du Europar Batasunak berdintasun materiala?:

- 123a) Estrategia dual baten bidez: ekintza positiboko politikak edo zehazki emakumeei zuzendutakoak, batetik, eta zeharkako politikak, bestetik.
- 123b) Ekintza positiboko politiketan oinarritutako estrategia bakar baten bidez.
- 123c) Zeharkako politiketan oinarritutako estrategia bakar baten bidez.
- 123d) Estatu kideak gaiari buruzko nazioarteko hitzarmenak sinatzera behartuz.

7. gaia

- 124 Erakunde batean administrazio elektronikoa ezartzeko, diziplina anitzeko ikuspegia behar da, eta ikuspegi horrek eragina du erakundearen datuetan, haren segurtasunean, eta non gehiago?:
- 124a) Teknologian eta administratuengan, baina ez prozesuetan.
 - 124b) Teknologian eta prozesuetan, baina ez administratuengan.
 - 124c) Langileengan, administratuengan, prozesuetan eta teknologian.
 - 124d) Langileengan, administratuengan eta prozesuetan, baina ez teknologian.
- 125 Non daude jasota lehenengo aldiz administrazioak bere esku dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea edota informazio publikorako, artxiboetarako eta erregistroetara irispideak izateko eskubideak?:
- 125a) Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean.
 - 125b) Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean.
 - 125c) Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean.
 - 125d) Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean.
- 126 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, zer alde dago prozedura elektronikoaren eta paperezko prozeduraren artean?:
- 126a) Desberdinak dira epe berarekin.
 - 126b) Prozedura bera da.
 - 126c) Prozedura bera da epe desberdinekin.
 - 126d) Desberdinak dira epe desberdinekin.
- 127 Honako elementu hauetatik, zein EZ da administrazio elektronikoaren ezaugarrietakobat?:
- 127a) Kostuak eta espedienteak izapidetzeko denborak murriztea.
 - 127b) Paper gutxiago erabiltzea.
 - 127c) Enplegatu publikoen kopurua murriztea espedienteak automatizatzearen ondorioz.
 - 127d) Informazioaren gizarteari bultzada.

- 128** **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, hauetako zeinek du eragin zuzena administrazio elektronikoan?:**
- 128a) Zerbitzu komunak kudeaketa partekatuta.
 - 128b) Bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzeak.
 - 128c) Ahalordetzeen erregistro elektronikoak.
 - 128d) Administrazio publikoek dokumentuak ematea.
- 129** **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, hauetako zeinek du eragin zuzena administrazio elektronikoan?:**
- 129a) Administrazio publikoen arteko teknologia-transferentziak.
 - 129b) Enplegatutako publikoen sinadura-sistemak.
 - 129c) Administrazio publikoen identifikazio-sistemak.
 - 129d) Interesdunen identifikazio-sistemak.
- 130** **Honako elementu hauetatik, zein EZ da administrazio elektronikoaren betebeharrerik bat?:**
- 130a) Beste administrazio publiko batzuekin elkarreragitea.
 - 130b) Espedienteak elektronikoki artxibatzea.
 - 130c) Administratutako guztiak behartzea harreman elektronikoak izatera.
 - 130d) Informaziorako eta gardentasunerako eskubidea bermatzea.
- 131** **Hauetako zein EZ da Segurtasun Eskema Nazionalaren helburuetako bat?:**
- 131a) Zibererasoen prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa sustatzea.
 - 131b) Elkarreragingarritasunerako beharrezko diren baldintzak sortzea.
 - 131c) Segurtasunaren etengabeko kudeaketa sustatzea.
 - 131d) Jardunbide egokien eredu izatea.
- 132** **Zer da identifikazio elektronikoa?:**
- 132a) Pertsona fisiko edo juridiko baten identifikazio-datuak formatu elektronikoan erabiltzeko prozesua.
 - 132b) Pertsona fisikoaren edo juridikoaren ziurtagiri digitalak dituen datu elektronikoak.
 - 132c) Pertsona fisiko edo juridiko baten dokumentuak formatu elektronikoan digitalki sinatzeko prozesua.
 - 132d) Enplegatutako publikoaren txartelak dituen datu elektronikoak.
- 133** **Nola egiaztatzen da interesdunaren borondatea eta adostasuna?:**
- 133a) Eskuzko sinadura digitalizatuarekin.
 - 133b) Administrazio Publikoko organoaren zigiluarekin.
 - 133c) Identifikazio elektronikoarekin.
 - 133d) Sinadura elektronikoarekin.
- 134** **Zein kolektibok ez du administrazioarekin formatu elektronikoan harremanak izateko obligaziorik?:**
- 134a) Profesionalek.
 - 134b) Nortasun juridikorik gabeko entitateek.
 - 134c) Pertsona juridikoek.
 - 134d) Pertsona fisikoek.

- 135 Zer baldintza bete behar da langile publikoek administratuei lagundu ahal izateko identifikatzen eta eskaerak sinatu eta aurkezten?:**
- 135a) Langile publikoak Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro batean alta emanda egotea.
 - 135b) Langile publikoak alta emanda egotea gaitutako langile publikoen erregistro batean eta erregistro hori gainerako administrazio publikoetakoekin elkarrengarria izatea.
 - 135c) Langile publikoek ziurtagiri digitala izatea.
 - 135d) Langile publikoek arreta- eta erregistro-zerbitzuetan lan egitea.
- 136 Egoitza elektronikoa batean gutxienez eskatzen den edukien artean EZ dago hauetako bat:**
- 136a) Iragarkien eta ediktuen taula.
 - 136b) Iradokizunetarako eta kexetarako inprimakia.
 - 136c) Data eta ordu ofizialak.
 - 136d) Kontratatzailearen profila.
- 137 Zein kasutan eskatuko dute administrazio publikoek interesdunek sinadura nahitaez erabiltzea?:**
- 137a) Kexa eta iradokizun anonimoak aurkezteko.
 - 137b) Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko.
 - 137c) Prozeduren izapidetze-egoera kontsultatzeko.
 - 137d) Ordainagiriak ordaintzeko.
- 138 Honako hauetako zein da dokumentu elektronikoaren ezaugarrietako bat?:**
- 138a) Eman diren unearen denbora-zigilu bat izatea.
 - 138b) Ziurtapen-enpresa batek emanak eta baliozkotuak izatea.
 - 138c) Ikus daitekeen sinadura digitalizatu bat izatea dokumentuan.
 - 138d) Herritarren karpetan gordeta eta irisgarri egotea.
- 139 Nola gorde behar dira administrazio-egintzak jasotzen dituzten dokumentu elektronikoak?:**
- 139a) Artxibatu ziren jatorrizko formatuan eta ezin dira eraldatu.
 - 139b) Informazioaren identitatea eta osotasuna bermatuko duen edozein formatutan.
 - 139c) Une horretan dagoen merkatuko edozein formatu estandarretan.
 - 139d) Dokumentuak biltegitratzen dituen administrazio publikoaren ordenantzetan eta erregelamenduan zehaztutako formatuetan.
- 140 Elkarreragingarritasun semantikoa elkarreragingarritasunaren dimentsio bat da. Zeri egiten dio erreferentzia?:**
- 140a) Trukatutako informazioa interpretatu eta berrerabili ahal izateari.
 - 140b) Trukatutako informazioa gorde eta berrerabili ahal izateari.
 - 140c) Trukatutako informazioa beste euskarri elektronikoa batzuetan gorde ahal izateari.
 - 140d) Trukatutako informazioa administrazio publiko guztiek trukatu ahal izateari.
- 141 Zer egiten du Ziurtapen-agintaritzak?:**
- 141a) Ziurtagiriak ematen dizkio eskatzaile bati.
 - 141b) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen du ziurtagiri bat egin aurretik.
 - 141c) Sinadura-ziurtagiriak baliozkotzen ditu.
 - 141d) Nortasun-ziurtagiriak baliozkotzen ditu.

- 142 40/2015 Legean, administrazioen arteko lankidetzaren esparruan, zer artikuluk du zuzeneko eragina administrazio elektronikoa?:**
- 142a) 38. artikulua: Egoitza elektronikoa.
 - 142b) 95. artikulua: Zerbitzu komunak kudeaketa partekatua.
 - 142c) 155. artikulua: Administrazio publikoen arteko datu-transmisioak.
 - 142d) 42. artikulua: Administrazio-jarduketara automatizaturako sinadura-sistemak.
- 143 30/2015 Legean, interesdunen eskubideen esparruan, zer artikuluk du zuzeneko eragina administrazio elektronikoa?:**
- 143a) 5. artikulua: Ordezkaritza.
 - 143b) 12. artikulua: Herritarrei bitarteko elektronikoa erabiltzen laguntzea.
 - 143c) 21. artikulua: Ebazteko betebeharra.
 - 143d) 9. artikulua: Interesdunen identifikazio-sistemak.
- 144 Zer arauditan jasotzen da, xedapen gehigarri batean, administrazio publikoak beharturik daudela erakundean ezarri behar diren segurtasun-neurriak hartzera, datu pertsonalak galtzea, aldatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko?:**
- 144a) Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan.
 - 144b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean.
 - 144c) Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.
 - 144d) Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan.
- 145 Hauetako zein EZ da Segurtasun Eskema Nazionalaren helburu bat?:**
- 145a) Segurtasunaren etengabeko kudeaketa sustatzea.
 - 145b) Jardunbide egokien eredu izatea.
 - 145c) Lankidetzaren erraztuko duen segurtasunaren tratamendu homogeneoa sustatzea.
 - 145d) Hizkuntza komuna ematea.
- 146 Dokumentu bat ez dela aldatu ziurtatzeko, zer erabili behar dut?:**
- 146a) Sinadura elektronikoa aurreratua.
 - 146b) Ziurtagiri digitala.
 - 146c) Sinadura elektronikoa.
 - 146d) Sinadura biometrikoa.
- 147 Paperean inprimatutako dokumentu elektronikoa bat baliozkotzeko, zer eduki behar du dokumentu horrek?:**
- 147a) Dokumentua ematen duen organoaren zigilua.
 - 147b) Sinatzailearen deskribapena.
 - 147c) EKS (Egiaztapen-kode segurua).
 - 147d) Dokumentua ematen duen administrazio publikoaren harremanetarako datuak.
- 148 Administrazio-jarduketara automatizatu baten bidez sortutako kopia autentikoa bat baliozkoa izan dadin, zer behar da?:**
- 148a) Jarduketara gauzatzen duen funtzionarioak sinatuta egotea kopia.
 - 148b) Organoaren zigiluarekin sinatuta egotea kopia.
 - 148c) Jarduketara gauzatzen duen funtzionarioak sinatuta egotea kopia, baita organoaren zigiluarekin eta entitatearen zigiluarekin ere.
 - 148d) Idazkari nagusiak sinatuta egotea, baita organoaren zigiluarekin eta entitatearen zigiluarekin ere.

- 149 Noiz alda dezake interesdunak Administrazio Publikoarekin harremanetan jartzeko aukeratuak bidea?:**
- 149a) Espedientearen hasiera-fasean.
 - 149b) Instrukzio-fasea amaitzen denean.
 - 149c) Edozein unetan.
 - 149d) Inoiz ez, metodo hori eskabidean aukeratu badu.
- 150 Enplegatu publiko batek izendapen baten aurkako errekurtsioa aurkeztu nahi badu, elektronikoki jarri behar du harremanetan bere administrazio publikoarekin?:**
- 150a) Beti.
 - 150b) Eskabidea aurkezteko bakarrik.
 - 150c) Beti, NAN elektronikoa baldin badu.
 - 150d) Ez dago behartuta.
- 151 Nola identifikatuko dira erabiltzaileentzat Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikok?:**
- 151a) Harremanetarako datuak hasierako orrian ikusteko moduan jarrita.
 - 151b) Helbide elektronikoa gisa Administrazio Publikoaren izena erabiliz, .eus domeinuarekin.
 - 151c) Bere webgunearen autentifikazio-ziurtagiri aitortu edo kualifikatuak erabiliz.
 - 151d) Bere webgunearen ziurtagiri aitortuak erabiliz.
- 152 Identifikazio-sistema hauetatik zein EZ da baliouduna administrazio-prozeduretan erabiltzeko?:**
- 152a) Zerbitzu elektronikoen emaileek emandako sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatuetan oinarritutako sistemak.
 - 152b) Zerbitzu elektronikoen emaileek emandako zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatuetan oinarritutako sistemak.
 - 152c) Gako itunduko sistemak eta beste edozein sistema, betiere alde aurretik erabiltzaile gisa erregistratuta, haren nortasuna bermatu ahal izateko.
 - 152d) Gako itunduko sistemak eta beste edozein sistema, betiere erabiltzailearen nortasuna bermatzen duen alde aurretiko erregistrorik gabe.
- 153 Espediente bateko dokumentuak biltegitratzeko bitarteko edo euskarriek, zer ziurtatuko dute bereziki?:**
- 153a) Erabiltzaileen identifikazioa eta sarbideen kontrola.
 - 153b) Interesdunen identifikazioa.
 - 153c) Interesdunen sinadura.
 - 153d) Paperezko kopiak egiteko aukera.
- 154 Honako hauek batuta osatzen da dokumentu elektronikoa:**
- 154a) Dokumentuak, denbora-zigilua eta sinadura.
 - 154b) Dokumentuak, sinadura eta metadatuak.
 - 154c) Informazioa, denbora-zigilua eta sinadura.
 - 154d) Informazioa, sinadura eta metadatuak.

155 Espediente elektronikoa bat bidali behar bada administrazio publikoen artean, nola bidaliko da?:

- 155a) Osorik bidaliko da, orrialdekatu, autentifikatu eta dituen agirien aurkibide batez lagundurik.
- 155b) Osorik bidaliko da, autentifikatu eta dituen agirien aurkibidea duen karatula batez lagundurik.
- 155c) Osorik bidaliko da, orrialdekatu, autentifikatu eta dituen agirien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.
- 155d) Osorik bidaliko da, autentifikatu eta dituen agirien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.

8. gaia

156 Euskarari dagokionez, honako hau dio Euskal Autonomia Estatutuak 6. artikuluan:

- 156a) Euskal Herriaren berezko hizkuntza da. Ez du besterik adierazten.
- 156b) Euskal Herriaren berezko hizkuntza da, eta hura erabiltzeko eskubidea eta ezagutzeko obligazioa ezartzen ditu.
- 156c) Euskal Herriaren berezko hizkuntza da, eta ofiziala gaztelaniarekin batera.
- 156d) Euskal Herriaren berezko hizkuntza da, eta ofiziala gaztelaniarekin batera, eta bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

157 Euskal Autonomia Erkidegoan, bi hizkuntza ofizialetan egin behar zaizkie administrazio-jakinazpenak interesdunei:

- 157a) Beti.
- 157b) Administrazio publikoak horretarako baliabideak baditu; baliabiderik ez badu, administrazio publikoak erabakiko du hizkuntza ofizial batean edo bestean egin.
- 157c) Baldin eta interesdunek berariaz aukeratzen ez badute hizkuntzetako bat erabiltzea.
- 157d) Estatuaren administrazio periferikoaren kasuan izan ezik.

158 Hizkuntza-eskakizuna betetzea derrigorrezkoa izango da dena delako lanpostura iritsi eta hura betetzeko. Noiztik?:

- 158a) Lanpostua sortzen den unetik.
- 158b) Lanpostura sartu den pertsonak hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen duen unetik.
- 158c) Inoiz ez. Merezimendu gisa baino ez da baloratuko.
- 158d) Derrigortasun-datatik aurrera.

159 Administrazioko lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna du esleituta:

- 159a) Handiagoa edo txikiagoa izango da, lanpostu bakoitzaren komunikazio-eskakizunen arabera, ahoz zein idatziz.
- 159b) Handiagoa edo txikiagoa izango da, lanpostu bakoitzaren kategoria profesionalaren edo administrazio-kidegoaren arabera.
- 159c) Nahitaez bete beharrekoa izango da kasu guztietan.
- 159d) Merezimendu gisa baloratuko da kasu guztietan.

160 Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa denean, zer egin behar da?:

- 160a) Ezarritako derrigortasun-data bete.
- 160b) Administrazio publikoak erabaki behar du hizkuntza-eskakizunaren derrigortasunaren aipamena administrazio publiko horretako lanpostuen zerrendetan sartzen den ala ez.
- 160c) Derrigortasun-data baino lehen egiaztatu.
- 160d) Euskararen ezagutza, gainera, meritu gisa baloratu.

161 Prozedura hauetako zeinek EZ du balio hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko?:

- 161a) Administrazioan lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan edo barne-sustapenerako deialdietan horretarako berriaz egiten diren probak.
- 161b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) edo EAEko edozein administrazio publikok egindako ohiko eta aldizkako deialdiak.
- 161c) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi duen pertsonak aukeratutako entitate pribatuetan egindako probak.
- 161d) Ezohiko eta premiazko kasuetan egin daitezkeen proba espezifikoek bidez, ohiko deialdietatik kanpo.

162 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean oinarrituta, lanpostu baten titularra egoera hauetako zeinetan EZ dago hizkuntza-eskakizuna betetzetik salbuetsita, eta, beraz, egiaztatu egin beharko du?:

- 162a) 45 urtetik gora baditu plangintzaldi bakoitzaren hasieran, betiere titularra ados badago.
- 162b) Titularraren ikasketa-maila Oinarrizko Batxilergokoa edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorrekoa ez denean.
- 162c) Titularraren ikasketa-maila unibertsitateko lizentziatura edo gradukoa ez denean.
- 162d) Titularrak minusbalotasun fisiko edo psikikoak izanik, gaur egun helduen hizkuntza-prestakuntza eta -gaikuntzarako indarrean dauden programen bidez euskara ikastea eragozten edo zailtzen badute.

163 2008ko apirilaren 16tik aurrera lortutako batxiler-titulu edo goi-mailako teknikariaren titulu dutenekin lotuta, zein da baieztapen zuzena?:

- 163a) Inola ere ez zaie aitortuko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkezteko salbuespena.
- 163b) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita geratuko dira, baldin eta titulazio horiei dagokien curriculum osoaren % 50 baino gehiago euskaraz ikasi badute.
- 163c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita geratuko dira, baldin eta titulazio horiei dagokien curriculum osoa euskaraz ikasi badute.
- 163d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita geratuko dira kasu guztietan.

164 Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarrituta, herritarrek hizkuntza-eskubideak dituzte, eta administrazio publikoaren betebeharra da eskubide horien erabilera bermatzea:

- 164a) Horrek ez du esan nahi euskarak zerbitzu-hizkuntza izan behar duenik herritarrekiko harremanetan.
- 164b) Hizkuntza-eskubide horiek dagokion administrazio publikoak horretarako baliabideak dituenean bakarrik bermatu ahal izango dira.
- 164c) Dagokion administrazio publikoak ez badu baliabiderik hizkuntza-eskubide horiek bermatzeko, administrazioa betebehar hori betetzetik salbuetsita egongo da.
- 164d) Hizkuntza-eskubide horiek defendatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua (Elebide) jarri zuen martxan 2008an.

165 Hauetako zein EZ da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren (Elebide) eginkizuna?:

- 165a) Herritarrek egindako erreklamazioak, kexak, proposamenak eta iradokizunak kudeatzea.
- 165b) Hizkuntza-eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- 165c) Beste organismo eta erakunde batzuekiko koordinazioa ziurtatzea.
- 165d) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea.

166 BIKAIN ziurtagiria:

- 166a) Hiru maila ditu (oinarrizkoa, ertaina, goi-mailakoa) eta bi ponderazio desberdin ebaluatzeko orduan (bat enpresa pribatuentzat eta sozietate publikoentzat, eta beste bat administrazio publikoentzat).
- 166b) Hiru maila ditu (oinarrizkoa, ertaina, goi-mailakoa) eta ebaluazioa ponderazio berberen arabera egiten da, bai administrazio publikoetan, bai enpresa pribatuetan.
- 166c) Ez dago aurreikusita enpresa pribatuak egiaztatzeko.
- 166d) Enpresa pribatuak egiaztatzeko baino ez dago aurreikusita.

167 Hizkuntza normalizatzeko planei dagokienez, baieztapen hauetako zein da gezurra?:

- 167a) Plan horiek bost urtekoak dira, bost urteko iraupena duten plangintzaldien inguruan antolatzen dira.
- 167b) Plan horiek lau urtekoak dira eta bat datoz hauteskunde-agintaldiekin.
- 167c) Plan horien helburuak aldatuz joan dira denboran zehar, errealitate soziolinguistikoaren arabera.
- 167d) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kontrolatu eta jarraipena egin behar die normalizazio-jarduketeki.

168 Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. plangintzaldian (2018-2022) Eusko Jaurlaritzaren parte hartzeari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da gezurra?:

- 168a) Planean parte hartzen dute herritarrekin ahozko edo idatzizko ohiko komunikazioa dutenek (zerbitzu-hizkuntza).
- 168b) Planean parte hartzen dute beste administrazio batzuekin komunikazioa dutenek (harremanetarako hizkuntza).
- 168c) Planean parte hartzen dute organismoaren barruan funtsezko eta zeharkako zerbitzuak (lan-hizkuntza) ematen dituztenek: lege-aholkularitza, kontratazioa, langileak, informatika, aurrekontuak...
- 168d) Planean parte hartzen dute hizkuntza-eskubideak defendatzeko elkarleen bidez ordezkaturako herritarrek.

- 169 Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek aukera izango dute hizkuntza-eskakizunetan eta derrigortasun-datetan aldaketak egiteko, edota derrigortasun-data berriak ezartzeko, betiere euskararen erabilera normalizatzeko planaren helburuekin bat, egoera hauetakoren batean daudenean:**
- 169a) Jendaurreko lanpostuak direnean bakarrik.
 - 169b) Komunikazio-harreman estrategikoak dituen lanpostua denean bakarrik.
 - 169c) Administrazio-unitateak sortu edo finkatzeko behar den lanpostua denean bakarrik.
 - 169d) Aurreko hiru egoerek aldaketak egitea justifikatzen dute.
- 170 Hizkuntza-normalizazioaren esparruan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) egiteko hauek ditu, besteak beste:**
- 170a) Euskarazko prestakuntza orokorraren eskaintza zabaltzea eta langileei euskararen normalizazioan laguntzeko baliabideak ematen jarraitzea.
 - 170b) Plan guztiak koordinatzea eta horien jarraipena eta azken ebaluazioa antolatzea.
 - 170c) Hizkuntza-normalizazioaren arloan esperientziak trukitzea eta baterako proiektuak abiaraztea.
 - 170d) BIKAIN ziurtagiria lortu izana egiaztatzea.
- 171 Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, zer arautzen du?:**
- 171a) Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak baino ez ditu arautzen, eta ez ditu arautzen hizkuntza-eskakizun horien egiaztatzeari eta baliozkotzeari buruzko gaiak.
 - 171b) Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak arautzen ditu; horien egiaztatpena eta lanpostuak hautatu eta betetzeko prozesuetan kontuan hartzea, baliozkotzei eta salbuespen-araubideari buruzko gaiak arautu gabe.
 - 171c) Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak arautzen ditu; horien egiaztatpena eta lanpostuak hautatu eta betetzeko prozesuetan kontuan hartzea; baliozkotzeak eta salbuespen-araubidea, baita hizkuntza-eskakizunen derrigortasunak zehaztea ere.
 - 171d) Hizkuntza-eskakizunen derrigortasunen zehaztapena baino ez du arautzen.
- 172 Nola ezartzen da administrazio publiko batean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopurua?:**
- 172a) Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.
 - 172b) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera.
 - 172c) Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen arabera.
 - 172d) Nahitaez bete beharreko indizearen bidez.

9. gaia

173 Lan-kontratuko langileek administrazio publiko batekin lotzen dituen lan-harremanaren ezaugarriak (adierazi erantzun OKERRA):

- 173a) Lan-zuzenbidearen mende egotea.
- 173b) Lan-kontratu baten bidez gauzatzea.
- 173c) Aldi baterakoa izatea.
- 173d) Aldebiko izaera izatea.

174 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) negoziazio kolektiborako eskubidea aitortzen du, taldean baliatzen diren esku-bide indibidualtzat. Nori aitortzen dio?:

- 174a) Funtzionarioei eta lan-kontratudun langileei, eta azken kasu horretan, lan-arloko legeria izango da arautzeko oinarri.
- 174b) Funtzionarioei bakarrik.
- 174c) Funtzionarioei eta lan-kontratudun langileei berdin, Legegintzako Errege Dekretu honetan bildutako araudiaren arabera.
- 174d) Lan-kontratudun langileei baino ez, eta lan-arloko legeria izango da arautzeko oinarri.

175 Administrazioek enplegatu publikoen jarduna ebaluatzeak (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batgina onartzen duena), ondorioak izan ditzake (adierazi erantzun OKERRA):

- 175a) Lehiaketa bidez lortutako lanpostu batean jarraitzean.
- 175b) Ordainsari osagarriak jasotzean.
- 175c) Oposizio bidez lortutako lanpostu batean jarraitzean.
- 175d) Karrera profesional horizontalean.

176 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), zeintzuk dira administrazio publikoek beren langileen jarduna ebaluatzeko ezartzen dituzten sistemek bete beharreko irizpideak?:

- 176a) Gardentasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza.
- 176b) Gardentasuna, publizitatea eta profesionaltasuna.
- 176c) Berdintasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna.
- 176d) Gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.

- 177 Administrazio baten zerbitzura dauden enplegatu publikoen artean behin-behineko langileak daude. Nolakoa da administrazioarekin duten lan-harremana? (Adierazi erantzun OKERRA):**
- 177a) Lan-harreman ez iraunkorra da.
 - 177b) Karrerako funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzen dituzte aldi baterako.
 - 177c) Haien izendapena diskrezionala da.
 - 177d) Konfiantza edo aholkularitza bereziko zereginak betetzen dituzte.
- 178 Funtzionario publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiboa arautzen duten printzipioen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?:**
- 178a) Negoziatzeko betebeharra.
 - 178b) Legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez jardutea.
 - 178c) Akordioa lortzeko betebeharra.
 - 178d) Negoziazio-prozesuaren izaera publikoa.
- 179 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegingtzako Errege Dekretua), gutxienez 50 funtzionarioko errolda duten hauteskunde-unitateetan, funtzionario publikoen ordezkari-organoa gisa eratuko dira:**
- 179a) Ordezkeri sindikalak.
 - 179b) Enpresa-batzordeak.
 - 179c) Langileen ordezkariak.
 - 179d) Langileen batzordeak.
- 180 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegingtzako Errege Dekretua), administrazio publikoetako lanpostuekin lotuta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**
- 180a) Lanpostu batzuk funtzionarioek bakarrik bete ditzakete.
 - 180b) Lan-kontratudun langile finkoek karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bete ahal izango dituzte.
 - 180c) Lanpostuak funtzionarioek edo lan-kontratudun langileek bete ditzakete.
 - 180d) Behin-behineko langileek karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bete ditzakete aldi baterako.
- 181 Irailaren 19ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak telelanaren figura sartu du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan. Horren arabera, (adierazi erantzun OKERRA):**
- 181a) Administrazioak ezin die telelana ezarri bere enplegatu publikoei, behar bezala justifikatutako salbuespenezko egoeretan izan ezik.
 - 181b) Administrazioak beharrezko baliabide teknologikoak eman eta mantendu beharko ditu.
 - 181c) Administrazioak berariaz baimendu beharko du zerbitzua emateko modalitate hori.
 - 181d) Administrazioak zerbitzua emateko modalitate hori baimendu beharko du, baldin eta enplegatu publikoak hala eskatzen badu.
- 182 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegingtzako Errege Dekretua), funtzionarioaren lanaldi arrunta murrizteko eskubidea ematen duten arrazoien artean EZ dago hauetako bat. Zein da?:**
- 182a) Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alaba edoskitzea.
 - 182b) Umea, garaia baino lehen jaio dela-eta edo zernahi arrazoirengatik, ospitalean geratu behar izatea.
 - 182c) Hamabi urtetik beherako adingabe bat zuzenean zaintzea.
 - 182d) Bigarren mailako senide bat zaintzea, oso gaixotasun larria duelako.

- 183 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), zein kasutan izango du funtzionarioak bi egun baliaduneko baimena?:**
- 183a) Bizilekua aldatu gabe egoitza aldatzen bada.
 - 183b) Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senide baten heriotzagatik, gertaera herri berean gertatzen bada.
 - 183c) Azken azterketetara eta behin betiko bestelako gaitasun probetara joateko.
 - 183d) Familia eta lana bateragarri egitearekin lotutako eginbeharrengatik.
- 184 Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, lanpostuen mailakako sailkapenak zer zehazten du ordainsariei dagokienez?:**
- 184a) Berariazko osagarria.
 - 184b) Titulazio-talde bakoitzari dagokion soldata.
 - 184c) Destino-osagarria.
 - 184d) Produktibitate-osagarria.
- 185 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen ordainsarien berariazko osagarria esleitzeko kontuan hartzen diren irizpideen artean dago EZ dago hauek? Zein da?:**
- 185a) Lanpostuaren zereginak betetzeko behar diren berariazko ezagutzak.
 - 185b) Hierarkia-erantzukizunpean hartutako giza baliabideen kopurua.
 - 185c) Lanpostuaren berezko arrisku, toxikotasun, deserosotasun edo eragozpenen ezaugarriak.
 - 185d) Funtzionarioak bere lanpostua betetzean jartzen duen interesa edo iniziatiba.
- 186 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), administrazio publiko bakoitzaren legeek funtzionarioen ordainsari osagarriak arautzen dituztenean, faktore hauek hartuko dira kontuan, besteak beste (adierazi erantzun OKERRA):**
- 186a) Kidegoa edo eskala lanbide-sailkapeneko talde jakin bati atxikitzea.
 - 186b) Lanpostuaren ezaugarriak.
 - 186c) Errendimendua edo lortutako emaitzak.
 - 186d) Administrazio-karreraren sisteman funtzionarioak egin duen aurrerabidea.
- 187 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), ordainsari hauek zein EZ dute jasoko bitarteko funtzionarioek?:**
- 187a) Aparteko ordainsariak.
 - 187b) Administrazio-karrera-sisteman egin duten aurrerabideagatik osagarria.
 - 187c) Funtzionarioak zenbateko interesez, iniziatibaz edo ahaleginez egiten duen lanagatik osagarria.
 - 187d) Hirurtekoak.
- 188 Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), administrazio publikoaren diziplina-ahala gauzatzeko zer printzipio hartuko dira oinarri gisa? (Adierazi erantzun OKERRA):**
- 188a) Falta eta zehapenak arauetan aurretik finkatzea.
 - 188b) Kalterako diren xedapen zehatzaileen atzeraeragina.
 - 188c) Proporzionaltasuna arau-hausteen eta zehapenen sailkapenean eta aplikazioan.
 - 188d) Errugabetasun-presuntzioa.

- 189 Enplegatu publikoen diziplina-araubidearekin lotuta, zeintzuk izango dira falta astunak?:**
- 189a) Gorte Nagusien lege baten bidez halakotzat tipifikatuta geratzen direnak bakarrik.
 - 189b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotakoak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua).
 - 189c) Dagokion autonomia-erkidegoko batzar legegilearen lege batean halakotzat tipifikatuta geratzen direnak bakarrik.
 - 189d) Lan-kontratudun langileen kasuan hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak.
- 190 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) jasotako enplegatu publikoen diziplina-araubidea dela eta, falta astuntzat jotzea merezi duten jokabideak identifikatzeko orduan kontuan hartu beharreko inguruabarretako bat da honako hau (adierazi erantzun OKERRA):**
- 190a) Zenbaterainokoak diren interes publikoan edo herritarren edo administrazioaren ondarean zein ondasunetan eragindako kalteak.
 - 190b) Jokaeran izandako asmo-, utzikeria- edo arduragabekeria-maila.
 - 190c) Zenbateraino kaltetzen den administrazioaren irudi publikoa.
 - 190d) Legedia zein neurritan urratu den.
- 191 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) jasotako enplegatu publikoen diziplina-araubidea dela eta, zer gerta daiteke lan-kontratudun langileek falta oso astunak eginez gero?:**
- 191a) Eginkizunen etenaldi irmoa.
 - 191b) Zerbitzutik baztertzea.
 - 191c) Diziplinazko kaleratzea.
 - 191d) Izendapena errebokatzea.

10. gaia

192 Datu pertsonalen tratamendua zilegia izateko, baldintza hauetakoren bat bete beharko da (adierazi erantzun OKERRA):

- 192a) Interesdunak bere adostasuna erakustea helburu zehatz baterako edo batzuetarako.
- 192b) Ezinbestekoa izatea, interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko.
- 192c) Tratamenduaren ardura duen administrazio publikoak interes legitimo propioa argudiatzea.
- 192d) Ezinbestekoa izatea, interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.

193 Datu pertsonalen tratamenduaren eragileak:

- 193a) Datuak tratatzen ditu tratamenduaren arduradunaren izenean.
- 193b) Erabakiak hartzen dituen tratamenduaren helburu eta bitartekoen gainean.
- 193c) Datuak eskura ditzake, baina ezin ditu tratatu edo erabili.
- 193d) Bere izenean jarduten du.

194 Datu-pertsonalen tratamenduaren eremuan, zer da interesdunaren adostasuna?:

- 194a) Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.
- 194b) Interesdunaren borondate-adierazpen aske, berariazkoa eta idatzizkoa, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.
- 194c) Interesdunaren borondate-adierazpen aske, berariazkoa eta idatzizkoa, egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.
- 194d) Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zehatz, zalantzarik gabe eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.

195 Pertsona baten osasunari buruzko datuen tratamendua:

- 195a) Debekatuta dago beti.
- 195b) Baimentzen da, baldin eta egiaztatzen bada ez dela erabili diskriminazio-helburuekin.
- 195c) Osasun publikoaren esparruan interes publikoko arrazoiak daudenean baimentzen da.
- 195d) Baimentzen da, baina bakarrik interesdunaren adostasun espresua badago.

- 196 Datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 196a) Datu pertsonalak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetarako bilduko dira.
 - 196b) Datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.
 - 196c) Datuek, nolanahi ere, zehatzak eta eguneratuak izan behar dute.
 - 196d) Datu pertsonalak modu zilegi, fidel eta gardenean tratatuko dira interesdunari dagokionez.
- 197 Datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak interesdunari derrigor eman behar dio tratamenduaren berri, haren datuak biltzen diren momentuan bertan:**
- 197a) Betiere interesdunak hala eskatzen badu.
 - 197b) Hala egin beharra dago, interesdunak eskatu edo ez.
 - 197c) Idatziz edo elektronikoki, inoiz ez ahoz.
 - 197d) Labur, garden eta ulertzeko eta erraz eskuratzeko moduan, idatziz beti.
- 198 Nolakoa da Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak ematen duten babesa?:**
- 198a) Pertsona fisiko eta juridikoen datuei dagokie.
 - 198b) Pertsona fisikoen datuen tratamendu automatizatua baino ez du babesten.
 - 198c) Guztiz pertsonalak edo etxeak diren jardueretan egiten diren datu-tratamenduetan aplikatzen da.
 - 198d) Pertsona fisikoei aplikatzen zaie, haien datu pertsonalak tratatu behar direnerako, tratamendua automatizatua izan edo ez.
- 199 Interesdunak eskubidea du berari buruzko datu pertsonalak ezaba ditzan tratamenduaren arduradunak (adierazi erantzun OKERRA):**
- 199a) Bere datuak tratatzeari uko egiten badio.
 - 199b) Datuak biltzea eragin zuten xedeetarako beharrezkoak ez direnean.
 - 199c) Datuak lege-betebehar bat betetzeko ezabatu behar direnean.
 - 199d) Datuak legez kontra tratatu direnean.
- 200 Datu pertsonalen tratamenduan helburua mugatzearen printzipioaren arabera:**
- 200a) Datu pertsonalak zertarako bildu ziren, horrexetarako baizik ezin dira erabili, eta ezin izango dira beste helburu baterako erabili, nahiz eta titularraren adostasuna egon edo lege batek hala baimendu.
 - 200b) Datuen tratamenduaren helburua modu generikoan edo espezifikoan formulatu ahal izango da.
 - 200c) Ez da onartuko geroko tratamendurik interes publikoko artxibo helburuekin, ikerketa zientifiko eta historikorako helburuekin edo helburu estatistikoekin, bateraezinak baitira hasierako helburuekin.
 - 200d) Datu pertsonalak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetarako bilduko dira.
- 201 Datu pertsonalen tratamenduarekin eta haien zirkulazio askearekin lotuta, zer esan nahi datu horien eramangarritasun-eskubideak?:**
- 201a) Interesdunak eskubidea duela berak aurretik emandako datuak eskuratzeko eta beste hornitzaile bati emateko, betiere egungo hornitzaileak horren aurka egiten ez badu.
 - 201b) Interesdunak beste hornitzaile bati eman diezazkiokeela bere datuak, baina ezin diola egungo hornitzaileari eskatu berak zuzenean egiteko.
 - 201c) Interesdunak eskubidea duela dagozkion datuak jasotzeko formatu egituratu, erabilera komuneko eta mekanikoki irakurtzeko moduko batean.
 - 201d) Eskubide hori bitarteko automatizatuen eta ez-automatizatuen bidez egiten diren datu-tratamenduei aplikatzen zaiela.

- 202** Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera, pertsona baten datu genetiko eta biometrikoen tratamenduaren debeku orokorra altxa al daiteke?:
- 202a) Bai, interesdunak argiro publiko egin dituen datu pertsonalak badira.
 - 202b) Debekua ezin da inola ere altxa, datu horiek babes berezia merezi baitute.
 - 202c) Bai, tratamendua beharrezkoa denean funtsezko interes publiko batengatik, baina betiere interesduna ados badago.
 - 202d) Bai, betiere pertsonen intimitaterako eskubidea ez dela arriskuan jartzen egiaztatzen bada.
- 203** Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera, datu pertsonalen kategoria berezien artean daude honako hauek (adierazi erantzun OKERRA):
- 203a) Datu biometrikoak.
 - 203b) Osasunari buruzko datuak.
 - 203c) Kondena eta arau-hauste penalei buruzko datuak.
 - 203d) Datu genetikoak.
- 204** Datu pertsonalen tratamenduaren arloko adostasunari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?:
- 204a) Tratamenduaren arduradunak gai izan beharko du frogatzeko interesdunak baimena eman zuela, modu aktiboan zein pasiboan, bere datu pertsonalak tratatzeko.
 - 204b) Interesdunak ez du eskubiderik emandako baimena edozein unetan kentzeko.
 - 204c) Adingabeek ezin dute inola ere baliozko baimenik eman.
 - 204d) Adostasuna interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua izan behar da, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena.
- 205** Zer esan nahi du datu pertsonalak minimizatzearen printzipioak?:
- 205a) Arduradunak bere eginkizuna betetzeko beharrezko dituen datuak baino ez direla bildu edo erabili behar.
 - 205b) Zuzenak ez diren datuak berehala ezabatu edo zuzendu behar direla, nahiz eta gutxiene-koak izan.
 - 205c) Datuak ez direla behar baino denbora luzeagoz gordeta eduki behar.
 - 205d) Datuen gutxieneko segurtasuna bermatzeko moduan tratatu behar direla datuak.
- 206** Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamenduak datu pertsonalen kategoria berezien tratamendua arautzen du. Horren arabera, zein da baieztapen zuzena?:
- 206a) Oro har debekatuta daude, salbuespenik gabe, pertsona fisiko baten arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari buruzko informazioa ematen duten datu pertsonalen tratamenduak, bai eta datu genetikoaren tratamenduak eta pertsona fisiko baten identifikazio esklusiboa egiteko erabiltzen diren datu biometrikoen tratamenduak ere, eta pertsona fisiko baten osasunari zein bizitza sexualari edo sexu-orientazioari buruzko datuen tratamenduak.
 - 206b) Oro har debekatuta dago datuen kategoria bereziak tratatzea, baina kasu batzuetan baimenduta dago horiek tratatzea, betiere interesdunak baimena ematen bada.
 - 206c) Oro har debekatuta dago datuen kategoria bereziak tratatzea, baina kasu batzuetan baimenduta dago horiek tratatzea; adibidez, osasun publikoaren esparruan interes publikoko arrazoiak daudenean.
 - 206d) Oro har debekatuta dago datuen kategoria bereziak tratatzea, baina datu genetikoak eta biometrikoak ez daude kategoria horietan sartuta.

207 Datuak babesteko eskubidearen funtsa beste eskubide batzuetan datorkigu adierazita, eta horien artean EZ dago hauetako bat. Zein da?:

- 207a) Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak biltzen diren unean bertan arduradunak tratamenduaren berri eman diezaion.
- 207b) Interesdunak eskubidea du jakiteko, arduradunari eskatuta eta hark doan erantzunda, berari buruzko datuak tratatzen ari diren ala ez.
- 207c) Interesdunak eskubidea du berari buruzko edozein datu pertsonal une oro kentzeko, tratamenduak modu negatiboan eragiten diola uste badu.
- 207d) Interesdunak eskubidea du zuzenak ez diren edo osorik ez dauden datuak zuzentzeko.

11. gaia

- 208 Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak Konstituzioan jasotako zein agindu betetzen du?:**
- 208a) Konstituzioaren 41. artikuluan jasotako agindua, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien barruan.
 - 208b) Konstituzioaren 42. artikuluan jasotako agindua, oinarrizko eskubideen barruan.
 - 208c) Konstituzioaren 40. artikuluan jasotako agindua, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien barruan.
 - 208d) Konstituzioaren 40. artikuluan jasotako agindua, oinarrizko eskubideen barruan.
- 209 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arazoaren 8ko 31/1995 Legea, langileen segurtasunaren eta higienearen babesari dagokionez, funtsezko lege-oinarria da gure ordenamendu juridikoan, eta horrez gain:**
- 209a) Bere erregulazioak indarrean sartu aurreko legediarekin jarraitzeko asmoa du.
 - 209b) Berrikuntzak ezarri nahi ditu, zaharkitutako erregulazioak eta aurrez aurreikusi gabeko egoera berriak eguneratzen baititu.
 - 209c) Gehieneko babes-maila dakarren araua da, eta ezin da hitzarmen kolektiboetan garatu edo hobetu.
 - 209d) Hain araudi mugatua ezartzen duenez, beharrezkoa da 1995a baino lehen zegoen arau-sakabanaketari eustea.
- 210 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen III. kapituluak langileen kontsulta- eta partaidetza-eskubidea jasotzen du, haien segurtasuna eta osasuna babestearekin lotutako esparruan.**
- 210a) Ez. III. kapituluan enpresen edo administrazioen nahiz langileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira.
 - 210b) Kontsulta- eta partaidetza-eskubidea 31/1995 Legearen II. kapituluan dago jasota.
 - 210c) III. kapituluak prebentzio-zerbitzuen oinarrizko erregulazioa zehazten du.
 - 210d) 31/1995 Legeak bi kapitulu baino ez ditu, prebentzio-politikari buruzkoa bata eta fabrikatzaileen, inportatzaileen eta hornitzaileen erantzukizunei buruzkoa bestea.

- 211 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen edukia ez da aplikatuko:**
- 211a) Langileen Estatutuan araututa dauden lan-harremanetan.
 - 211b) Administrazio publikoen zerbitzuean dauden langileen administrazio- zein estatutu-izae-rako lan-harremanetan.
 - 211c) Familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman berezian.
 - 211d) Kooperatiba-sozietateetan, lan pertsonala egiten duten bazkideak badituzte.
- 212 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko Legea lan-arloko legeria da, eta, horrez gain, funtzionario publikoen estatutu-araubidearen oinarrizko araua da.**
- 212a) Ez du estatutu-izaerarik, indar armatuen jardueri eta guardia zibilaren jarduera militarrei baino ez zaielako aplikatzen.
 - 212b) Langileen Estatutuan araututa dauden lan-harremanei baino ez zaie aplikatzen.
 - 212c) Administrazio publikoetako funtzionarioei baino ez zaie aplikatzen, edozein dela haien jarduera.
 - 212d) Langileen Estatutuan araututako lan-harremanei eta funtzionario publikoei aplikatzen zaie.
- 213 Enpresa edo administrazio batek ezarritako prebentzio-neurriek aurreikusi egin behar dituzte enplegatuek izan ditzakeen distrakzioak edo zuhurtziagabekeria ez-ausartegiak.**
- 213a) Ez dira inolaz ere sartzen distrakzioak edo zuhurtziagabekeriak, mota batekoak zein beste-koak izan.
 - 213b) Distrakzioak edo zuhurtziagabekeria ausartegiak ere sartzen dira.
 - 213c) Baieztapena zuzena da.
 - 213d) Prebentzian ez dira inoiz kontuan hartzen distrakzioak, baina bai zuhurtziagabekeriak.
- 214 Prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman bateratu behar da. Horretarako, zer da funtsezkoa?:**
- 214a) Osasuna zaintzeko protokoloak ezartzea.
 - 214b) Enpresako zerbitzu medikoa izatea lanaldi osoan.
 - 214c) Enpresa-batzorde bat izatea.
 - 214d) Erakundearen prebentzio-plan egoki bat ezartzea.
- 215 Zeintzuk dira enpresan edo administrazioan lan-arriskuak prebenitzeko plana kudeatzeko eta aplikatzeko funtsezko tresnak?:**
- 215a) Prebentzio-zerbitzu propioa edo kanpoko prebentzio-zerbitzu bat hautatzea, enplegatutako pertsona-kopuruaren arabera.
 - 215b) Jardueraren ondoriozko arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza egokia.
 - 215c) Zerbitzu mediku propioa edo kanpoko zerbitzu medikoa hautatzea, enplegatutako pertsona-kopuruaren arabera.
 - 215d) Bereziki kalteberak diren langileak zehaztea.
- 216 Zer eduki behar du prebentzio-plangintza egoki batek?:**
- 216a) Enpresaren egitura eta organigrama.
 - 216b) Lanpostuen zerrenda, jarduera-arloen eta arriskuen arabera.
 - 216c) Ekoizpen-prozesuaren edo enpresaren/administrazioaren jardueraren deskribapen zehatza.
 - 216d) Plangintza gauzatzeko epea, beharrezko giza baliabideen eta baliabide materialen izendapena, eta hura gauzatzeko arduradunak.

217 Norbera babesteko ekipamenduen erabilera:

- 217a) Norbera babesteko ekipamenduak babes kolektiboko neurrien aurretik erabili behar dira, norbera babesteko baliabideek babes handiagoa ematen baitie langileei.
- 217b) Babes-neurri indibidualak aplikatuko dira bakarrik, inoiz ez kolektiboak, azken horiek ez direlako eraginkorrak.
- 217c) Babes kolektiboko neurriak lan-istripuaren ondoren baino ezin dira erabili.
- 217d) Babes kolektiboko neurriak lehentasunez aplikatzen dira, eta enplegatua babesteko eraginkorrak ez badira, banakako babes-neurriak erabiltzen dira.

218 Enpresa edo administrazio bateko langileen osasunaren aldizkako zaintza lan harremanaren amaieratik haratago luza daiteke.

- 218a) Inola ere ez. Lan-harremana amaitzen denean osasun-zaintza amaitzen da, ez baitago lan-harremanik enplegatuaren eta enplegatuaren artean.
- 218b) Lan-harremanetik haratago luza daiteke enplegatuak lan-istripu ezgaitzaileren bat izan badu.
- 218c) Laneko arriskuek hala eskatzen dutenean.
- 218d) Enplegatuak 65 urtetik gora dituela hartzen badu erretiroa.

219 Ba al dago salbuespenik osasunaren zaintzaren borondatezko izaeran?:

- 219a) Ez, ez dago salbuespenik. Langileak edozein kasutan egin diezaioke uko azterketa medikoa egiteari.
- 219b) Bai, langilearen osasun-egoera langile horrentzat eta lantokiko gainerako langileentzat arriskutsua izan daitekeenean.
- 219c) Bai, lege-xedapenen batean hala jaso denean, arrisku espezifikoari eta arrisku bereziko jarduerari dagokienez.
- 219d) b) eta c) aukerak zuzenak dira.

220 Enpresa edo administrazio guztiek egin, gorde eta lan-agintaritzaren esku jarri beharko dituzte zenbait dokumentu. Honako hauek dira, besteak beste:

- 220a) Lantokiko azken bost urteetako instalazio guztien mantentze-partea.
- 220b) Klimatizazio-sistemen aldizkako ikuskapenen liburua, bereziki legionellaren prebentzioari buruzkoa.
- 220c) Langileen osasun-egoeraren inguruan egindako kontrolak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- 220d) Langileen osasunaren zaintzatik eratorritako gastuen zerrenda.

221 Lantoki berean enpresa edo administrazio bat baino gehiago badaude, zeinek du lantokiko larrialdi-neurriei eta suteak itzaltzeko neurriei buruzko informazioa emateko bete-beharra?:

- 221a) Dena delako enpresaren edo administrazioaren lantoki nagusia dagoen lurraldeko osasun-agintaritzak.
- 221b) Lantokiaren titularrak.
- 221c) Dena delako enpresaren edo administrazioaren lantoki nagusia dagoen probintziako lan-agintaritzak.
- 221d) Lantokia dagoen udalerriko suteak itzaltzeko eta lehen laguntzako zerbitzuek.

222 Enpresa edo administrazio bateko langileek ba al dute betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan euren segurtasuna eta osasuna babesteko?:

- 222a) Ez, betebeharrak jardueraren titularra den enpresari edo administrazioari baino ez dagozkio.
- 222b) Bai, lan-istripu bat eragin duen zuhurtziagabekeriaren bat egin duenean.
- 222c) Ez, betebeharrak lantokiaren enpresa edo administrazio titularrari eta prebentzio-delegatuei baino ez dagozkie.
- 222d) Bai, enplegatzaileek aurreikusitako neurriak aplikatu behar dituzte enplegatuek, eta horiek kontrolatzen eta hobetzen lagundu; bestela, laneko ez-betetzea izango bailitzateke.

12. gaia

223 Zein dira datuak bistartzeko pantailak (DBP) erabiltzen dituzten langileek izan ditzaketen arrisku nagusiak?:

- 223a) Buruko nekea bakarrik; egungo ekipoek hezur eta muskuluetako arriskuak saihesten dituzte.
- 223b) Hezur eta muskuluetako nahasmenduak bakarrik; egungo ekipoek ikusmen-arazoak saihesten dituzte.
- 223c) Hezur eta muskuluetako arriskuak, ikusmen-arazoak eta buruko nekea.
- 223d) Hezur eta muskuluetako arriskuak, ikusmen-arazoak, buruko nekea eta *burn out* sindromea.

224 Non dago zehaztuta datuak bistartzeko pantailak erabiltzen dituzten langileen lan-arriskuen prebentzioa?:

- 224a) 488/1997 Errege Dekretuan: Bistaratze-pantailak dauzkaten ekipamenduekin egiten den lanari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko Errege Dekretua, apirilaren 14koa.
- 224b) 486/1997 Errege Dekretuan: Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen Errege Dekretua, apirilaren 14koa.
- 224c) 31/1995 Legean: Pantailekin egindako jarduera arriskutsuen prebentzioari buruzko Legea, azaroaren 8koa.
- 224d) 489/1997 Errege Dekretuan: Lan-arriskuen prebentzioari buruzko Errege Dekretua, apirilaren 14koa.

225 Datuak bistartzeko pantailak erabiltzen dituzten langileen artean, nor joko da, oro har, erabiltzailatzat?:

- 225a) Egunean 5 orduz edo astean 20 orduz baino gehiagoz ekipo horiekin lan egiten duen pertsona oro.
- 225b) Egunean 5 orduz edo astean 35 orduz baino gehiagoz ekipo horiekin lan egiten duen pertsona oro.
- 225c) Egunean 4 orduz edo astean 20 orduz baino gehiagoz ekipo horiekin lan egiten duen pertsona oro.
- 225d) Egunean 7 orduz edo astean 35 orduz baino gehiagoz ekipo horiekin lan egiten duen pertsona oro.

226 Nola jarriko dira datuak bistartzeko pantailak?:

- 226a) Leihoetatik urrun jarriko dira, halako moduan non langilearen ikus-lerroa eta leihoaren aurrealdea paraleloan dauden.
- 226b) Leihoetatik urrun jarriko dira, halako moduan non langilearen ikus-lerroa leihoaren aurrealdean dagoen.
- 226c) Leihoetatik gertu, halako moduan non langilearen ikus-lerroa eta leihoaren aurrealdea paraleloan dauden.
- 226d) Leihoetatik gertu, halako moduan non langilearen ikus-lerroa leihoaren atzean dagoen.

227 Datuak bistartzeko pantaila duen postuaren arriskuak ebaluatzeko unean, erabiltzaileak emandako informazioa funtsezkotzat jo behar da ebaluazioa egiteko:

- 227a) Inola ere ez. Ebaluazioa teknikariek egin behar dute, lanpostuaren baldintza ergonomikoak bakarrik baloratuta, objektiboki ebaluatuta.
- 227b) Batzuetan baliotsua izan daiteke, erabiltzaileak arazo osteomuskularrak baditu edo gaitasun mugaturen bat badu.
- 227c) Beti, ebaluaziorako funtsezko datuak lortzeko balio baitu.
- 227d) Lan-istripuren bat izan badu bakarrik hartzen da kontuan erabiltzaileak emandako informazio hori.

228 Datuak bistartzeko pantailekin (DBP) arreta handirik eskatzen ez duen zeregin batean, etenaldi planifikatuak ezarri behar dira:

- 228a) Inola ere ez. Etenaldiak enpleguak behar dituzenean hartu behar dira, ez dira planifikatuta egon behar.
- 228b) Planifikatutako etenaldiak ezarri behar dira, laneko 120 minututik behin 10 minutuko etenaldia eginez.
- 228c) Pantailarekin lan egitean, 90 minututik behin 10-15 minutuko etenaldi planifikatuak ezarri behar dira, gutxi gorabehera.
- 228d) Ezin da etenaldi planifikaturik ezarri; lanaren antolaketa ezartzeko modua hartu behar da kontuan.

229 Datuak bistartzeko pantailekin (DBP) arreta handia eskatzen duen zeregin batean, etenaldi planifikatuak ezarri behar dira:

- 229a) Inola ere ez. Etenaldiak enpleguak behar dituzenean hartu behar dira, ez dira planifikatuta egon behar.
- 229b) Planifikatutako etenaldiak ezarri behar dira, laneko 60 minututik behin 10 minutuko etenaldia eginez.
- 229c) Pantailarekin lan egitean, 90 minututik behin 10-15 minutuko etenaldi planifikatuak ezarri behar dira.
- 229d) Ezin da planifikatutako etenaldirik ezarri, arreta handia eskatzen duen zeregin bat ezin delako eten; lana ezin hobeto antolatzea eskatzen du.

230 Datuak bistartzeko pantaila batekin lan egiten duen langile bati egiten zaion osasunaren zaintzak zer azterketa jaso behar du, osasuna zaintzeko dagokion protokoloaren arabera?:

- 230a) Azterketa oftalmologikoa bakarrik, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateko mediku espezializatuek eginga.
- 230b) Nahitaezko azterketa oftalmologikoa eta azterketa osteomuskularra, eta aukerakoa da dagokion enpresa edo administrazioarentzat buruko nekea baloratzea.
- 230c) Azterketa oftalmologikoa, azterketa osteomuskularra eta buruko nekearen balorazioa, baita miaketa klinikoa, kontrol biologikoa eta azterketa osagarriak ere, beharrezkoak badira.
- 230d) Azterketa oftalmologikoa, azterketa osteomuskularra eta buruko nekearen balorazioa, eta lanaren ondorioz erreta egotearen sindromea (*burn out*) detektatzeko galdetegia nahitaez pasatu behar da.

231 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikulua arabera, nolakoak izan daitezke datuak bistaratzeko pantailekin (DBP) lan egiten duen pertsonari egin beharreko azterketa medikoak?:

- 231a) DBPekin lanean hasi aurretiko azterketa eta aldizkako azterketa espezifikoak bakarrik.
- 231b) DBPekin lanean hasi aurretiko azterketa, eta lan-harremana amaitzean egindakoa.
- 231c) Aldizkako azterketa mediko espezifikoak.
- 231d) DBPekin lanean hasi aurretiko azterketa, aldizkako azterketa espezifikoak eta langileak eskatutako azterketa.

232 Datuak bistaratzeko pantaila duen lanpostuan, zer gomendatzen du ergonomiak?:

- 232a) 300 eta 1.000 lux bitarteko luminantzia-maila, lanpostuaren arabera; tenperatura udan 20° eta 24° artekoa; eta % 45 eta % 65 arteko hezetasun erlatiboa.
- 232b) 300 eta 1.000 lux bitarteko luminantzia-maila, lanpostuaren arabera; tenperatura neguan 23° eta 26° artekoa; eta % 30 eta % 60 arteko hezetasun erlatiboa.
- 232c) 300 eta 500 lux bitarteko luminantzia-maila, lanpostuaren arabera; tenperatura udan 20° eta 24° artekoa; eta % 45 eta % 65 arteko hezetasun erlatiboa.
- 232d) 300 eta 1.000 lux bitarteko luminantzia-maila, lanpostuaren arabera, tenperatura inoiz ez da 26°-tik gorakoa; eta % 45 eta % 65 arteko hezetasun erlatiboa.

233 Datuak bistaratzeko pantaila bat erabiltzen denean, zer faktorek eragiten dute ikusmen-alterazioen agerpenean?:

- 233a) Lanpostuaren antolamenduak eta begia-pantaila distantziaren neurriak bakarrik.
- 233b) Lanpostuaren antolamenduak eta begia-teklatura distantziaren neurriak bakarrik.
- 233c) Lanpostuaren antolamenduak bakarrik; neurriak edo distantziak zehaztugabeak dira pertsonaren arabera.
- 233d) Lanpostuaren antolamenduak eta begia-pantaila, begia-teklatura eta begia-testua distantzien neurriak.

234 Zeintzuk dira lanaren antolaketa desegokiari lotutako faktoreak?:

- 234a) Ataza gehiegi eta gomendatutako etenaldirik ez egotea (planifikatutakoak).
- 234b) Gomendatutako etenaldirik ez egotea, lan-bolumena edo gehiegizko lana edozein izanda ere.
- 234c) Egiten den ataza-mota.
- 234d) Ataza gehiegi, gomendatutako etenaldirik ez egotea eta ataza-mota.

235 Lan-ekipo osoa behar bezala jartzeko modukoa izan behar du lan-mahaiak. Zer gehiago eduki behar du?:

- 235a) Gainazala 90 cm eta 120 cm artekoa izango da; ekipoaren pisuari behar bezala eutsiko dio; eta, eserita lan egiteko, beheko gorputz-atalak jartzeko espazioak 60 cm zabal eta 65/70 cm sakon izan beharko du.
- 235b) Gainazala 80 cm eta 100 cm artekoa izango da; ekipoaren pisuari behar bezala eutsiko dio; eta, eserita lan egiteko, beheko gorputz-atalak jartzeko espazioak 55 cm zabal eta 35/70 cm sakon izan beharko du.
- 235c) Gainazala 90 cm eta 120 cm artekoa izango da; ekipoaren pisuari behar bezala eutsiko dio; eta, eserita lan egiteko, beheko gorputz-atalak jartzeko espazioak 55 cm zabal eta 30/60 cm sakon izan beharko du.
- 235d) Gainazala 80 cm eta 100 cm artekoa izango da; ekipoaren pisuari behar bezala eutsiko dio; eta, eserita lan egiteko, beheko gorputz-atalak jartzeko espazioak 60 cm zabal eta 35/70 cm sakon izan beharko du.

- 236 Nola ekidin daitezke datuak bistartzeko pantailekin lan egitearekin lotutako osasun-ara-
zoak?:**
- 236a) Nahikoa da lanpostua egoki diseinatzea, enpleguak hezur eta muskuluetako nahasmen-
durik ez badu.
 - 236b) Nahikoa da lanpostuaren diseinuaren egokitasuna eta lanaren antolamendu egokia balo-
ratzea.
 - 236c) Lanpostuaren diseinu egokia, lanaren antolamendu egokia eta enpleguarentzako infor-
mazio eta prestakuntza egokia baloratu behar dira.
 - 236d) Lanpostuaren diseinu egokia, lanaren antolamendu egokia eta informazioa eta prestakun-
tza hautazkoak dira desgaitasunen bat ez duten pertsonentzat.
- 237 Datuak bistartzeko pantaila duen lanpostu bateko eserlekuak, honako ezaugarri hauek
izango ditu, besteak beste:**
- 237a) Aulkiak bost hanka eta gurpilak izango ditu, errazago mugitzeko, eta eserlekua lurretik
45-55 cm-ra egongo da. Bizkarraldeak apur bat ganbila izan behar du, gerrialdea ondo fin-
katzeko.
 - 237b) Aulkiak lau hanka eta gurpilak izango ditu, errazago mugitzeko, eta eserlekua lurretik
25-35 cm-ra egongo da. Bizkarraldeak apur bat ganbila izan behar du, gerrialdea ondo fin-
katzeko.
 - 237c) Aulkiak lau hanka eta gurpilak izango ditu, errazago mugitzeko, eta eserlekua lurretik
45-55 cm-ra egongo da. Bizkarraldeak apur bat konkaboa izan behar du, gerrialdea ondo
finkatzeko.
 - 237d) Aulkiak bost hanka eta gurpilak izango ditu, errazago mugitzeko, eta eserlekua lurretik
25-35 cm-ra egongo da. Bizkarraldeak apur bat ganbila izan behar du, gerrialdea ondo fin-
katzeko.

13. gaia

238 Istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsona bati lehen laguntza ematerakoan, oinarriko zer arau jarraitu behar da?:

- 238a) BAS araua: istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsona babestu, aire zabalean ez dagoen leku lehor batera eramanez; osasun-zerbitzuei abisatu eta biktimak sorotsi.
- 238b) BES araua: istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsona babestu, aire zabalean ez dagoen leku lehor batera eramanez; pertsonari entzun, zer gertatzen zaion jakiteko eta behala zerbitzu medikuei jakinarazteko, eta sorotsi, lehentasun-ordena bat jarraituz.
- 238c) BAS araua: gertaeren lekua babestu, osasun-zerbitzuei abisatu ahal denean eta biktimak sorotsi lehentasun-ordena bat jarraituz.
- 238d) BAS araua: istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsona babestu, aire zabalean ez dagoen leku lehor batera eramanez, arrokekin estali gorputzaren berotasunari eusteko, eta sorotsi, lehentasun-ordena bat jarraituz.

239 Istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsona bati laguntzerakoan, irizpide honi jarraitu behar zaio:

- 239a) Bizi-konstanteak aztertzea ordena honetan: konortea, arnasketa eta pultsua.
- 239b) Bizi-konstanteak aztertzea ordena honetan: arnasketa, pultsua eta begi-ninien egoera.
- 239c) Bizi-konstanteak aztertzea ordena honetan: arnasketa, pultsua eta gorputz-tenperatura.
- 239d) Bizi-konstanteak aztertzea ordena honetan: konortea, arnasketa eta gorputz-tenperatura.

240 Istripua izan duen edo gaixorik dagoen pertsonak jasan ahal izan dituen lesioak baloratzeko orduan, zer-nolako balorazioak daude?:

- 240a) Lehen mailako balorazioa, pertsonak izan ditzakeen lesioak bilatzeko, batez ere burukoak.
- 240b) Lehen mailako balorazioa, pertsona arriskuan ez dagoela (arnasa hartzen du eta pultsua du) egiaztatzeke, eta bigarren mailako balorazioa, izan ditzakeen lesioak bilatzeko.
- 240c) Lehen mailako balorazioa, arnasa hartzen duela eta pultsua duela egiaztatzeke; bigarren mailako balorazioa odoljarioen bila, eta hirugarren mailako balorazioa minaren bila.
- 240d) Lehen mailako balorazioa, odoljariorik ez duela egiaztatzeke, eta bigarren mailako balorazioa arnasa hartzen duela eta pultsua duela egiaztatzeke.

241 Nolakoa izan behar du arnasketa artifizialak, eraginkorra izateko?:

- 241a) Kementsua, etenaldiekin eta iraunkorra, arnasa erabat berreskuratu arte edo osasun-langileak iritsi arte.
- 241b) Kementsua, etenik gabea eta ez 30 minutu baino gehiago, osasun-langileak iritsi ez bada.
- 241c) Berehalakoa, jarraitua (etenik gabea) eta iraunkorra, arnasa erabat berreskuratu arte edo osasun-langileak iritsi arte.
- 241d) Kementsua, etenaldiekin eta ez 30 minutu baino gehiago, osasun-langileak iritsi ez bada.

242 Arnasketa artifiziala abiatutakoan, airea biriketan sartzea lortu ondoren, zer egingo dugu?:

- 242a) Biktimak pultsua duela egiaztatu ondoren, putz egiten jarraituko dugu, 12-16 aldiz minutuko.
- 242b) Biktimak pultsua duela egiaztatu ondoren, putz egiten jarraituko dugu, 20-25 aldiz minutuko.
- 242c) Biktimak pultsua duela egiaztatu ondoren, putz egiten jarraituko dugu, 5-8 aldiz minutuko.
- 242d) Biktimak pultsua duela egiaztatu ondoren, putz egiten jarraituko dugu, 25-30 aldiz minutuko.

243 Bihotz-masajea bihotzari kanpotik egindako konpresioak dira, taupadaka has dadin eta, horrela, odola gorputz osora bana dezan.

- 243a) Konpresioak egitean toraxak 1 edo 2 zentimetro egin behar du behera eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 60-80 konpresio.
- 243b) Konpresioak egitean toraxak 4 edo 5 zentimetro egin behar du behera eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 80-100 konpresio.
- 243c) Konpresioak egitean toraxak 1 edo 2 zentimetro egin behar du behera eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 80-100 konpresio.
- 243d) Konpresioak egitean toraxak 4 edo 5 zentimetro egin behar du behera eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 60-80 konpresio.

244 Erredura baten pronostikoa noiz da arina?:

- 244a) Erreduraren hedadura % 10 eta % 30 artekoa bada, eta sakonera, 2. edo 3. mailakoa.
- 244b) Erreduraren hedadura % 20 eta % 30 artekoa bada, eta sakonera, 1. mailakoa.
- 244c) Erreduraren hedadura % 10ekoa baino txikiagoa bada, eta sakonera, 1. edo 2. mailakoa.
- 244d) Erreduraren hedadura % 10ekoa baino txikiagoa bada, eta sakonera, 3. mailakoa.

245 Zer egin behar da erretako pertsona bati berehalako laguntza ematean?:

- 245a) Pomada edo ukendu espezifikoak eman erreduran.
- 245b) Urez busti, zauritua ahalik eta gehien hoztuz.
- 245c) Pomada edo ukendu espezifikoak eman, erretako eremua ahalik eta gehien hozten den bitartean.
- 245d) Urez busti erretako eremua, zauritua gehiegi hoztu gabe.

246 Haustura baten aurrean urgentziaz jarduteko, zer egin behar da?:

- 246a) Haustura immobilizatu dagoen posizio berean, haustura zuzentzen (hezurra berezko posizioa itzularazten) saiatu gabe.
- 246b) Lehenengo, haustura zuzendu, eta gero, immobilizatu.
- 246c) Haustura zuzendu eta larrialdi-zerbitzuen zain geratuko gara.
- 246d) Larrialdi-zerbitzuen zain geratuko gara, hausturan ezer egin gabe.

247 Korronte elektrikoak eragindako istripuak:

- 247a) Oso ohikoak dira, baina beti larriak eta askotan heriotza eragiten dute.
- 247b) Ez dira oso ohikoak, baina inoiz ez larriak eta gutxitan eragiten dute heriotza.
- 247c) Ez dira oso ohikoak, baina beti larriak eta askotan heriotza eragiten dute.
- 247d) Oso ohikoak dira eta gutxitan larriak.

248 Zer esan nahi du istripua izan duen pertsona baten tetanizazioa gertatu dela?:

- 248a) Eztarri-trabatze bat gertatu dela eta biktima zianotiko dagoela (kolore urdinxkarekin, oxigeno-faltagatik).
- 248b) Kontaktu elektrikoak eragindako istripu bat gertatu dela eta istripua izan duen pertsona korronteari lotuta geratu dela.
- 248c) Kontaktu elektrikoak eragindako istripu bat gertatu dela eta istripua izan duen pertsona zianotiko dagoela.
- 248d) Barneko odoljariora gertatu dela eta biktima zianotiko dagoela.

249 Toraxean zauri bat duen pertsona bati lehen laguntza emateko, zer urrats jarraituko ditugu?:

- 249a) Objekturen bat badago iltzatuta, atera egingo dugu; zauria itxiko dugu aposituak edo bendajea erabiliz eta zauritua ebakuatuko dugu, zauria duen alderantz etzanda.
- 249b) Objekturen bat badago iltzatuta, ez dugu aterako; zauria itxiko dugu aposituak edo bendajea erabiliz eta zauritua ebakuatuko dugu, zauria duen aldearen kontrako alderantz etzanda.
- 249c) Objekturen bat badago iltzatuta, atera egingo dugu; zauria itxiko dugu aposituak edo bendajea erabiliz eta zauritua ebakuatuko dugu, zauria duen aldearen kontrako alderantz etzanda.
- 249d) Objekturen bat badago iltzatuta, ez dugu aterako; zauria itxiko dugu aposituak edo bendajea erabiliz eta zauritua ebakuatuko dugu, zauria duen alderantz etzanda.

250 Aire bidezko intoxikazioetan:

- 250a) Biktimak larruazaleko arazo larriak ditu.
- 250b) Biktimak bihotz-biriketako geldialdia du.
- 250c) Biktima zianotiko dago.
- 250d) Biktimak odoljariora larria du.

251 Azala urratu eta odola kanpora irteteen sortzen dira zauriak. Batzuk, transfixio-zauriak izan daitezke. Zer esan nahi du horrek?:

- 251a) Objektu kamutsek eragindako zauriak direla.
- 251b) Sarrerako eta irteerako zuloak dituztela, su-armek eragindakoak, adibidez.
- 251c) Objektu puntazorrotzek eragindako zauriak direla.
- 251d) Objektu ebakitzailiek eragindako zauriak direla.

252 Azala urratu eta odola kanpora irteteen sortzen dira zauriak. Batzuk, ebakidunak izan daitezke. Zer esan nahi du horrek?:

- 252a) Objektu ebakitzailiek eragindakoak direla.
- 252b) Su-armek eragindakoak direla.
- 252c) Objektu kamutsek eragindakoak direla.
- 252d) Objektu puntazorrotzek eragindakoak direla.

14. gaia

253 Balio publikoa sortzea dela eta, baieztapen hauetatik zein da gezurra?:

- 253a) Balio publikoa sortzea da herritarrentzat ahalik eta balio handiena sortzea, erakundearen dauden finantza-baliabide, giza baliabide, baliabide fisiko eta teknologikoak baliatuta.
- 253b) Balio publikoa sortzea gerentzia-irudimenean oinarritzen da, mandatueta ezarritako helburuak betetzeko, ahalik eta efikazia eta efizientzia handienarekin.
- 253c) Balio publikoa sortzen da gobernuek badakitenean beste estatu batzuetako gobernuek zer jomuga dituzten eta estatu-sare horretan jartzen dituztenean gizarteak eman dizkien baliabideak eta ahalak.
- 253d) Balio publikoa sortzen da gobernuek badakitenean herritarrek zer jomuga dituzten eta zehazten denean gizartearentzat zer onura sortu behar diren, gizarteak eman dizkien ahalak eta baliabideetan oinarrituta.

254 Gobernu irekiaren printzipio informatzaileak:

- 254a) Bi dira: gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea; eta herritarren parte-hartzea eta elkarlana.
- 254b) Hiru dira: gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea; herritarren parte-hartzea eta elkarlana; eta integritatea.
- 254c) Lau dira: gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea; herritarren parte-hartzea eta elkarlana; integritatea; eta kudeaketa publikoaren kalitatea eta efikazia.
- 254d) Bost dira: gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea; herritarren parte-hartzea eta elkarlana; integritatea; kudeaketa publikoaren kalitatea eta efikazia; eta genero-ikuspegia txertatzea kudeaketan.

255 Zer da gobernu-gardentasuna?:

- 255a) Organismo publikoen jardueri buruzko informazioa sortu egin behar dela eta herritarren eskura jarri behar dela, salbuespenik gabe, behar den moduan eta datu irekien formatuetan, berrerabiltzeko mugarik gabe.
- 255b) Organismo publikoen jardueri buruzko informazioa sortu egin behar dela eta herritarren eskura jarri behar dela, salbuespen mugatu batzuekin, behar den moduan eta datu irekien formatuetan, berrerabiltzeko mugarik gabe.
- 255c) Herritarrek egindako informazio-eskaerei berehala eman behar zaiela erantzuna.
- 255d) Herritarrek edozein informaziotarako sarbidea dutela.

256 Gardentasunari buruzko araudia dela eta, baieztapen hauetatik zein da gezurra?:

- 256a) Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik ez dauka gardentasunari buruzko araudi autonomikorik, eta, horregatik, estatuko oinarrizko araudia baino ezin da aplikatu.
- 256b) EAEko hiru foru aldundiek gardentasunari buruzko araudi propioa dute.
- 256c) EAEko udalak bi arauri lotuta daude: gardentasunari buruzko oinarrizko araudia eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
- 256d) Euskal Autonomia Erkidegoak, hiru foru aldundiek eta EAEko udalek gardentasunari buruzko araudi propioa dute.

257 Gardentasunaren atariak:

- 257a) Nahitaezko publikotasun aktiboko informazioa edo informazio garrantzitsua jasotzen dute, gardentasunerako nazioarteko erakundeek eskatuta.
- 257b) Administrazio publikoak berak erabakitzen duen informazioa jasotzen dute, eta ez dago nahitaezko publikotasuneko informaziorik.
- 257c) Ez daude aurreikusita informazio publikora irispidea izateko herritarrek duten eskubidea baliatzeko zerbitzua emateko.
- 257d) Ez daude aurreikusita herritarren parte-hartzea sustatzeko.

258 Datu irekien atariak (Open Data) hainbat helburu betetzen dituzte. Horien artean EZ dago hauetako bat:

- 258a) Balioa eta aberastasuna sortzea.
- 258b) Gardentasuna administrazio publikoan.
- 258c) Administrazioen arteko elkarreragingarritasuna.
- 258d) Politika publikoen etekin ekonomiko handiagoa lortzea.

259 Informazio publikora irispidea izateko eskubidea:

- 259a) Datu pertsonalen babesa da muga bakarra.
- 259b) Besteak beste, administrazioak berak prestatu duen informaziorako irispidea izatea barne hartzen du, aukeratutako moduan edo formatuan eta doan.
- 259c) Lortutako informazioa erabiltzeko aukera ematen du, betiere administrazioaren alde aurreko baimenarekin.
- 259d) Administrazioak mugatu egin dezake eskubide hori, sarbiderako eskaera ez onartuz edo ukatuz, eta ez da beharrezkoa ukatzearen arrazoiak ematea.

260 Informazio publikora irispidea izateko eskubidearen mugak:

- 260a) Hauek dira, besteak beste: segurtasun nazionala, defentsa, kanpo-harremanak eta zigor-, administrazio- eta diziplina-arloko ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zehapena.
- 260b) Datu pertsonalen babesarekin daude bakarrik lotuta.
- 260c) Modu hedakorrean interpretatu behar dira, ez modu murriztailean.
- 260d) Administrazio publikoak herritarrei informaziorako irispidea ukatzeko aukera ematen dute, administrazioak bere kabuz hala erabakitzen duenean.

261 Herritarren parte-hartzeari dagokionez:

- 261a) Balio publikoa sortzen duten parte-hartzearen bi dimentsio bereiz daitezke: parte-hartze politikoa eta zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea.
- 261b) Balio publikoa sortzen duten parte-hartzearen hiru dimentsio bereiz daitezke: parte-hartze politikoa, zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea eta parte-hartze kolaboratiboa.
- 261c) Zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzearen helburu bakarra zerbitzu horien kostuak merkatzea da.
- 261d) Parte-hartze kolaboratiboak administrazioen arteko harremana sustatzen du, gizarte zibilak esku hartu gabe.

262 Herritarren parte-hartzeari buruzko araudiek ez dute honako hauetan parte hartzeko esku-bidea arautzen:

- 262a) Politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzen.
- 262b) Arau-xedapen orokorrak prestatzen.
- 262c) Aurrekontuak prestatzen.
- 262d) Konstituzioa erreformatzeko ekimenean.

263 Zer dira integritate-sistemak?:

- 263a) Etika publikoaren eta gobernu onaren sistemak dira, eta hori sustatzen duten erakundeek beren kargudunen edo enplegatu publikoen jokabide-kodeak eta kode etikoak aplikatzeko eta garatzeko konpromisoa baino ez dute hartzen.
- 263b) Etika publikoaren eta gobernu onaren sistemak dira, eta hori sustatzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dute, batetik, beren kargudunen eta enplegatu publikoen jokabide-kodeak eta kode etikoak aplikatzeko eta garatzeko eta, bestetik, erakundeekiko eta sistema demokratikoarekiko konfiantza publikoa indartzeko ekintzak ezartzeko.
- 263c) Herritarrek parte-hartzeari lotutako jardueretan ekimena izan dezaten sustatzeko neurriak dira.
- 263d) Herritarrek informaziorako irispidea izatea errazteko neurriak dira.

264 Administrazio publikoaren kalitateak esaten digu produktu edo zerbitzu batek zenbateraino asetzen dituen herritarren beharrak, eta horretarako:

- 264a) Administrazio publikoa herritarrekiko ikuspegian oinarrituko da, eta egungo eta etorkizuneko beharrak detektatzen saiatuko da.
- 264b) Administrazio publikoak enpresen kasuan bezala jokatu beharko du, batzuen (administrazio publikoak) eta besteen (enpresak) kudeaketan inolako alderik egon gabe.
- 264c) Herritarrek zerbitzu publikoaren ebaluazioak egin beharko dituzte hilerok.
- 264d) Enpresentzat dauden kalitatea kudeatzeko ereduak (ISO 9000, EFQM, CAF, etab.) administrazio publikoetan aplikatzeko balio dute, egokitzapenen beharrik gabe.

265 Herritarren parte-hartzea:

- 265a) Kolektiboki baino ezin da baliatu, inoiz ez banaka.
- 265b) Banaka nahiz kolektiboki balia daiteke.
- 265c) Banaka baino ezin da baliatu, inoiz ez kolektiboki.
- 265d) Hainbat interesen ordezkari diren taldeen edo herritarren erakundeen bitartez baino ezin da baliatu.

266 Herritarrek parte hartzeko prozesuetan, zenbait oinarrizko printzipio betetzen direla zaindu beharko da. Printzipio horien artean EZ dago hauetako bat:

- 266a) Eskumen-banaketa.
- 266b) Egiaskotasuna.
- 266c) Fede ona.
- 266d) Unibertsaltasuna.

267 Integritate-sistemek balio eta jokabide-arau berberak dituzte, eta horiek hiru printzipio etiko orokorretan sar daitezke. Printzipio hauetatik, zein da gezurra?:

- 267a) Interes orokorra.
- 267b) Efikazia eta emaitza onak.
- 267c) Errespetua eta irekitasuna.
- 267d) Unibertsaltasuna.

268 Erakunde hauetatik adierazi zein EZ den gobernu irekirako nazioarteko erakunde bat:

- 268a) Gobernu Irekirako Aliantza.
- 268b) Nazioarteko Gardentasuna.
- 268c) Gardentasunaren Foru Kontseilua.
- 268d) Pro Acceso Koalizioa.

15. gaia

269 Autonomia Erkidegoko Administraziooko eta haren organismo autonomoetako aurrekontuen gastu-orrietan sartutako ordainketa-kredituak:

- 269a) Mugatzaileak izango dira, eta ezingo da gasturik konprometitu ez ordaindu beren zenbatekoaz haratago, urte anitzeko eragiketen kasuan izan ezik. Kasu horretan, ordainketa-kredituak konpromiso-kreditu bat duten obligazioei buruzkoak direnean, bi kredituen zuzkiduren baturaren adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.
- 269b) Ez dira mugatzaileak izango, gastu bat konprometitu eta ordaindu ahal izango da haien zenbatekoaz haratago, baita urte anitzeko eragiketen kasuan ere. Kasu horretan, ordainketa-kredituak konpromiso-kreditu bat duten obligazioei buruzkoak direnean, bi kredituen zuzkiduren baturaren adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.
- 269c) Mugatzaileak izango dira, eta gastu bat konprometitu eta ordaindu ahal izango da haien zenbatekoaz haratago, baita urte anitzeko eragiketen kasuan ere. Kasu horretan, ordainketa-kredituak konpromiso-kreditu bat duten obligazioei buruzkoak direnean, bi kredituen zuzkiduren baturaren adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.
- 269d) Ez dira mugatzaileak izango, eta ezingo da gasturik konprometitu ez ordaindu haien zenbatekoaz haratago, urte anitzeko eragiketen kasuan izan ezik. Kasu horretan, ordainketa-kredituak konpromiso-kreditu bat duten obligazioei buruzkoak direnean, bi kredituen zuzkiduren baturaren adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.

270 Gastu publikoa exekutatzeko, honako printzipio hauek bete behar dira:

- 270a) Aurrekontu-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efikazia.
- 270b) Finantza-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efikazia.
- 270c) Finantza-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efizientzia.
- 270d) Aurrekontu-nahikotasuna, legezketasuna, kontrola, ekitatea, ekonomia eta efizientzia.

271 Gastu-aurrekontua exekutatzeko prozesuak honako fase hauek ditu, bata bestearen atzetik:

- 271a) Gastua xedatzea, gastua baimentzea, obligazioa onartzea, ordainketa agintzea.
- 271b) Gastua agintzea, ordainketa baimentzea, obligazioa onartzea, ordainketa xedatzea.
- 271c) Ordainketa baimentzea, obligazioa xedatzea, gastua onartzea, ordainketa agintzea.
- 271d) Gastua baimentzea, gastua xedatzea, obligazioa onartzea, ordainketa agintzea.

272 Gastua baimentzea:

- 272a) Egintza bat da, zeinaren bidez formalizatzen baita, egin beharreko lege-izapideak egin eta gero, obra zehatzak egingo direla, edo ondasun eta zerbitzuak edo dirulaguntzak eman edo hornituko direla. Horretarako, dagokion ordainketa-kreditua gorde behar da, bat etorriko dena zehatz-mehatz adostutako zenbatekoarekin eta baldintzekin.
- 272b) Hala esaten zaio arduradunak, onartutako obligazio batengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordainketa-agindua emateko eragiketari.
- 272c) Eragiketa bat da, kontuetan erregistratzeko zer kreditu edo zenbateko exiji daitekeen, egokiro egiaztatu delako «xedapenaren» xede den prestazioa, edo bete egin direlako xede horretarako adostu edo ezarritako baldintzak.
- 272d) Egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita gastu hori ordainketa-kreditu jakin bati kargatzea, zenbateko batez —gehienekoa, zehatza edo gutxi gorabeherakoa—. Horretarako, kreditu osoa gordeko da, edo haren zati eskuragarri bat.

273 Gastua xedatzea:

- 273a) Egintza bat da, zeinaren bidez formalizatzen baita, egin beharreko lege-izapideak egin eta gero, obra zehatzak egingo direla, edo ondasun eta zerbitzuak edo dirulaguntzak eman edo hornituko direla. Horretarako, dagokion ordainketa-kreditua gorde behar da, bat etorriko dena zehatz-mehatz adostutako zenbatekoarekin eta baldintzekin.
- 273b) Hala esaten zaio arduradunak, onartutako obligazio batengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordainketa-agindua emateko eragiketari.
- 273c) Eragiketa bat da, kontuetan erregistratzeko zer kreditu edo zenbateko exiji daitekeen, egokiro egiaztatu delako «xedapenaren» xede den prestazioa, edo bete egin direlako xede horretarako adostu edo ezarritako baldintzak.
- 273d) Egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita gastu hori ordainketa-kreditu jakin bati kargatzea, zenbateko batez —gehienekoa, zehatza edo gutxi gorabeherakoa—. Horretarako, kreditu osoa gordeko da, edo haren zati eskuragarri bat.

274 Obligazioa onartzea.

- 274a) Egintza bat da, zeinaren bidez formalizatzen baita, egin beharreko lege-izapideak egin eta gero, obra zehatzak egingo direla, edo ondasun eta zerbitzuak edo dirulaguntzak eman edo hornituko direla. Horretarako, dagokion ordainketa-kreditua gorde behar da, bat etorriko dena zehatz-mehatz adostutako zenbatekoarekin eta baldintzekin.
- 274b) Hala esaten zaio arduradunak, onartutako obligazio batengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordainketa-agindua emateko eragiketari.
- 274c) Eragiketa bat da, kontuetan erregistratzeko zer kreditu edo zenbateko exiji daitekeen, egokiro egiaztatu delako «xedapenaren» xede den prestazioa, edo bete egin direlako xede horretarako adostu edo ezarritako baldintzak.
- 274d) Egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita gastu hori ordainketa-kreditu jakin bati kargatzea, zenbateko batez —gehienekoa, zehatza edo gutxi gorabeherakoa—. Horretarako, kreditu osoa gordeko da, edo haren zati eskuragarri bat.

275 Ordainketa agintzea:

- 275a) Egintza bat da, zeinaren bidez formalizatzen baita, egin beharreko lege-izapideak egin eta gero, obra zehatzak egingo direla, edo ondasun eta zerbitzuak edo dirulaguntzak eman edo hornituko direla. Horretarako, dagokion ordainketa-kreditua gorde behar da, bat etorriko dena zehatz-mehatz adostutako zenbatekoarekin eta baldintzekin.
- 275b) Hala esaten zaio arduradunak, onartutako obligazio batengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordainketa-agindua emateko eragiketari.
- 275c) Eragiketa bat da, kontuetan erregistratzeko zer kreditu edo zenbateko exiji daitekeen, egokiro egiaztatu delako «xedapenaren» xede den prestazioa, edo bete egin direlako xede horretarako adostu edo ezarritako baldintzak.
- 275d) Egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita gastu hori ordainketa-kreditu jakin bati kargatzea, zenbateko batez —gehienekoa, zehatza edo gutxi gorabeherakoa—. Horretarako, kreditu osoa gordeko da, edo haren zati eskuragarri bat.

276 Gastu-aurrekontua exekutatzean segidako administrazio kontrolaren printzipioa bete beharko da. Horrek zer esan nahi du?:

- 276a) Prozedura osatzen duen egintza oro gauzatu aurretik, ziurtatu egin behar dela egoki bete direla aurreko eragiketak.
- 276b) Dokumentu bidez egiaztatu behar direla prozedura osatzen duten eragiketa guztiak, justifikatu beharreko igorpenak barne.
- 276c) Idatziz jasota egon behar dela arduradunek eragiketa guztiak bete dituztela.
- 276d) Legebiltzarrak berak onartu behar dituela aurrekontu orokorrak.

277 Eskubide edo obligazio ekonomikoak sorrarazten dituzten eragiketa guzti-guztiak zein bere aurrekontuan islatu behar izatea (gastuak edo sarrerak), zer printzipiotan dago jasota?:

- 277a) Segidako administrazio-kontrolaren printzipioan.
- 277b) Dokumentu bidez justifikatzearen printzipioan.
- 277c) Idatziz jasotzearen printzipioan.
- 277d) Unibertsaltasun-printzipioan.

278 Gastua baimentzea dela eta:

- 278a) Baimena ez zaio zertan aurrekontu-kreditu jakin bati egotzi behar, baina hautatutako horretan kreditua egotea beharrezkoa da: kreditua egotea legezko araudiak zehazten duen lotura-mailan ez da nahikoa.
- 278b) Aurrekontu-kreditu jakin bati egotzi behar zaio baimena, baina ez da beharrezkoa bertan kreditua egotea: nahikoa da kreditua egotea legezko araudiak zehazten duen lotura-mailan.
- 278c) Aurrekontu-kreditu jakin bati egotzi behar zaio baimena, baina beharrezkoa da bertan kreditua egotea: kreditua egotea legezko araudiak zehazten duen lotura-mailan ez da nahikoa.
- 278d) Aurrekontu-kreditu jakin bati egotzi behar zaio baimena, eta bertan kreditua egotea nahi-taetzkoa da.

279 Administrazio-kontratueta:

- 279a) Gastu-xedapena emakidarekin gertatzen da.
- 279b) Gastu-xedapena obligazioa onartzearekin gertatzen da.
- 279c) Gastu-xedapena efektibo egiten da adjudikazio-ebazpenaren bidez.
- 279d) Gastu-xedapena gastuaren gehieneko zenbatekoa egitea erabakitzen denean gertatzen da.

280 Gastu-xedapenaren dokumentu-euskarriari dagokionez, aurretiazko fiskalizazioaren mende dauden kasuetan, zer erantsi behar zaio kontabilitate-dokumentuari?:

- 280a) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatu gabe.
- 280b) Xedapen-egintzaren ondorengo administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatu gabe.
- 280c) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, konpromiso-dokumentua barne, eta organo eskudunak sinatuta.
- 280d) Xedapen-egintzaren aurreko administrazio-prozeduraren espediente osoa erantsi behar zaio, baina konpromiso-dokumentua sartu gabe.

281 Aurretiazko fiskalizazioan:

- 281a) Gastua xedatu aurre-aurretik egiten da kontrola; beraz, ez da konpromisorik hartu behar harik eta kontrol-txostena egin eta aldekoa izan arte, edo, behintzat, kontrako txosten ez-etetekoa izan arte.
- 281b) Gastua onartu aurre-aurretik egiten da kontrola; beraz, ez da konpromisorik hartu behar harik eta kontrol-txostena egin eta aldekoa izan arte, edo, behintzat, kontrako txosten ez-etetekoa izan arte.
- 281c) Gastua xedatu eta berehala egiten da kontrola; beraz, ez da konpromisorik hartu behar harik eta kontrol-txostena egin eta aldekoa izan arte, edo, behintzat, kontrako txosten ez-etetekoa izan arte.
- 281d) Gastua baimendu aurre-aurretik egiten da kontrola; beraz, ez da konpromisorik hartu behar harik eta kontrol-txostena egin eta aldekoa izan arte, edo, behintzat, kontrako txosten ez-etetekoa izan arte.

282 Egitekoa den gastua zergaren baten eraginpean badago, zein da baieztapen zuzena?:

- 282a) Zergak gastua eragiten du beti.
- 282b) BEZ kengarria bada edo PFEZren atxikipenak badira, aurrekontutik kanpoko eragiketak dira.
- 282c) Zergak ez du inoiz gasturik eragiten.
- 282d) Ordainketak sorrarazten dituzten eragiketak dira, baina, gastuak ez direnez, ez zaizkio aurrekontuari egozten.

283 Ordainketa-aginduari ezin bazaio dokumentu-euskarria erantsi, nolakoa izango da igorpena?:

- 283a) Behin betikoa izango da.
- 283b) Mugagabea izango da.
- 283c) Behin-behinekoa izango da.
- 283d) Berehalakoa izango da.

284 Aurrekontuen terminologian, zer dira «gastu-hondarrak»?:

- 284a) Aurrekontu-ekitaldiaren kontabilitatea ixtean hirugarrenei edo hartzekodunei zor zaizkien saldoak bezalakoak dira. Beraz, ordaindu beharreko kontuak dira, onartutako eta sorrarazitako obligazioetatik datozenak eta hurrengo ekitaldian edo ekitaldietan ordainduko direnak, ebazpenetan edo kontratuetan finkatutako akordioen arabera.
- 284b) Kobratu beharreko kontuak dira, onartutako eta sorrarazitako obligazioetatik datozenak eta hurrengo ekitaldian edo ekitaldietan ordainduko direnak, ebazpenetan edo kontratuetan finkatutako akordioen arabera.
- 284c) Aurrekontu-ekitaldiaren kontabilitate-itxieran hirugarrenen saldo hartzekodunen bezalakoak dira.
- 284d) Aurrekontu-ekitaldiaren kontabilitatea ixtean hirugarrenei edo hartzekodunei zor zaizkien saldoak bezalakoak dira. Beraz, ordaindu beharreko kontuak dira, onartutako baina oraindik sorrarazi gabe dauden obligazioetatik datozenak.

285 Behin-behineko ordainketa-aginduz jasotako funtsak zertarako erabili dituen justifikatu beharko du hartzaileak. Zenbateko epea izango du horretarako?:

- 285a) 15 egun natural.
- 285b) 15 egun baliiodun.
- 285c) Hiru hilabete.
- 285d) Hilabete.

286 Kontrol kontu-hartzailea ordainketa agintzean. Zertan datza?:

- 286a) Onartutako obligazioari dagokionez, ordainketa-aginduaren zenbatekoa zenbat den zehatz-mehatz eta hartzekoduna nor den egiaztatzean.
- 286b) Ordainketa-betebeharrak onartu izanaren frogagiriak egiaztatzean.
- 286c) Sistema informatikoak sartutako kontu-hartzaitzaren erreferentzian.
- 286d) Gastu-xedapena egin aurreko unean egin beharreko aurretiazko fiskalizazioan.

287 Zeintzuk dira Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren funtzioak?:

- 287a) Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen obligazioak ingresatzea eta eskubideak ordaintzea, bai eta indarrean den ordenamenduan ezartzen diren gainerako funtzioak ere, edo aurrekoekin lotuak.
- 287b) Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen eskubideak ingresatzea eta obligazioak ordaintzea, bai eta indarrean den ordenamenduan ezartzen diren gainerako funtzioak ere, edo aurrekoekin lotuak.
- 287c) Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden administrazioen eta haien organismo autonomoen eskubideak ingresatzea eta obligazioak ordaintzea, bai eta indarrean den ordenamenduan ezartzen diren gainerako funtzioak ere, edo aurrekoekin lotuak.
- 287d) Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden administrazioen eta haien organismo autonomoen obligazioak ingresatzea eta eskubideak ordaintzea, bai eta indarrean den ordenamenduan ezartzen diren gainerako funtzioak ere, edo aurrekoekin lotuak.

288 «Obligazio» bat kontabilizatu ahal izateko:

- 288a) Xedapen-saldoa egon behar da kontu-hartzaitzaren erreferentzian.
- 288b) Baimendutako saldoa egon behar da kontu-hartzaitzaren erreferentzian.
- 288c) Onartutako saldoa egon behar da kontu-hartzaitzaren erreferentzian.
- 288d) Ordainketa-saldoa egon behar da kontu-hartzaitzaren erreferentzian.

16. gaia

289 Aurrekontua osatzen duten sarrera guztiak eta horiekin egiten diren eragiketa guztiak kudeatzea, zer da?:

- 289a) Aurrekontua exekutatzea.
- 289b) Aurrekontua baimentzea.
- 289c) Aurrekontua bidaltzea.
- 289d) Aurrekontuan esku-hartzea.

290 Nolakoak izan daitezke aurrekontua osatzen duten diru-sarrerak?:

- 290a) Izaera pribatukoak, administrazioak biltzen dituen ahal publikoen titularra delako, edo, bestela, izaera publikokoak.
- 290b) Izaera publikokoak, administrazioak biltzen dituen ahal publikoen titularra delako, edo, bestela, izaera pribatukoak.
- 290c) Izaera publikokoak, administrazioak biltzen dituen ahal publikoen titularra delako; izaera pribatukoak; edo izaera erdipublikokoak, aurrekoetako batean sartu ezin direnean.
- 290d) Izaera pribatukoak, administrazioak biltzen dituen ahal publikoen titularra delako; izaera publikokoak, edo izaera erdipublikokoak, aurrekoetako batean sartu ezin direnean.

291 Izaera pribatuko eta izaera publikoko diru-sarrerak bereiztea:

- 291a) Garrantzitsua da, nahiz eta bilketa-prozedura bera den.
- 291b) Berdin dio, kreditu-esleipenerako baino ez da egiten bereizketa.
- 291c) Bereizketa hori garrantzitsua da, bilketa-prozedura desberdina baita. Izan ere, lehenbizi-koetan premiamendu-prozedura erabil daiteke; bigarrenetan, berriz, ez.
- 291d) Bereizketa hori garrantzitsua da, bilketa-prozedura desberdina baita. Izan ere, lehenbizi-koetan premiamendu-prozedura ezin da erabili; bigarrenetan, berriz, bai.

292 Foru-aldundien ekarpenen jatorria Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko zerga-baliabideen banaketan dago. Non dago ezarrita nola egin banaketa hori?:

- 292a) Ekonomia Itunean.
- 292b) Autonomia Estatutuan.
- 292c) Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoan.
- 292d) Konstituzioan.

293 Foru-aldundietatik Eusko Jaurlaritzara doazen ekarpenak lurralde historiko bakoitzaren errentarekiko proportzio zuzenean erabakitzen dira, eta kontuan hartzen da lurralde historiko bakoitzaren ahalegin fiskala. Nola esaten zaio lurralde historikoen arteko ekarpenen banaketari?:

- 293a) Banaketa bertikala.
- 293b) Zeharkako banaketa.
- 293c) Banaketa diagonalak.
- 293d) Banaketa horizontala.

294 Tasak ondoko zerga-egitatea duten tributuenak dira:

- 294a) Zergapekoaren ekonomia-ahalbidea agerian jartzen duen egintza, egitate edo negozioa.
- 294b) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzuak edo jarduerak Zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak badira, edo sektore pribatuak ez badu ematen edo eskaintzen halako zerbitzurik edo jarduerarik.
- 294c) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzuak edo jarduerak Zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak ez badira, edo sektore pribatuak ez badu ematen edo eskaintzen halako zerbitzurik edo jarduerarik.
- 294d) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzuak edo jarduerak Zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak badira, eta sektore pribatuak ematen edo eskaintzen baditu halako zerbitzuak edo jarduerak.

295 Diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapituluaren (Zuzeneko zergak), EAEk honako zerga hauek biltzen eta aurrekontuetan sartzen ditu:

- 295a) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga.
- 295b) Bingoaren gaineko zerga eta jokoaren gaineko tasaren erretegia.
- 295c) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.
- 295d) Kapitulu horretan ez da zuzeneko zergarik aurrekontuan sartzen, ez biltzen.

296 6. kapituluaren (Inbertsio errealeko besterentzea), zer jasotzen da?:

- 296a) Kapitulu horretan jasotzen dira EAEko administrazioaren jabetza diren eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasun eta eskubide-finantzarioak besterentzetik datozen zuzenbide pribatuko sarrerak.
- 296b) Kapitulu horretan jasotzen dira EAEko administrazioaren jabetza diren eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasun eta eskubide ez-finantzarioak besterentzetik datozen zuzenbide pribatuko sarrerak.
- 296c) Kapitulu horretan jasotzen dira EAEko administrazioaren jabetza diren eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasun eta eskubide ez-finantzarioak besterentzetik datozen zuzenbide publikoko sarrerak.
- 296d) Kapitulu horretan jasotzen dira EAEko administrazioaren jabetza diren eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasun eta eskubide finantzarioak besterentzetik datozen zuzenbide pribatuko sarrerak.

297 Nola egiten da diru-bilketaren kudeaketa?:

- 297a) Bi alditan: aldi fakultatiboan eta aldi exekutiboan.
- 297b) Bi alditan: borondatezko aldian eta aldi espezifikokoan.
- 297c) Bi alditan: borondatezko aldian eta aldi exekutiboan.
- 297d) Bi alditan: aldi fakultatiboan eta aldi espezifikokoan.

298 Borondatez ordaintzeko epe barruan, zein da, oro har, ordaintzeko epea?:

- 298a) Hilabete, zorra jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.
- 298b) Hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 20ra arte; hilaren 16tik amaierara bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 5era arte.
- 298c) Hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 5era arte; hilaren 16tik amaierara bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 20ra arte.
- 298d) Hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 15era arte; hilaren 16tik amaierara bitartean jakinarazitako zorren kasuan, jakinarazten diren egunetik hurrengo hilaren 30era arte.

299 Zenbatekoa da premiamendu-errekargu murriztua?:

- 299a) % 5.
- 299b) % 10.
- 299c) % 15.
- 299d) % 2,5.

300 Premiamendu-errekarguak:

- 300a) Zuzenbide publikoko sarrerak dira, eta borondatezko aldi ordaindu ez den zuzenbide publikoko edozein zorreatatik exijitzen dira.
- 300b) Zuzenbide publikoko sarrerak dira, eta ordenamendu juridikoari egindako arau-hausteen ondorioz kitatzen dira.
- 300c) Zuzenbide pribatuko sarrerak dira, eta borondatezko aldi ordaindu ez den zuzenbide publikoko edozein zorreatatik exijitzen dira.
- 300d) Zuzenbide pribatuko sarrerak dira, eta ordenamendu juridikoari egindako arau-hausteen ondorioz kitatzen dira.

301 Noiz aitortzen dira jasotako transferentziak eta dirulaguntzak?:

- 301a) Sortzapenean aitortzen dira.
- 301b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- 301c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru-bilketa egiten den unean bertan.
- 301d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

302 Noiz aitortzen dira ondare-sarrerak?:

- 302a) Sortzapenean aitortzen dira.
- 302b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- 302c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru-bilketa egiten den unean bertan.
- 302d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

303 Noiz aitortzen dira isunak?:

- 303a) Sortzapenean aitortzen dira.
- 303b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- 303c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru-bilketa egiten den unean bertan.
- 303d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

304 Noiz aitortzen dira premiamendu-errekarguak?:

- 304a) Sortzapenean aitortzen dira.
- 304b) Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren aitortzen dira, artean ordaindu ez badira.
- 304c) Erakunde ezarleak haiek exijitzeko legezko titulu bat duenean aitortzen dira, edo, bestela, kobrantza lehenago egin bada —zehapen irmoa baino lehenagoko salaketagatik—, diru-bilketa egiten den unean bertan.
- 304d) Oro har, haiek jasotzeko eskubidea sortzen denean aitortzen dira, baldin eta modu fidagarrian kuantifika badaitezke.

305 Izaera publikoko eskubideek zenbat urteren buruan preskribatzen dute?:

- 305a) 5 urte.
- 305b) 6 urte.
- 305c) 4 urte.
- 305d) 10 urte.

306 Aurrekontu-ekitaldi bat ixtean, kobratzeke dauden eta baliogabetu ez diren ekitaldi horretako eskubide aitortuen saldo guztiekin, zer gertatzen da?:

- 306a) Hurrengo ekitaldira kargatzen dira, baina ez automatikoki, «hondarrak egikaritzea» deritzon kontabilitate-eragiketaren bidez.
- 306b) Hurrengo ekitaldian ezabatzen dira automatikoki, «hondarrak ezabatzea» izeneko kontabilitate-prozesu baten bidez.
- 306c) Hurrengo ekitaldira kargatzen dira automatikoki, «egiteke daudenak pasatzea» deritzon kontabilitate-eragiketaren bidez.
- 306d) Hurrengo ekitaldira kargatzen dira automatikoki, «hondarrak pasatzea» deritzon kontabilitate-eragiketaren bidez.

307 Ekitaldi batean biltzen ez diren eta baliogabetzen ez diren eskubide aitortuekin, zer gertatzen da?:

- 307a) Baliogabetu egiten dira hurrengo ekitaldietarako, bildu edo baliogabetzen diren arte.
- 307b) Kobraezintzat jotzen dira.
- 307c) Bizirik jarraitzen dute hurrengo ekitaldietan, bildu edo baliogabetzen diren arte.
- 307d) Desagertu egiten dira hurrengo ekitaldietan.

308 Hauxe da diru-sarrerak exekutatzeko kontabilitate-agiriekin eduki behar duten gutxieneko informazioa:

- 308a) Diru-sarrera zein aurrekontu-aplikaziori egotziko zaion; kontu-hartzaitzaren erreferentzia; kontzeptu laburtua, hau da, diru-sarreraren azalpen labur bat; hirugarrena: zordunaren IFZa edo NANA eta izena; diru-sarreraren zenbatekoa eurotan.
- 308b) Diru-sarrera zein aurrekontu-aplikaziori egotziko zaion; kontu-hartzaitzaren erreferentzia; zordunketa-kontua; kontzeptu laburtua, hau da, diru-sarreraren azalpen labur bat; hirugarrena: zordunaren IFZa edo NANA eta izena; diru-sarreraren zenbatekoa eurotan.
- 308c) Gastua zein aurrekontu-aplikaziori egotziko zaion; kontu-hartzaitzaren erreferentzia; sarrera-kontua; kontzeptu laburtua, hau da, diru-sarreraren azalpen labur bat; hirugarrena: zordunaren IFZa edo NANA eta izena; diru-sarreraren zenbatekoa eurotan.
- 308d) Diru-sarrera zein aurrekontu-aplikaziori egotziko zaion; kontu-hartzaitzaren erreferentzia; kontzeptu laburtua, hau da, diru-sarreraren azalpen labur bat; hirugarrena: zordunaren IFZa edo NANA eta izena; diru-sarreraren zenbatekoa eurotan; kobratzeko epea.

17. gaia

- 309 Administrazio publikoek hainbat tresna dituzte beren giza baliabideak planifikatzeko eta modu irekian daude jasota Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua). Tresna horien artean EZ dago hauetako bat. Zein da?:
- 309a) Mugikortasun neurriak.
 - 309b) Langileen arloan giza baliabideen eta beharren azterketa.
 - 309c) Arlo funtzionalak.
 - 309d) Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez.
- 310 Enplegu publikoaren eskaintza onartu ondoren, hautaketa-prozesuen deialdia egiteko epe luzeazina dago ezarrita. Zein da epe hori?:
- 310a) Urte bat.
 - 310b) Ez dago epe luzeazinik deialdiak egiteko.
 - 310c) Hiru urte.
 - 310d) Sei hilabete.
- 311 Lanpostu-zerrendek edo antzeko antolaketa-tresnek izan behar duten gutxieneko edukian EZ dago jasota honako hau:
- 311a) Lanpostuaren izena.
 - 311b) Lanpostuan jardun ahal izateko eskatzen diren betekizunak.
 - 311c) Lanpostua betetzeko sistema.
 - 311d) Lanbide-sailkapeneko taldea.
- 312 Funtzionarioen kidegoak edo eskalak sortu, aldatu edo kentzeko, zer behar da nahitaez?:
- 312a) Autonomia-erkidegoetako batzar legegileek emandako lege bat.
 - 312b) Gorte Nagusiek emandako lege bat da.
 - 312c) Gorte Nagusiek edo autonomia-erkidegoetako parlamentuek emandako lege bat.
 - 312d) Gorte Nagusiek emandako lege bat, autonomia-erkidegoan erregelamendu bidez gartua.

- 313 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) jasotzen dituen funtzionarioen lanbide-sailkapeneko taldeen arabera, zein da B taldeko kidego edo eskaletan sartzeko eskatzen den titulazioa?:**
- 313a) Batxilergoko titulua edo teknikari titulua.
 - 313b) Goi-mailako teknikari-titulua.
 - 313c) Graduako unibertsitate-titulua.
 - 313d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
- 314 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) jasotzen dituen funtzionarioen lanbide-sailkapeneko taldeen arabera, A taldea osatzen duten A1 eta A2 azpitaldeetako bakoitzean kidegoak eta eskalak sailkatzeko, zer hartuko da kontuan?:**
- 314a) Horietara sartzeko eskatzen den titulazioa.
 - 314b) Hautaketa-prozesu baten bidez egiaztatutako konpetentzia, gaitasun eta ezagutza komunenak.
 - 314c) Lanpostuaren espezializazio-maila desberdina.
 - 314d) Bete beharreko eginkizunen erantzukizun-maila eta sarrera-proben ezaugarriak.
- 315 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrenda arautzen duen apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren arabera, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 315a) Zeregina da lanpostua definitzeko oinarrizko antolaketa-unitatea.
 - 315b) Lanpostua eginkizun-taldeez dago osatua.
 - 315c) Eginkizun bat hainbat zereginen bidez gara daiteke.
 - 315d) Eginkizunak zer egin behar den adierazten du, eta zereginak, berriz, nola egin behar den.
- 316 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) funtzionarioak kidego eta eskaletan sailkatzeko sistema jasotzen du:**
- 316a) Sailkatzeko sistema zurruna da.
 - 316b) Autonomia-erkidegoek ezin dituzte kidegoak eta eskalak sortu, aldatu edo kendu.
 - 316c) Hautaketa-prozesu baten bidez egiaztatutako konpetentzia, gaitasun eta ezagutza komunen arabera egiten da sailkapena.
 - 316d) Lanpostuei dagokie, eta ez funtzionarioei.
- 317 Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidego eta Eskalen Legearen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidego eta Eskalen Lege berria), Mendekoen kidegoa:**
- 317a) E taldearen barruan dago.
 - 317b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidego berezia da.
 - 317c) Ondasunen eta materialen inbentarioa egiteaz arduratzen da.
 - 317d) Laguntzako Langileen Talde Profesionalak ordezkatu du.
- 318 Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidego eta Eskalen Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidego eta Eskalen Lege berria) zenbait berrikuntza dakartza aurreko 1/2004 Legearekin alderatuta. Baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:**
- 318a) «Especialitate» kontzeptua kendu du.
 - 318b) Mendekoen Kidegoaren ordezkari, Laguntzako Langileen Talde Profesionala ezarri du.
 - 318c) «Aukera» kontzeptua kendu du.
 - 318d) Eskalak jasotzen ditu Kidego Bereziatarako nahiz Kidego Orokorretarako.

- 319 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Kidego eta Eskalen indarreko Legearen arabera (7/2021 Legea, azaroaren 11koa), Administralari Laguntzaileen Kidegoan Administralari Laguntzaileen Eskalan sartzeko, zer titulazio behar da?:**
- 319a) Graduako unibertsitate-titulua.
 - 319b) Batxilergoko titulua.
 - 319c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
 - 319d) Teknikari-titulua.
- 320 Administrazioek lehendik dituzten baliabideekin bete ezin diren langile-beharrak zehazteko balio duen giza baliabideak antolatzeke tresna da honako hau:**
- 320a) Langileen erregistroak.
 - 320b) Lanpostuen zerrendak.
 - 320c) Enplegu publikoaren eskaintza edo antzeke beste tresna bat.
 - 320d) Arlo funtzionalak.
- 321 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan, apirilaren 12ko 77/2005 Dekretuak arlo funtzionalak arautzen ditu. Zer dira?:**
- 321a) Ezagutza eta trebetasun komunak eskatzen dituzten zereginak betetzen dituzten lanpostuak elkartzen dira arlo funtzionaletan.
 - 321b) Hautaketa-prozesu baten bidez egiaztatutako konpetentzia, gaitasun eta jakintza komun arabera elkartzen dira funtzionarioak arlo funtzionaletan.
 - 321c) Lanbide-sailkapeneko taldeak, haietan sartzeko eskatzen den titulazio-mailan oinarrituak.
 - 321d) Funtzionarioak kidego eta eskaletan ordenatzea helburu duen lanpostuen antolaketa.
- 322 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegitzako Errege Dekretua), zeren arabera sailkatzen dira funtzionarioen kidegoak eta eskalak lanbide-sailkapeneko taldeetan?:**
- 322a) Bete beharreko eginkizunen erantzukizun-mailaren arabera.
 - 322b) Sarrera-proben ezaugarrien arabera.
 - 322c) Lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko behar diren ezagutzen edo trebetasunen arabera.
 - 322d) Horietara iristeko eskatutako titulazio akademikoaren arabera.

18. gaia

323 Enplegu publikora iristeko printzipio konstituzional hauek errespetatuko dira:

- 323a) Publizitatea, gardentasuna eta hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- 323b) Berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna.
- 323c) Berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna.
- 323d) Deialdien publizitatea eta hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.

324 Enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1 artikuluan (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa) oro har ezarritako betekizunez gain, beste betekizun espezifiko batzuk exijitu ditzakete administrazio publikoek?:

- 324a) Bai, beste edozein betekizun exijitu dezakete, baina, betiere, pertsona jakin batzuek bakarrik egiazta ditzaketenak ez badira.
- 324b) Bai, edozein kasutan.
- 324c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1 artikuluan oro har jasotako betekizunak baino ezin dituzte exijitu.
- 324d) Bai, betiere, erlazio objektiboa eta proportzionatua badute ardurapean hartutako eginkizunekin eta bete beharreko zereginekin, eta modu abstraktuan eta orokorrean ezartzen badira.

325 Europar Batasunaren estatu kideetako herritarrak enplegu publikoetara iritsi ahal izango dira:

- 325a) Lan-kontratudun langile gisa bakarrik.
- 325b) Bakarrik funtzionario gisa, ez lan-kontratudun langile gisa; salbuespena izango dira botere publikoa baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrek zaintzeko zereginetan parte hartzea eskatzen duten lanpostuak.
- 325c) Lan-kontratudun langile gisa nahiz funtzionario gisa, espainiarrek dituzten baldintza berdinetan, salbuespenik gabe.
- 325d) Lan-kontratudun langile gisa nahiz funtzionario gisa, espainiarrek dituzten baldintza berdinetan; salbuespena izango da funtzionario gisa iristea botere publikoa baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrek zaintzeko zereginetan parte hartzea eskatzen duten lanpostuak badira.

- 326 Nork osatzen ditu enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesua garatzeko eta baloratzeko ardura duten organo teknikoak?:**
- 326a) Funtzionarioek bakarrik, bitartekoen nahiz karrerakoek.
 - 326b) Funtzionarioek edo lan-kontratudun langileek, hautaketa edo izendapen politikoko langileek izan ezik.
 - 326c) Karrerako funtzionarioek edo lan-kontratuko langile finkoek.
 - 326d) Sindikatu edo funtzionarioen kidego bateko ordezkariak, besteak beste.
- 327 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan daude jasota (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuek bete beharreko oinarrizko arauak. Horien artean EZ dago hauetako bat:**
- 327a) Sexuen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa benetan betetzen dela begiratzea.
 - 327b) Hautaketa-prozesuetako edukiak bete beharreko eginkizunei edo zereginei egokitutakoak izatea.
 - 327c) Hautaketa-prozesuan ikastaroak gainditzea, praktikaldiak edo elkarrizketak egitea sartu ahal izatea.
 - 327d) Lehia askea bermatzea beti.
- 328 Funtzionarioak borondatezko eszedentzian emandako denbora ez da kontuan hartuko, hirurtekoak, antzinasuna eta aplikatu beharreko Gizarte Segurantzaren araubideko eskubiak emateko orduan.**
- 328a) Baina kontuan hartuko da genero-indarkeriagatiko eszedentzia bada.
 - 328b) Ez da kontuan hartuko, inola ere.
 - 328c) Ez da kontuan hartuko, salbu eta norberaren interesarengatiko borondatezko eszedentzia bada.
 - 328d) Baina kontuan hartuko da familia elkartzeko borondatezko eszedentzia bada.
- 329 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), zein da karrerako funtzionarioen lanpostuak betetzeko ohiko prozedura?:**
- 329a) Deialdi publiko bidezko izendapen askea.
 - 329b) Lehiaketa.
 - 329c) Lehiaketa-oposizioa.
 - 329d) Zerbitzu-eginkizunak.
- 330 Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legean eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuan dago ezarrita EAEko administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko lehiaketa deialdietan nork parte har dezakeen. Hori dela eta, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:**
- 330a) Zerbitzu berezietan dauden funtzionarioak.
 - 330b) Behin-behineko lan-izendapena duten funtzionarioek, borondatez, haien kidego edo eskalako lanpostuak betetzeko deialdiak direnean.
 - 330c) Borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioak, betiere egoera horretarako ezarritako iraupen-denbora bete badute.
 - 330d) Zerbitzu aktiboan dauden funtzionarioak.
- 331 Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren arabera, lanpostu hutsak edo funtzionarioentzat gordetakoak aldi baterako betetzea esleia da kieke funtzionarioei. Esleipena nolakoa izango da?:**
- 331a) Borondatezkoa izango da beti.
 - 331b) Iraupena ez da inoiz 2 urtetik gorakoa izango.
 - 331c) Salbuespenezkoa izango da.
 - 331d) Behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.

- 332 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren VI. tituluan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) arautzen diren administrazio-egoerak honako hauei aplikatuko zaizkie:**
- 332a) Karrerako funtzionarioei bakarrik.
 - 332b) Lan-kontratudun langileei, aplikagarri zaien negozioazio kolektiboko hitzarmenean hala badago ezarrita.
 - 332c) Karrerako funtzionarioei nahiz bitarteko funtzionarioei, bereizi gabe.
 - 332d) Funtzionarioei nahiz lan-kontratudun langileei, bereizi gabe.
- 333 Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen arabera, zerbitzu berezietan dauden funtzionarioei dagokionez, adierazi erantzun OKERRA:**
- 333a) Lanpostua eta destinoa gordeko zaizkie.
 - 333b) Egoera horretan dauden denbora zenbatu egingo zaizkie graduaren, hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako.
 - 333c) Funtzionario gisa aitortuta dituzten hiru urtekoak jasoko dituzte.
 - 333d) Automatikoki itzuliko dira zerbitzu aktibora zerbitzu berezietan egoteari uzteko arrazoia den egoera galtzen dutenean.
- 334 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), norberaren interesarengatik borondatezko eszedentziaren administrazio-egoerari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**
- 334a) Interesdunak eskatu behar du beti.
 - 334b) Ofizioz deklaratu du administrazioak, funtzionarioa zerbitzu berezietako egoerara pasatzea ekarri zuen arrazoia behin amaitutakoan eta 30 eguneko epean zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiten ez badu.
 - 334c) Egoera horrek irauten duen bitartean ez da inolako ordainsaririk sortuko, baina bai hartuko da kontuan igoera edo hiru urtekoen ondorioetarako.
 - 334d) Ofizioz deklaratu du administrazioak, zerbitzuaren beharrezanek horretarako aukera ematen badute.
- 335 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), familiakoak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioak, honako eskubide hau izango dute:**
- 335a) Betetzen duten lanpostua gutxienez bi urtez gordeko zaie.
 - 335b) Bakarrik lanpostua gordeko zaie herri berean eta ordainsari berarekin.
 - 335c) Lanpostua gordeko zaie herri berean eta ordainsari berarekin, baina bi urtez bakarrik.
 - 335d) Betetzen duten lanpostua gordeko zaie beti.
- 336 Funtzionario bati borondatezko eszedentzia emateko, ezinbestekoa al da alde aurretik administrazio publiko batean benetan egindako zerbitzuetan gutxieneko denbora bat eman izana?:**
- 336a) Bai, beti.
 - 336b) Bai, familia elkartzeko borondatezko eszedentzia bada.
 - 336c) Ez, genero-indarkeriagatik eszedentzia bada.
 - 336d) Ez, norberaren interesarengatik borondatezko eszedentzia bada.
- 337 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) eta martxoaren 10eko 365/1995 Errege Dekretuak, honako hau diote eginkizun-etenaldian dagoen funtzionarioari buruz:**
- 337a) Ezin izango ditu bere eginkizunik bete egoera horretan dagoen bitartean.
 - 337b) Oinarrizko ordainsariak jasoko ditu beti.
 - 337c) Etendura irmoa bada, ordura arte betetzen ari zen lanpostua galduko du.
 - 337d) Edozein modutan, era guztietako ordainsariak jasotzeko utziko dio.

- 338 Enplegu publiko batera iritsi nahi duten pertsonak betekizun batzuk bete behar dituzte. Adierazi erantzun OKERRA:**
- 338a) Espainiako nazionalitatea izatea.
 - 338b) Eskatzen den titulazioa izatea.
 - 338c) Behar besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.
 - 338d) Hamasei urte izatea.
- 339 Enplegatu publikoen hautaketa-prozesuetan, noiz erabiliko da merezimenduen balorazioa baino egingo ez duen lehiaketa-sistema?:**
- 339a) Lan-kontratudun langile finkoen hautaketa-sistema gisa baino ez da erabiliko.
 - 339b) Karrerako funtzionarioen eta lan-kontratudun langile finkoen hautaketa-prozesuetan ohiko sistema gisa erabiliko da, oposizio eta oposizio-lehiaketa sistemekin batera.
 - 339c) Salbuespenezkoa izango da karrerako funtzionarioen hautaketa-sistema gisa.
 - 339d) Salbuespenezkoa izango da beti.
- 340 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), lanpostuak betetzeko karrerako funtzionarioen izendapen askearen prozedurari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?:**
- 340a) Ez du deialdi publikorik eskatzen, prozedura horretan organo eskudunak nahierara balioetsiko baitu hautagaiaren egokitasuna.
 - 340b) Karrerako funtzionarioen lanpostuak betetzeko prozedura arrunta da.
 - 340c) Funtzionarioen edozein lanpostu betetzeko erabili ahal izango da.
 - 340d) Izendapen askeak deialdi publiko bat eskatzen du beti, eta bertan zehaztu beharko dira lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizunak.
- 341 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), lanpostuak betetzeko prozedurak erabilita, beste administrazio publiko batean zerbitzuan dauden karrerako funtzionarioei dagokienez, adierazi baieztapen OKERRA:**
- 341a) Jatorriko administrazioko funtzionarioak izaten jarraituko dute.
 - 341b) Jatorriko administrazioak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdietan parte hartzeko eskubidea gordetzen dute.
 - 341c) Xede-administrazioko funtzio publikoaren antolaketan erabat integratzen dira eta administrazio horretako funtzionario bihurtuko dira.
 - 341d) Xede-administrazioan zerbitzuan jardundako denbora zerbitzu aktibo gisa zenbatuko zaie jatorriko kidego edo eskalan.

19. gaia

342 Hainbat administrazio-unitatek parte hartzen duten espedienteetan, zein da espedienteak artxibatu eta transferitzeko ardura duen unitatea?:

- 342a) Unitate bakoitzak bere zatia artxibatu eta transferitzen du, eta Artxibo Orokorrek bateratu egiten ditu.
- 342b) Espedientea hasten duen unitatea bakarrik.
- 342c) Espedientea amaitzen duen unitatea bakarrik.
- 342d) Unitate bakoitzak bere zatia artxibatu eta transferitzen du.

343 Zer zati ditu dokumentu elektronikoko batek?:

- 343a) Edukia, formatua, metadatuak eta sinadura.
- 343b) Edukia, metadatuak eta sinadura.
- 343c) Edukia, metadatuak, eta, hala badagokio, sinadura.
- 343d) Edukia, URLa, formatua eta metadatuak.

344 Zenbat mailatan banatzen da EAEko Administrazio Publikoaren Artxibo Sistemaren sailkapen-koadroa?:

- 344a) Funtsa, atala, seriea, azpiseriea.
- 344b) Funtsa, azpifuntsa, atala, azpiatala, seriea, azpiseriea.
- 344c) Funtsa, azpifuntsa, atala, azpiatala, seriea.
- 344d) Funtsa, azpifuntsa, atala, seriea.

345 Honako hauek dira espediente elektronikoko baten osagaiak:

- 345a) Dokumentu elektronikokoak, aurkibide elektronikoa, Administrazioak egindako aurkibide elektronikoen sinadura, espediente elektronikoen metadatuak.
- 345b) Dokumentu elektronikokoak, diligentzia elektronikokoak, aurkibide elektronikoa eta hura artxibatzen duen artxibozainaren sinadura.
- 345c) Dokumentu elektronikokoak, sinatutako dokumentuen aurkibide elektronikoa, espediente elektronikoen metadatuak, hura artxibatzen duen artxibozainaren sinadura.
- 345d) Dokumentu elektronikokoak, espediente elektronikoen egindako diligentziak, sinatutako dokumentuen aurkibide elektronikoa, administrazioak sinatutako aurkibide elektronikoa.

- 346 Administrazio-organo hauetako bat EZ dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko 174/2003 Dekretuaren aplikazio-eremuan. Zein da?:**
- 346a) Arartekoa.
 - 346b) Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde).
 - 346c) Uraren Euskal Agentzia (URA).
 - 346d) Herritarrei arreta emateko bulegoa (Zuzenean).
- 347 Zer da DOKUSI?:**
- 347a) Dokumentazio elektronikorako tresna korporatiboa.
 - 347b) Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Elektronikoa.
 - 347c) Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Digitala.
 - 347d) Eusko Jaurlaritzaren dokumentu kudeaketarako sistema integrala.
- 348 Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemari, zer dira Administrazio Instituzionalaren artxibo zentralak?:**
- 348a) Eusko Jaurlaritzako sailtako dokumentazioa kontserbatzeko eta kudeatzeko arduradunak.
 - 348b) Eusko Jaurlaritzako ordezkarietako dokumentazioa kontserbatzeko eta kudeatzeko arduradunak.
 - 348c) Euskadiko Administrazio Publikoko erakundeen dokumentazioa kontserbatzeko eta kudeatzeko arduradunak.
 - 348d) Sail, ordezkari eta erakundeetako dokumentazioa kontserbatzeko eta kudeatzeko arduradunak, Artxibo Orokorra transferitu aurretik.
- 349 Dokumentuak Kudeatzeko Ereduaren arabera, dokumentu elektronikoak artxibo digitalean gorde ahal izateko, zeintzuk dira betekizunak?:**
- 349a) Administrazio-prozeduraren kode bat eta dokumentu-azpimota bat esleituta izatea, baimendutako formatuetako bat izatea eta informazio-sistema batetik etortzea.
 - 349b) Dokumentu-serieen kode bat eta dokumentu-mota bat esleituta izatea, EJIk homologatutako formatu bat izatea eta informazio-sistema batetik etortzea.
 - 349c) Dokumentu-serieen kode bat, administrazio-prozeduraren kode bat eta dokumentu-mota bat esleituta izatea, baimendutako formatu estandarretako bat izatea eta informazio-sistema batetik etortzea.
 - 349d) Dokumentu-serieen kode bat, administrazio-prozeduraren kode bat esleituta izatea eta informazio-sistema batetik etortzea.
- 350 Nork zehazten du dokumentu-seriea prozedura bat digitalizatu behar denean?:**
- 350a) EJI - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak.
 - 350b) Administrazio elektronikoan eskudun den zuzendaritzak.
 - 350c) Prozedura sortu duen erakundearen informatika-zerbitzuak.
 - 350d) EAEko Administrazio Publikoaren Artxibo Orokorra.
- 351 Zertarako balio dute metadatuak dokumentu elektroniko batean?:**
- 351a) Testuingurua ematen diote dokumentu baten edukiari, egiturari eta sinadurari, eta denboran zehar haren froga-balioari eta fidagarritasunari laguntzen diote, jardueren eta prozeduren ebidentzia elektroniko gisa.
 - 351b) Testuingurua, edukia eta sinadura identifikatzeko, denboran zehar froga-balioa emateko, baita artxibo-sistemara transferitu denean ere.
 - 351c) Dokumentuaren OID, jatorria, edukia eta froga-balioa behar bezala identifikatzeko dokumentua kudeatzen duen informazio-sisteman.
 - 351d) Sinatu ondoren dokumentu elektroniko bihurtzen den OIDA deskribatzeko eta testuinguruan jartzeko, eta froga-balioa emateko, batez ere dokumentua kudeatzen duen informazio-sistematik kanpoko prozeduretan txertatzen bada.

352 Administrazio elektronikoan, noiz hasten da dokumentuen bizi-zikloa?:

- 352a) Diseinatzen diren unean.
- 352b) Erregistratzen diren unean.
- 352c) Izapidetzen diren unean.
- 352d) Artxibatzen diren unean.

353 Zein arauk sortu zuen Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordea (COVASAD gaztelaniaz)?:

- 353a) 7/1990 Legeak.
- 353b) 174/2003 Dekretuak.
- 353c) 21/2012 Dekretuak.
- 353d) 2016ko irailaren 27ko Aginduak.

354 Zer egin behar da espediente baten barruan aurkitzen dugun antzeko gai bati buruzko txosten baten kopiarekin?:

- 354a) Espedientearen zati denez, utzi egin behar da.
- 354b) Espedientearen barruan dagoenez, hura espurgatzeak espedientearen osotasuna aldatzea ekarriko luke.
- 354c) Izapidetzean erabakiak hartzeko garaian alderdi garrantzitsua denez, gorde egin beharko litzateke, espedientearen hartutako erabakia argitu baitezake.
- 354d) Ez litzateke inoiz espedientearen gorde behar, eta, beraz, espurgatu egin beharko litzateke.

355 Zertarako balio du dokumentu elektronikoa batzuek duten egiaztapen-kode seguruak (EKS)?:

- 355a) Dokumentua dagokionak sinatu duela frogatu ahal izateko.
- 355b) Dokumentuaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izateko egoitza elektronikoan.
- 355c) Dokumentuaren autentikotasuna egiaztatu ahal izateko egoitza elektronikoan.
- 355d) Dokumentua fitxategi digitalean errazago aurkitzeko.

356 Nola lortzen da paperezko jatorrizko dokumentu baten kopia elektronikoa autentikoa?:

- 356a) Dokumentua digitalizatu egingo da edozein gailutan eta funtzionario gaitu batek dagokion espedientearen sartuko du.
- 356b) Digitalizazio seguruko osagaia duen eskaner batean dokumentua digitalizatu egingo da. Gero, funtzionario batek kopiaren jatorrizkoarekiko egiazkotasuna egiaztatu ondoren, dokumentu berria sinatu egingo da maila ertaineko zigilu elektronikoa baten bidez.
- 356c) Paperezko jatorrizkoaren dokumentuaren kopia elektronikoa bat aurkeztuko da erregistro-puntuan, eta funtzionario batek kopia zehatza dela egiaztatu ondoren, sinatu egingo du elektronikoki.
- 356d) Funtzionario gaitu batek, paperezko jatorrizkoa aurrean duela, kopia elektronikoa egingo du eta espedientearen sartuko da.

357 Artxibo-sistemako dokumentu-kutxek (instalazio-unitateek) gutxienez zein identifikazio-datu izan behar dituzte?:

- 357a) Eskumen-arloa, identifikatzaile alfanumerikoa eta barruan dagoen dokumentazioaren muga-urteak.
- 357b) Saila, seriea eta identifikatzaile alfanumerikoa.
- 357c) Saila, unitate ekoizlea, seriea eta identifikatzaile alfanumerikoa.
- 357d) Eskumen-arloa, zerbitzua, kutxa-zenbakia eta muga-datak.

358 Zeintzuk dira Eusko Jaurlaritzaren Dokumentuak Kudeatzeko Sistema Integrala osatzen duten azpiegitura teknologikoak?:

358a) PLATEA eta Dokusi.

358b) AKS/SGA eta Artxibo Digitala.

358c) Artxibo elektronikoa, erregistro-liburua eta AKS/SGA.

358d) PLATEA, erregistro-liburua eta AKS/SGA.

20. gaia

359 **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte beren artean edo beren organo, organismo edo erakundeekin harremanetan jartzeko, honako hauek ziurtatzeko:**

- 359a) Elkarreragingarritasuna, erregistro elektronikoa, datu pertsonalen babesa eta, ahal dela, zerbitzuak batera ematea.
- 359b) Elkarreragingarritasuna, jakinarazpen elektronikorako irispidea, datu pertsonalen babesa eta, ahal dela, zerbitzuak batera ematea.
- 359c) Haietariko bakoitzak hartutako sistema eta konponbideen elkarreragingarritasun eta segurtasuna, datu pertsonalen babesa eta, ahal dela, interesdunei zerbitzuak batera ematea.
- 359d) Datu pertsonalen segurtasuna eta babesa, egoitza elektronikorako irispidea eta, ahal dela, interesdunei zerbitzuak batera ematea.

360 **Erregistro elektronikoa sistema informatiko bat da, administrazio elektronikoaren zerbitzu erkidetzat jotzen dena. Eskabideak, idazkiak eta komunikazioak (instantziak) erregistratzea da haren xedea eta aukera ematen du:**

- 360a) Hasitako espedientearen izapidegileak kontrolatzeko eta haien lekukotza emateko.
- 360b) Administrazioak epeak betetzen ez baditu, kontrolatu eta herritarrei abisatzeko.
- 360c) Administrazio-organismoek jasotzen duten edo administrazioak bidaltzen duen dokumentazioaren fluxua kontrolatzeko eta horien lekukotasuna emateko.
- 360d) Espedientea izapidetzen hasteko aurkeztutako dokumentuak kontrolatzeko.

361 **Erregistro elektronikoa erabilgarri dago eskaerak aurkezteko:**

- 361a) Urteko egun guztietan, egun horiek baliiodunak edo baliogabeak izan.
- 361b) Urteko egun baliiodun guztietan, administrazio publiko bakoitzaren lan-egutegiaren arabera.
- 361c) Urteko egun baliiodun guztietan, egoitzak arazo teknikorik ez badu.
- 361d) Urteko egun baliiodun guztietan.

362 Legeak edo Europar Batasuneko Zuzenbideak besterik xedatu ezean (39/2015 Legearen 30. art.), administrazio-epeen ordukako zenbaketan honako hau hartuko da kontuan:

- 362a) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak, baina epeak ezin izango dira 4 ordu baino gehiagokoak izan.
- 362b) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak, baina epeak ezin izango dira 6 ordu baino gehiagokoak izan.
- 362c) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak, baina epeak ezin izango dira 12 ordu baino gehiagokoak izan.
- 362d) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak, baina epeak ezin izango dira 24 ordu baino gehiagokoak izan.

363 Euskal Autonomia Erkidegoko udal batek egindako kopia elektronikoko autentikoak non izango dira baliozkoak?:

- 363a) Jatorrizkoa aurkeztu den udalean.
- 363b) Administrazio guztietan.
- 363c) Udalean eta Eusko Jaurlaritzan.
- 363d) Udalean, foru-aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan.

364 Noiz erabil daiteke erregistro elektronikoko orokorreko formulario bat egoitza elektronikoko baten, ezetsia izan gabe?:

- 364a) Beti.
- 364b) Izapide espezifiko bat egiteko formulario elektronikorik ez dagoenean, eta prozedura has-teko formulario normalizatua duen prozedura elektronikoko baten izapidea ez denean.
- 364c) Inoiz ez.
- 364d) Erregistro Orokorreko prozedura bat dagoenean.

365 Eginkizun hauetatik zein EZ dagokio erregistro-gaietan laguntzeko bulego bati?:

- 365a) Identifikazioa egitea eta sinadura elektronikoa erabiltzea.
- 365b) Dokumentuak digitalizatzea eta erregistro elektronikokoan idaztea.
- 365c) Aurrez aurreko jakinarazpenak egitea.
- 365d) BAKq kodea ematea.

366 Zer ziurtagiri bete behar dute administrazio publiko guztietako erregistro orokorrek?:

- 366a) ENI.
- 366b) ENS.
- 366c) METRICA.
- 366d) SICRES.

367 Erregistroen interkonexio-sistema (EIS) oinarritzko azpiegitura da. Zertarako balio du?:

- 367a) Udaletako eta foru-aldundietako erregistro-bulegoak bakarrik elkarrekin konektatzeko.
- 367b) Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro-bulegoak bakarrik elkarrekin konektatzeko.
- 367c) Administrazio publikoen erregistro-bulegoak elkarrekin konektatzeko.
- 367d) Administrazio publikoetako erregistroak Zuzenean zerbitzuaren bidez elkarrekin konektatzeko.

368 Hauetako zein EZ da erregistro elektronikokoaren ezaugarri bat?:

- 368a) Prozeduren oinarritzko izapide erkidea izatea.
- 368b) Epeak kontrolatzea eta, betetzen ez badira, abisatzea.
- 368c) Prozedurei dagozkien epeen zenbaketa ahalbidetzea.
- 368d) Dokumentu-fluxu guztia kontrolatzea eta horien lekukotasuna ematea.

- 369 Dagoeneko elektronikoki erregistratuta dauden dokumentuetan sistemaren osotasunari edo segurtasunari eragin diezaiokeen kode gaizto bat detektatuz gero, zer egingo da?:**
- 369a) Administrazio publikoak baliogabetu egingo du sarrera-erregistroa.
 - 369b) Administrazio publikoak dokumentazioa berriro aurkezteko eskatuko du hasierako fasean.
 - 369c) Administrazio publikoak dokumentazioa berriro aurkezteko eskatuko du dokumentazioa zuzentzeko fasean.
 - 369d) Erregistro elektronikoen detekzio-sistemak dituzte, erregistroa eragozten dutenak, eta egoera hori ez da gertatzen.
- 370 Administrazio publiko bakoitzeko erregistro elektronikoen orokorren aplikazioetan, zer bermatu behar da?:**
- 370a) AENORek homologatutako aplikazioak izatea.
 - 370b) Administrazio Publikoen Ministerioak (APM) homologatutako aplikazioak izatea.
 - 370c) Informatikaren aldetik elkarren artean bateragarriak diren aplikazioak izatea.
 - 370d) Internetera konektatutako aplikazioak izatea.
- 371 Nora egon behar dute konektatuta Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro elektronikoen orokorren aplikazio guztiek?:**
- 371a) ElSera.
 - 371b) Sara sarera.
 - 371c) Euskal Sareara.
 - 371d) APMra.
- 372 39/2015 Legeak zertarako EZ du eskatzen elkarreragingarritasun elektronikoen betekizuna?:**
- 372a) Erregistro elektronikorako.
 - 372b) Kopia autentikoen identitatea eta edukia bermatzeko.
 - 372c) Espediente elektronikoa igortzeko.
 - 372d) Identitatearen akreditazioa bermatzeko.
- 373 Administrazio publiko batek interesdun baten datuak behar baditu espediente bat izapidetzeko, nola kudeatuko ditu?:**
- 373a) Fitxategiak trukatzeko nodoak erabiliz.
 - 373b) Elkarreragingarritasun-nodoak erabiliz.
 - 373c) Konexio-nodoak erabiliz.
 - 373d) Truke-nodoak erabiliz.
- 374 Udal bateko biztanleen erroldako datuak datu-bitartekaritzako plataformen bidez kontsultatzen badira, zein izango da emaitza?:**
- 374a) Errolda-papera.
 - 374b) Erroldatze-agiri elektronikoa.
 - 374c) Erroldatze ziurtagiria.
 - 374d) Datu-bitartekaritzako fitxategia.

**375 Zer gertatzen da pertsona interesdunek dokumentaziorik aurkezten ez dutenean eta izapidetzeaz arduratzen den organoak datuak ezin dituenean datu-bitartekaritzarako platafor-
men bidez eskuratu?:**

- 375a) Izapidetzeaz arduratzen den organoak jakinarazpen bat bidaliko dio interesdunari doku-
mentazioa zuzendu dezan paperean.
- 375b) Izapidetzeaz arduratzen den organoak jakinarazpen bat bidaliko dio interesdunari doku-
mentazioa zuzendu dezan egoitza elektronikoa.
- 375c) Izapidetzeaz arduratzen den organoak, beste bitarteko batzuen bidez eskatuko du doku-
mentazioa, baina espedientean ez da gordeko sarbide elektronikoa eragotzi zuen gertaer-
aren egiaztapena.
- 375d) Izapidetzeaz arduratzen den organoak, beste bitarteko batzuen bidez eskatuko du doku-
mentazioa, eta espedientean gordeko da sarbide elektronikoa eragotzi zuen gertaeraren
egiaztapena.

**376 Interesdunek administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko eta doku-
mentuak ez aurkezteko eskubidea dute; baina zer dokumentu dira horiek?:**

- 376a) Administrazio-prozedura batean nahitaezkoak diren dokumentuak bakarrik.
- 376b) Prozedura zehatza arautzen duen araudiak interesdunak prozedura horretan dagokion
prozedura-unean aurkeztea eskatzen ez duten dokumentuak.
- 376c) Prozedura zehatza izapidetzen duen administrazioan lehenago aurkeztutako dokumen-
tuak, eta beste administrazio batzuen esku dauden dokumentuak, baldin eta administra-
zio jarduleak izenpetuta badauka beste administrazio horiekin horretarako hitzarmena.
- 376d) Administrazio-prozedura batean nahitaezkoak edo aukerakoak diren dokumentuak.

377 Autonomia-erkidegoen administrazio publikoak eta elkarreragingarritasuna:

- 377a) Nahitaez atxiki beharko dira Estatuko Administrazio Orokorraren elkarreragingarritasun-
plataformetara.
- 377b) Elkarreragingarritasun-plataformak sortu beharko dituzte euren lurralde-eremuan.
- 377c) Elkarreragingarritasun-plataformak sortu beharko dituzte euren lurralde-eremuan, hezkun-
tzaren eta osasunaren eremuetan gutxienez.
- 377d) Ez dute zertan atxiki behar Estatuko Administrazio Orokorraren elkarreragingarritasun-pla-
taformetara.

21. gaia

378 Kontzeptu hauetako batek EZ du definitzen espediente elektronikoaren osagai bat. Zein da?:

- 378a) Interesdunaren identifikazioa.
- 378b) Administrazio jarduleak aurkibide elektronikoa sinatzea.
- 378c) Aurkibide elektronikoa.
- 378d) Espediente elektronikoaren metadatuak.

379 Zer bermatzen du EKSk administrazio publiko batek emandako dokumentu batean?:

- 379a) Dokumentuaren osotasuna.
- 379b) Dokumentuaren eskuragarritasuna.
- 379c) Dokumentuaren segurtasuna.
- 379d) Dokumentuaren konfidentzialtasuna.

380 Kopia autentikoak ezin dira eman:

- 380a) Paperezko jatorrizko bat oinarri hartuta.
- 380b) Eskaneatutako kopia bat oinarri hartuta.
- 380c) Jatorrizko dokumentuaren kopia autentiko bat oinarri hartuta.
- 380d) Formatu elektronikoa duen jatorrizko bat oinarri hartuta.

381 Zein ziurtagiri elektronikoren bidez sinatzen da modu ez automatizatuan sortutako espediente baten aurkibide elektronikoa autentikatua?:

- 381a) Espedientea ebazten duen funtzionarioaren ziurtagiriarekin.
- 381b) Espedientea ebazten duen organoaren ziurtagiriarekin.
- 381c) Funtzionarioaren ziurtagiriarekin, espedientea ebazten duen organoaren ziurtagiriarekin batera.
- 381d) Funtzionarioaren ziurtagiriarekin, interesdunaren identitate-ziurtagiriarekin batera.

382 Administrazio publikoak espediente elektronikoaren kopia emango dio interesdunari:

- 382a) Horretarako, espedientearen artxiboak bidaliko ditu PDF formatuan interesdunaren posta elektronikora.
- 382b) Horretarako, espedientera irispidea emango duen helbide elektronikoa edo lokalizatzailea bidaliko du.
- 382c) Horretarako, espedientearen paperezko kopia bat bidaliko du espedientearen helbidera.
- 382d) Horretarako, espedientearen paperezko kopia bat eta jatorrizko dokumentuak bidaliko ditu espedientearen helbidera.

383 Zer da NISAE?:

- 383a) Ziurtapenerako plataforma komuna.
- 383b) Identitateak baliozkotzeko plataforma komuna.
- 383c) Denbora egiaztatzeko plataforma komuna.
- 383d) Datuak trukatzeko plataforma komuna.

384 Eginkizun hauetatik, zein EZ dagokio NISAEri?:

- 384a) Lagapen-hartzaileak eta eskatzaileak kudeatzea.
- 384b) Datuak kontsumitzen eta zerbitzatzen dituzten erakundeei laguntza ematea.
- 384c) Informazio-atari bat mantentzea.
- 384d) Aldundientzat eta udalentzat elkarreragingarritasun-zerbitzuak garatzea.

385 Zer da administrazio-espediente?:

- 385a) Artxibo elektronikoen eta negozio-arauen multzoa.
- 385b) Dokumentu eta jarduketan multzoa.
- 385c) Dokumentu eta jarduketan multzo ordenatua.
- 385d) Elektronikoki sinatutako artxibo elektronikoen multzoa.

386 Honako aukera hauetatik adierazi zein EZ da espediente elektronikoaren osagai bat:

- 386a) Dokumentu elektronikoak.
- 386b) Aurkibide elektronikoa.
- 386c) Espediente elektronikoaren metadatuak.
- 386d) Interesdunaren sinadura.

387 Espediente elektroniko batek dituen dokumentuen aurkibidea autentifikatzeak, zer bermatzen du?:

- 387a) Espedientearen kontserbazioa eta aldaezintasuna.
- 387b) Espedientearen osotasuna eta aldaezintasuna.
- 387c) Espedientearen eskuragarritasuna eta aldaezintasuna.
- 387d) Espedientearen segurtasuna eta aldaezintasuna.

388 Zer da denbora-zigilu elektroniko kualifikatua?:

- 388a) Entitate batek egiaztatuta, bitarteko elektronikoen bidez dokumentu elektroniko bati data eta ordua esleitzea.
- 388b) Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Gaituen Erregistroan inskribatutako funtzionario gaitu batek egiaztatuta, bitarteko elektronikoen bidez dokumentu elektroniko bati data eta ordua esleitzea.
- 388c) Organo igorleak egiaztatuta, bitarteko elektronikoen bidez dokumentu elektroniko bati data eta ordua esleitzea.
- 388d) Konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatu batek, bitarteko elektronikoen bidez dokumentu elektroniko bati data eta ordua esleitzea.

389 Zenbat denbora gordetzen ditu administrazio batek paperean aurkeztutako espediente baten jatorrizko dokumentuak, interesdunak jaso ahal ditzan?:

- 389a) 3 hilabete.
- 389b) Urtebete.
- 389c) 6 hilabete.
- 389d) 5 urte.

390 Zer esan nahi du NISAEk?:

- 390a) EAEko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Zerbitzuen Nodoa.
- 390b) EAEko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa.
- 390c) Estatuko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa.
- 390d) Estatuko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Zerbitzuen Nodoa.

391 Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamenduaren arabera, nola konektatuko da Galdakaoko Udala Estatuko Administrazio Orokorrekin?:

- 391a) NISAEren bitartez.
- 391b) Bizkaiko Foru Aldundiko Nodoaren bitartez.
- 391c) Estatuko Administrazio Orokorren Nodoaren bitartez.
- 391d) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Nodoaren bitartez.

392 Zer da dokumentu elektronikoa bat?:

- 392a) Edozein eratako informazioa, euskarri batean artxibaturik dagoena eta identifikatzeko eta tratamendu berezitua izateko modukoa.
- 392b) Euskarri elektronikoa batean artxibaturik dagoen informazioa, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko moduko formatu jakin baten arabera.
- 392c) Objektu digital administratiboa, xede-informazioa (datuak) eta hari lotutako datuak (sinadura eta metadatuak) dituena.
- 392d) Elektronikoki jasota datorren edozein eratako informazioa, euskarri elektronikoa batean artxibaturik dagoena, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko moduko formatu jakin baten arabera.

393 39/2015 Legearen arabera, zer eraman behar du ziurtagiri orok?:

- 393a) Kopia egin duen sailaren zigilua.
- 393b) Emate-data.
- 393c) Sinadura digital elektronikoa.
- 393d) Ziurtagiria eman duen pertsonaren kargua eta izen-abizenak.

22. gaia

394 Zein da lizenpek emandako herritarren ziurtagiria eskatzeko adina?:

- 394a) 16 urte.
- 394b) 18 urte.
- 394c) Edozein.
- 394d) Edozein, NANA izanez gero.

395 Digitalki sinatutako dokumentu bat jasotzen duzunean, zer egin dezakezu?:

- 395a) Dokumentuaren jatorria eta egiazkotasuna egiaztatu.
- 395b) EKS identifikatu.
- 395c) Dokumentua sortu duen aplikazio identifikatu.
- 395d) Dokumentua sortu zeneko data egiaztatu.

396 Sinadura elektronikoaz ari garenean, osotasunaren kontzeptuak zeri egiten dio erreferentzia?:

- 396a) Jaso dugun informazioa interesdun batek bidalia dela eta ez dagoela zalantzarik bera dela esateko.
- 396b) Informazioa formatu elektronikoan datorrela eta ez dela aldatua izan.
- 396c) Jaso dugun informazioa bidali diguten informazio guztia dela, eta ez dela manipulaturik edo aldatua izan igortzen aritu diren bitartean.
- 396d) Informazioak ez duela gaitzespenik.

397 Ziurtagiri digitala dokumentu elektroniko bat da, eta horren bidez:

- 397a) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko edo juridiko baten eta hari dagokion gako publikoaren artean.
- 397b) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko edo juridiko baten eta hari dagokion gako pribatuaren artean.
- 397c) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona juridiko baten eta hari dagokion gako pribatuaren artean.
- 397d) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko baten eta hari dagokion gako publikoaren artean.

398 Ziurtapen-agintaritzari dagokionez, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?:

- 398a) Ziurtapen-agintaritza pertsona fisikoa izan daiteke.
- 398b) Ziurtapen-agintaritza pertsona juridikoa izan daiteke.
- 398c) Ziurtapen-agintaritza guztiak publikoak dira.
- 398d) Ziurtapen-agintaritzak ofizialki egiaztatuta egon behar du.

399 Ziurtagiri baten gako publikoa:

- 399a) Ziurtagiriaren sortze-datuak dira.
- 399b) Bakarra da eta haren jabe denak isilpean gordetzen saiatu behar du.
- 399c) Ziurtagiria sinatzeko eta zifratzeko erabiltzen da.
- 399d) Ziurtagiriak berak dakar.

400 Ziurtagiri elektronikoa bat etenda badago eta 120 egun igarotzen badira berriz aktibatu gabe, zer egoeratan geratuko da ziurtagiria?:

- 400a) Gaitze egoeran.
- 400b) Berritze egoeran.
- 400c) Baliogabetze egoeran.
- 400d) Etete egoeran.

401 Zigilu elektronikoaren balioa, zenbatekoa da?:

- 401a) 4 urte.
- 401b) Urtebete.
- 401c) 5 urte.
- 401d) 3 urte.

23. gaia

402 Zer da erabateko kalitatea edo bikaintasuna?:

- 402a) Ekintzak zuzentzeko eta koordinatzeko estrategia.
- 402b) Jarduera-egitaraua.
- 402c) Jarduketa-teknika.
- 402d) Jarduketa-sistema.

403 Shewhart-en zikloaren arabera (Deming-en zikloa ere esaten zaio), etengabeko hobekuntza lau faseko zikloa da:

- 403a) Planifikatu, egin, egiaztatu eta doitu.
- 403b) Planifikatu, egin, aplikatu eta doitu.
- 403c) Prestatu, definitu, alderatu eta baieztatu.
- 403d) Prestatu, definitu, ezarri eta aplikatu.

404 Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua (EJKPAE):

- 404a) Eredu dinamikoa da, herritarrak erdi-erdian jartzen dituen eta gure administrazioaren ezaugarri nagusia nabarmentzen duena: balio publikoa eranstea, beharrei bidezko moduan erantzunda.
- 404b) Eredu estatiko eta egonkorra da, eta erreferentzia-eremu bihurtzen da Eusko Jaurlaritzako antolamendu-unitate guztientzat.
- 404c) Eredu propioa da, bai administrazio publikoarentzat, bai sektore pribatuarentzat pentsatua.
- 404d) Eredu horren testuingurua normaltasun-ingurunea da, eta ez krisi-ingurunea.

405 Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua (EJKPAE) zenbat ardatzetan dago oinarrituta?:

- 405a) Bi ardatz: antolaketa eta berrikuntza.
- 405b) Hiru ardatz: zerbitzuak, pertsonak eta antolaketa.
- 405c) Lau ardatz: zerbitzuak, pertsonak, berrikuntza eta ikerketa.
- 405d) Sei ardatz: estrategia, zerbitzuak, pertsonak, berrikuntza, gizartea eta emaitzak.

- 406** Prozesuen mapa antolaketa-unitatearen diagrama da. Bertan, kudeaketa-sistema erakusten da ikuspegi orokorrarekin eta sistema osatzen duten prozesuak erakusten dira. Honako hauek bereizten dira:
- 406a) Prozesu estrategikoak: bat datoz zerbitzuek sortzen dituzten jarduerekin.
 - 406b) Prozesu operatiboak: estrategia finkatu eta garatzen laguntzen dute.
 - 406c) Laguntzarako prozesuak: tresna izaera dute eta jarduera egoki garatzeko balio dute.
 - 406d) Misio-proiektuak: urtean-urtean hedatuko diren proiektuak zehazteko balio dute.
- 407** Honako alderdi hauetatik, zein EZ da erakundeen kudeaketan bikaintasuna kudeatzeko funtsezko printzipioetako bat?:
- 407a) Emaitzetara bideratzea.
 - 407b) Bezeroarengana bideratzea.
 - 407c) Gertaeretara bideratzea.
 - 407d) Aliantzak egitea.
- 408** Honako alderdi hauetatik, zein da erakundeen kudeaketan bikaintasuna kudeatzeko funtsezko printzipioetako bat?:
- 408a) Fundazioen printzipioetara bideratzea.
 - 408b) Lidergoa eta jarraitutasuna helburuetan.
 - 408c) Publizitatea egitea.
 - 408d) Prozesu eta egitate bidezko kudeaketa.
- 409** Erabateko kalitatearen edo bikaintasunaren ereduan:
- 409a) Erakunde osoa jartzen da lanean bezeroaren gogobetetasuna bilatzeko.
 - 409b) Erakundearen barruan lehiakortasuna bilatzea lehenesten da.
 - 409c) Ekoizpenaren efizientzia jotzen da lehia-abantaila nagusi gisa.
 - 409d) Bezeroaren gogobetetasuna produktuan edo zerbitzuan zituen itxaropenekiko hautemandako balioaren araberakoa da. Beraz, gogobetetze eredu estatiko eta egonkorra da.
- 410** Honako alderdi hauetatik, zein EZ da prozesu bidezko kudeaketaren berezko urratsa?:
- 410a) Antolakundearen funtsezko prozesuak identifikatzea.
 - 410b) Prozesuak antolatzea.
 - 410c) Prozesuen ardura hartuko duten pertsonak edo prozesuen jabeak eta hobekuntza-taldeak izendatzea.
 - 410d) Lidergo-aliantzak ebaluatzea.
- 411** Antolaketa-unitate baten misioari dagokionez, adierazi baieztapen OKERRA:
- 411a) Antolaketa-unitatearen asmoaren edo izateko arrazoiaren berri ematen duen adierazpena da.
 - 411b) Unitatearen izateko arrazoa delako, misioak, ikuspegiarekin batera, estrategiaren muina osatzen du.
 - 411c) Etorkizunean zer izan nahi den deskribatzen duen adierazpena da.
 - 411d) Funtsezko elementua da unitatearentzat ildo estrategikoak eta helburuak identifikatzeko orduan.
- 412** Antolaketa-unitatearen prestakuntza planak, jarraian adierazitako faseak jaso behar ditu, gutxienez (adierazi baieztapen OKERRA):
- 412a) Prestakuntza-premiak zein diren ikustea.
 - 412b) Kudeaketaren hobekuntza ebaluatzea.
 - 412c) Prestakuntza-ekintzak ebaluatzea eta plana berriro definitzea.
 - 412d) Lehentasunak eta helburuak ezartzea.

24. gaia

413 Herritarrek eta interesdunek administrazio-prozeduraren esparruan dituzten eskubideen araubide juridikoa:

- 413a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen da zehatz-mehatz.
- 413b) Espainiako Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuan arautzen da zehatz-mehatz.
- 413c) Erabat konfiguratu da, eremu zibileko auzialdiko auzitegietako jurisprudentziari esker.
- 413d) Gaur gaurkoz, ez dago erabat ordenatuta.

414 Noiz dute administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek, eta ondare independente edo autonomoek?:

- 414a) Inoiz ez, legeak horretarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituztelako.
- 414b) Legeak espresuki hala adierazten duenean.
- 414c) Epaila eskudunak, alde aurretik eta kasu zehatzean hala aitortzen dionean.
- 414d) Hala argitaratzen denean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

415 Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan:

- 415a) Gutxieneko soldata bat jasotzeko eskubidea haien kontura, nahiz eta horretarako betekizunak bete ez.
- 415b) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko administrazio publikoekiko harremanetan, autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko, legean aurreikusitakoaren arabera, eta legean identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- 415c) Ezkontzeko eskubidea, eta, dibortziatzeko, hala badagokio.
- 415d) Haien arteko gatazkez arduratuko den epailea aukeratzeko eskubidea.

- 416** **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 39. artikulua-
ren arabera, zer da interneteko ataria?:**
- 416a) Herritarrak informazioa eskatzeko eta edozein organo publikorengandik hura jasotzeko leku birtuala.
 - 416b) Administrazio publikoak bere zerbitzu eta prestazio guztiak eskaintzen dituen *on line* gu-
nea.
 - 416c) Herritarrentzat interesgarria den informazioa argitaratzeko administrazio publiko, era-
kunde publiko edo zuzenbide publikoko entitate batek erabiltzen duen kokapen fisiko eta
birtuala.
 - 416d) Irispide-puntu elektronikoa bat da, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten
edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasuneko, interneten bidez irispidea ema-
ten duena argitaratutako informazioa eta, hala denean, dagokion egoitza elektronikora.
- 417** **Herritarrek administrazio publikoekin administrazioaren irispide-puntu elektronikoa orokor
baten bitartez komunikatzeko duten eskubideak, zertara behartzen du administrazioa?:**
- 417a) Dagozkion bitarteko elektronikoak multzoka antolatzea behartzen du administrazioa, ber-
matzeko pertsonak erabil ditzaketela bitarteko horiek eta administrazioarekin harreman-
tan jar daitezkeela tresna elektronikoa horren bidez, zertan jakin beharrik izan gabe zein or-
gano zehatzi dagokion, kasuan kasu, eskumena baliatzea.
 - 417b) Herritar orok, bere etxean, administrazioarekin komunikazio telematikoa erraztuko dion
ekipo informatikoa duela bermatzen.
 - 417c) Eskubide horrek ez du administrazioa ezertara behartzen, ahalmenak baino ez dizkio
ematen.
 - 417d) Administrazio orok bere funtzionarioei eta langileei ekipamendu informatikoa egokia ema-
ten diela bermatzen.
- 418** **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea-
ren 14. artikulua arabera, nor dago behartuta administrazioarekin harreman elektroni-
koa izatera?:**
- 418a) Besteak beste, ondare-masak, nortasun juridikorik gabeko entitateak, notarioak, jabetza-
erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
 - 418b) Besteak beste, pertsona juridikoak eta administrazioarekiko harremanak elektronikoki izate-
ra behartuta dauden interesdunen ordezkariak.
 - 418c) Pertsona fisikoak bakarrik.
 - 418d) Nortasun juridikorik gabeko entitateak bakarrik.
- 419** **Zein artikulutan xedatzen du Espainiako Konstituzioak hizkuntza-koofizialtasuna?:**
- 419a) 18. artikuluan, eta hizkuntza koofizialen ezagutza autonomia-erkidego guztietan ezartzen du.
 - 419b) 3. artikuluan, eta gaztelaniaren nagusitasuna xedatzen du beti.
 - 419c) 3. artikuluan, eta maila berean jartzen ditu gaztelania eta autonomia-estatutu bakoitzak
bere lurraldean ofizialtzat jotzen dituen berezko hizkuntzak.
 - 419d) 3. artikuluan, eta autonomia-erkidegoetako berezko hizkuntzak lehenesten ditu gaztela-
niaren aurretik.
- 420** **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak
xedatzen al du pertsonak beren autonomia-erkidegoko lurraldean hizkuntza ofizialak era-
biltzeko duten eskubidea?:**
- 420a) Bai, berariaz xedatzen du 13.c) artikuluan.
 - 420b) Ez, ez du horri buruzko xedapenik.
 - 420c) Zuzenean, ez, baina autonomia-estatutuetara igortzen du 14.d) artikuluan.
 - 420d) Bai, berariaz xedatzen du 15.e) artikuluan, eta euskara eta katalana aipatzen ditu, hain zuzen.

421 Herritarrek beren autonomia-erkidegoko lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen du:

- 421a) 13.c) artikuluan dago konfiguratuta, jarduera formalizatuan edo prozedurazkoan bermatu behar den eskubide bezala, ez ordea jarduera informalean edo ez formalizatuan.
- 421b) 13.c) artikuluan dago konfiguratuta, jarduera informal edo ez formalizatuan bermatu behar den eskubide bezala, ez ordea jarduera formalizatuan edo prozedurazkoan.
- 421c) 13.c) artikuluan dago konfiguratuta, jarduera formalizatuan edo ez prozedurazkoan baino bermatu behar ez den eskubide bezala.
- 421d) 13.c) artikuluan dago konfiguratuta, jarduera formalizatuan edo prozedurazkoan ez ezik jarduera informalean edo ez-formalizatuan ere bermatu behar den eskubide bezala.

422 Euskadiren esparruan, zein arautan xedatzen da euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango dela Euskadin, gaztelania bezala?:

- 422a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 19. artikuluan.
- 422b) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren (Lizarrako Estatutua) abenduaren 18ko 2/1979 Lege Organikoaren 9. artikuluan.
- 422c) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren (Gernikako Estatutua) abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6. artikuluan.
- 422d) Espainian euskararen eta beste hizkuntza minoritario batzuen erabilerari buruzko 8/1982 Legearen 19. artikuluan.

423 Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea:

- 423a) Herritar guztiei aitortzen zaie, autonomia-erkidegoaren lurraldean, Administrazio Publiko-arekiko harremanetan euskara bakarrik erabiltzeko eskubidea dutela.
- 423b) Pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, beti gaztelania erabiliko dela ezartzen du.
- 423c) Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 epaia dela eta berrikusi zen; epai horrek Konstituzioaren aurkakotzat jo baitzituen haren zenbait agindu.
- 423d) Herritar guztiei aitortzen zaie, autonomia-erkidegoaren lurraldean, Administrazio Publiko-arekiko harremanetan gaztelania bakarrik erabiltzeko eskubidea dutela.

424 Zein legetan jasotzen da herritarren irispidea artxibo eta erregistro administratiboetara?:

- 424a) Espainiako Konstituzioak arautzen du, 105. artikuluan, inolako mugarik gabe.
- 424b) Espainiako Konstituzioan ez da halakorik aurreikusten.
- 424c) Espainiako Konstituzioak agintzen du 105. artikuluan, lege administratibo eta zibilek aurreikusitako mugekin.
- 424d) Espainiako Konstituzioak arautzen du 105. artikuluan, salbu eta estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bitzita pribatuari dagokienez.

425 Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak:

- 425a) Informazio publikorako irispidea aitortzen du, inolako mugarik gabe.
- 425b) Informazio publikorako irispidea arautzen du muga batzuekin; horien artean kanpo-harremanak, prozesu judizialeko aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala nabarmendu behar dira.
- 425c) Informazio publikorako irispidea arautzen du muga batzuekin; horien artean elkartasuna, atzeraeraginik eza eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioa nabarmendu behar dira.
- 425d) Informazio publikoa eskuratzeko, baldintza gisa ezartzen du tokiko tasak eta estatuko zergak ordaintzea.

- 426 Agintari eta enplegatu publikoen aldetik errespetuz eta begirunez tratatuak izateko herritarrek duten eskubideari dagokionez:**
- 426a) Administrazioaren eta administratuen arteko harreman pasiboa harreman irekiago eta langungarriago bat bihurtu nahi du.
 - 426b) Herritarren nahia da, baina ez du lege-oinarririk.
 - 426c) Funtzionario eta enplegatu publikoentzat ez dakar inolako betebeharririk.
 - 426d) Konstituzioaren aurkakotzat jo dute Konstituzio Auzitegiaren hainbat epaik.
- 427 Nola babesten du Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak agintari eta enplegatu publikoen aldetik herritarrek errespetuz eta begirunez tratatuak izateko duten eskubidea?:**
- 427a) Agintari eta enplegatu publikoei aplika dakiekeen diziplina- eta zehapen-araubide baten bidez.
 - 427b) Administratuek tratatu behar duten agintaritza publikoa errefusatzeko duten ahalmenaren bidez.
 - 427c) Herritarren kexa-faltan oinarritutako soldata osatzeko araubide baten bidez.
 - 427d) Nolanahi ere, diziplinazko kaleratzeari buruzko lan-araudia aplikatuz.
- 428 Agintariak, agenteak edo funtzionarioak kalteak eragiten dituztenean delitu-jardueretan:**
- 428a) Ezin da inoiz haien aurkako akzio penalik hasi.
 - 428b) Haien aurkako akzio penala has daiteke, baina betiere administrazioaren aurreko erantzukizun-akzioari uko eginez.
 - 428c) Haien aurkako akzio penala has daiteke, administrazioaren aurreko erantzukizun-akzioa alde batera utzi gabe.
 - 428d) Immunitate jurisdikzional eta administratiboak babesten ditu.
- 429 Sinadura elektronikoa:**
- 429a) Herritarren sinadura arruntarekin ziurtatu behar da, beti.
 - 429b) Administratuak kide anitzeko administrazio-organoeekin dituen harremanetan baino ezin da erabili.
 - 429c) Mekanismo baliagarria da sinatzailea argi eta garbi identifikatzeko; horretaz gainera, sinatutako dokumentuaren osotasuna ziurtatzen du, nahiz eta ez bermatu ez duela izan aldaketarik edo manipulaziorik.
 - 429d) Mekanismo baliagarria da sinatzailea argi eta garbi identifikatzeko; horretaz gainera, sinatutako dokumentuaren osotasuna ziurtatzen du, eta bermatzen du ez duela izan aldaketarik edo manipulaziorik.
- 430 Nola arautzen da datu pertsonalak babesteko eskubidea administrazioaren esparruan?:**
- 430a) Araudi zehatz eta espezifikoa du, gai honen erregulazio orokorretik kanpo dagoena.
 - 430b) Gai honen inguruko araudira jo behar da erabat, eta batez ere, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora.
 - 430c) Euskal Autonomia Erkidegoan erregulazio zehatza du, Euskadiko administrazio publikoen aurrean euskal herritarren datu pertsonalak babesteko 4/2020 Legearen bidez.
 - 430d) Euskadiko Autonomia Estatutuan arautzen da luze eta zabal.
- 431 Herritarren eskubideak administrazio publikoekiko harremanetan:**
- 431a) Etorkizunean, lege sektorialen bidez aurreikusi eta ezar daitezke.
 - 431b) Indarrean dauden legeetan xedatutakoak dira, eta etorkizuneko legeek ezin dute gai hori arautu.
 - 431c) Espainiako Konstituzioak eta indarrean dauden legeetan xedatutakoa dira, eta etorkizuneko legeek ezin dute gai hori arautu.
 - 431d) Xedaezinak dira, eta herritarrek beti baliatu behar dituzte.

25. gaia

432 Herritarren eta administrazio publikoaren arteko harreman-ereduaren bilakaeran:

- 432a) Herritarrek beti parte hartu izan dute administrazio-gaietan.
- 432b) Denborarekin, efikazia-eta efizientzia-irizpideak garatu dira administrazio publikoaren barruan.
- 432c) Nabarmentzekoa da herritarren esku-hartzea gero eta txikiagoa dela.
- 432d) Elementu bereizgarria izan da administrazio publikoaren jarduketa mugagabea eta arautu gabea.

433 Administrazio elektronikoak:

- 433a) Efikazia eta efizientzia irabaztea dakar, zerbitzuak herritarrentzako balio-ekarle izatera bideratu baitaitezke.
- 433b) Administrazio Publikoarentzat efikazia eta efizientzia galtzea dakar, herritarrentzako arretan berehalakotasuna galtzen baita.
- 433c) Herritarrei arreta eskasa emateko arriskua dakar.
- 433d) Administrazioaren esparruan nazioarteko merkataritza-araudia aplikatzea eskatzen du, horrek dakarren arau-intrusioarekin.

434 Administrazio-informazioa:

- 434a) Administratuaren eginbearra da, funtsezkoa gainerako eginbeharrak betetzeko.
- 434b) Nolanahi ere, horretarako legitimazioa egiaztatu behar da.
- 434c) Bide egokia da herritarrek beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabiltzeko.
- 434d) Ezin zaio inoiz talde bati eskaini.

435 Herritarren arreta:

- 435a) Bi bezerok aldi berean erreklamatzeko dutenean, funtzionarioak edo enplegatu publikoak erabateko lehentasuna eman behar dio lehenbizi iritsi ez denari.
- 435b) Bezero kontzeptuarekin, otsailaren 9ko 214/2020 Errege Dekretuan arautzen da, eta, besteak beste, pertsonen harrera barne hartzen du.
- 435c) Eredu normalizatuak erabiltzeak informazio-funtzioa errazten du.
- 435d) Bi bezerok aldi berean erreklamatzeko dutenean, funtzionarioak edo enplegatu publikoak erabateko lehentasuna eman behar dio telefonoz deitzen duenari.

436 Jendearen arretarako kanalei dagokienez:

- 436a) Printzipio hauek bete behar dituzte, besteak beste: herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea eta sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.
- 436b) Ahalik eta gutxien izan behar dute, beren eginkizuna beteko dutela bermatzeko.
- 436c) Ez dute herritarren parte-hartzea sustatu behar administrazio publikoaren ingurunean.
- 436d) 38/2020 Legean daude araututa eta telematikoki baino ezin dira ezarri.

437 Herritarren kexak eta erreklamazioak administrazioaren jardunaren aurrean:

- 437a) Herritarren betebeharrak gisa eratzten dira beti.
- 437b) Administrazioak kontratua ez betetzeagatik baino ezin dira jarri.
- 437c) Administrazioaren jarduna hobetzeko aukera gisa hartu behar dira.
- 437d) Inoiz ez dute eragiten administrazioa hobetzeko prozedurak ezartzea.

438 Administrazioaren jardunaren aurkako kexa edo erreklamazio baten aurrean:

- 438a) Garrantzitsua da zergatia zein den jakitea.
- 438b) Funtzionarioak edo enplegatu publikoak jarrera pasiboa izan behar du, ez du interesik agertu behar.
- 438c) Ez da hain garrantzitsua diagnostiko on bat egitea jarrera pasibo bati eustea baino.
- 438d) Funtzionarioak edo enplegatu publikoak ez du ikertu behar kexaren arrazoia eta larritasuna.

439 Administrazioaren jardunari buruz herritarrek egiten dituzten kexei eta erreklamazioei aurre egiteko orduan, zer egin behar da?:

- 439a) Garrantzitsua da, beti, administrazioaren alde aurreko jardura defendatzea, eztabaidatuz eta erreklamatzailari aurre eginez.
- 439b) Garrantzitsua da beste pertsona batzuei errua egozte, herritarren aurrean zuzeneko arduraduna bilatuz.
- 439c) Normala da nerbioak eta formak galtzea, herritar batzuekin ez dago beste aukerarik.
- 439d) Garrantzitsua da bezeroari labur erantzutea; eskatzen dituen azalpenak baino gehiago ez zaizkio eman behar, gehiegizko informazioak gatazka-egoera berriak eragin baititzake.

440 Desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna:

- 440a) Administrazioak herritarrekin dituen kanal guztietan bermatu beharko da, eta, beraz, harreman horietan diskriminaziorik ez egotea ere bermatu beharko da.
- 440b) Estatuko Administrazioarekiko harremanei dagokienez, martxoaren 17ko 366/2017 Errege Dekretuan arautzen da.
- 440c) Ez du arreta-postuen konfigurazioa baldintzatzen.
- 440d) Herritarren Arretarako Bulegoen kokalekuan baino ez da oinarritzen.

441 Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeari dagokionez:

- 441a) Herritarren arreta-guneen kokalekuak ez dauka hainbeste garrantzirik.
- 441b) Informazioa ez da zertan egon hiru zentzumen-modalitateetako bitan (ikusmenekoa, entzumenekoa eta ukimenekoa).
- 441c) Mostradoreen eta informazio-puntuaren altuerak egokia izan behar du erabiltzaile mota guztiei harrera egiteko.
- 441d) Ez da ezinbestekoa herritarren arretarako bulegoek higie- eta osasun-eremu irisgarria gaituta izatea.

442 Irisgarritasun kognitiboari dagokionez:

- 442a) Administrazio publikoak kolektibo desberdinen beharren arabera prestatu behar ditu zerbitzua ematen duten pertsonak, eta behar espezifiko horietara egokitu behar du pertsona horien jarduna.
- 442b) Ez dio garrantzirik ematen irakurketa errazari, eta bigarren mailako elementu txikitzat hartzen du.
- 442c) Ez du eskatzen irakurtzeko eta idazteko arazoak dituzten pertsona guztien gaitasunetara egokitzea.
- 442d) Administrazio publikoak hizkuntza konplexua eta zeharkakoa erabili behar du.

443 Irisgarritasun kognitiboa deritzona betetzeko, zer egin behar da?:

- 443a) Garrantzitsua da hizkuntza sinplea eta zuzena erabiltzea, testua modu argi eta koherentean egituratuz.
- 443b) Garrantzitsua da administrazioarekin komunikazio telematikoa izatea beti.
- 443c) Ez dira teknizismoak saihestu behar.
- 443d) Hizkuntza konplexua, teknikoa eta zeharkakoa erabili behar da, esaldi luzeekin.

444 Irisgarritasun kognitiboari dagokionez:

- 444a) Irakurketa errazean oinarritzen da soilik, testuak eta informazioak ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat errazak eta ulergarriak izan daitezen egokitzeko tresna gisa.
- 444b) Hainbat irtenbide eskatzen ditu, eta lotuta daude, besteak beste, eraikinen eta zerbitzuen seinaleztapena, orientazioa eta kokapena hobetzearekin.
- 444c) Behar espezifikoak dituzten pertsonen zerbitzua ematen dieten pertsonen prestakuntzarik ez du eskatzen.
- 444d) Administrazioaren espazio fisikoei bakarrik egiten die erreferentzia, ez bitarteko elektronikoi.

445 Migrazio-mugimenduari dagokionez:

- 445a) Kulturarteko bihurtzen ditu gizarte guztiak, eta administrazioan zerbitzua ematen duen pertsonari zein bezeroari eragiten dio.
- 445b) Administrazioaren jardura baldintzatzen ez duen faktore bat da.
- 445c) Ez du eskatzen administrazio publikoak rol garrantzitsurik izatea integrazio-prozesuan.
- 445d) Administrazio publikoak ez du inolako egokitzapenik egin behar.

446 Administrazio publikoaren kulturarteko arretaren funtsezko printzipioen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- 446a) Bezeroaren tratamendu abstraktua eta orokorra, bezeroaren berezitasunak eta premiak ulertzen hasi gabe.
- 446b) Beste alderdia eta haren desberdintasunak eta ezaugarriak errespetatzea eta aitortzea, eta pertsonen autonomia sustatzea.
- 446c) Bezeroarekiko eta haren desberdintasunekiko eta ezaugarriekiko interesik eza.
- 446d) Atzeraeraginik ezaren printzipioa, ohitura eta tokiko eta estatuko usadioak betetzea.

447 Boterearen pertzepzioa:

- 447a) Kultura-aniztasunaren elementu bat da, administrazio publikoa botere-elementutzat har baitzakete beste kultura batzuetako pertsonak.
- 447b) Berdina da kultura guztietan, eta, beraz, ez du inolako eraginik kultura-aniztasunean.
- 447c) Administrazio publikoaren kulturarteko arretan alde batera utzi beharreko elementua da beti.
- 447d) Berdin dio administrazioarentzat, eta ez du kontuan hartu behar beste kultura batzuetatik datozen herritarrei arreta emateko orduan.

448 Administrazio publikoak nori eman behar dio tratu inklusiboa, ulerkorra eta integratzailea?:

- 448a) Bereziki nazionaleri eman behar zaie.
- 448b) Nazionaleri bakarrik eman behar zaie.
- 448c) Administrazio publikoaren zerbitzuen erabiltzaile guztiei eman behar zaie. Aldi berean, printzipio horien funtsezko elementua kultura desberdinetako pertsonenganako jarrera positiboa da.
- 448d) Beste herrialde batzuetako herritarrei baino ez zaie eman behar.

449 Pertsonak bizikidetzaren esparru batean berdinak direlako pertzepzioari dagokionez:

- 449a) Funtsezkoa da administrazio publikoak kulturarteko arreta egokia eman dezan.
- 449b) Ez du zerikusirik administrazioaren jarduerarekin, hark nazionalak baino ez baititu babestu behar.
- 449c) Toki-administrazioei baino ez die eragiten.
- 449d) Administrazio zentralari baino ez dio eragiten.

450 Beste alderdia eta haren desberdintasunak eta ezaugarriak errespetatzea eta aitortzea:

- 450a) Oro har, herritarrei eska dakieke, baina ez administrazio publikoari.
- 450b) Administrazio periferikoko enplegatu eta funtzionario publikoei baino ezin zaie eskatu.
- 450c) Administrazio publikoaren kulturarteko arretaren funtsezko printzipioetako bat da.
- 450d) Administrazio publikoaren laguntza-jarduketan alde batera utzi beharreko elementuetako bat da.

26. gaia

451 Komunikazioa:

- 451a) Faktore baketsua da herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan.
- 451b) Garrantzirik gabeko faktorea da herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan.
- 451c) Faktore erabakigarria da herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan.
- 451d) Faktore hutsala da herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan.

452 Komunikazioaren igorlea mezua kodetzen duena dela esaten dugunean, zer esan nahi dugu?:

- 452a) Komunikazioa noiz amaitu erabakitzen duela.
- 452b) Komeni diren zeinu eta kodeak aukeratzen dituela.
- 452c) Mezua jasotzen duela.
- 452d) Mezua deskodetzen duela.

453 Komunikazio-prozesuaren testuinguruan:

- 453a) Askotariko faktoreak sartzen dira, hala nola emozionalak, sozialak eta zirkunstantzialak.
- 453b) Ez dago elementu baldintzatzailerik.
- 453c) Espazio fisikoak ez du garrantzirik.
- 453d) Testuinguru sozialak ez du inolako garrantzirik.

454 Hitzeko komunikazioa:

- 454a) Ahozkoa baino ezin da izan.
- 454b) Idatzia baino ezin da izan.
- 454c) Hiru kategoriatan banatzen da: ahozko komunikazioa, idatzizko komunikazioa eta komunikazio sentsoriala.
- 454d) Bi kategoriatan banatzen da: ahozko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa.

455 Komunikazioan sor daitezkeen oztipoek komunikazioa ez hain eraginkorra izatea eragiten dute. Askotarikoak izan daitezke oztipo horiek:

- 455a) Pertsonalak, kulturalak, nazionalak, portukoak eta sintaktikoak.
- 455b) Pertsonalak, bizigabeak, sintaktikoak eta erlijiosoak.
- 455c) Pertsonalak, kulturalak, semantikoak eta fisikoak.
- 455d) Pertsonalak, morfologikoak, semantikoak eta sintaktikoak.

456 Idatzizko komunikazioari dagokionez:

- 456a) Beti da ahozkoa baino arinagoa.
- 456b) Igorleak eta hartzaileak idazketaren arauak ezagutzea eskatzen du.
- 456c) Hizkuntza bat baino gehiago jakitea eskatzen du.
- 456d) Hartzailean premiak ezagutzea eskatzen du.

457 Igorleaz, hartzaileaz, mezuaz, kodeaz eta kanalaz gain, idatzizko komunikazioan badira beste faktore gehigarri batzuk beharrezkoak direnak informazioa trukatzeko prozesuak arrakasta izan dezan. Honako hauek dira:

- 457a) Aurkibidea, argumentua eta ondorioak.
- 457b) Gaia eta aurkibidea.
- 457c) Egitura, estiloa eta edukia.
- 457d) Forma, idazketa eta ondorioak.

458 Idatzizko komunikazioan atzeraelikadura ez dela berehalakoa esaten dugunean, zer esan nahi dugu?:

- 458a) Mezuaren igorleak nahi duenean gertatuko dela, ez hartzaileak nahi duenean; horregatik, beti egongo da erantzuna.
- 458b) Mezuaren hartzaileak nahi duenean gertatuko dela, ez igorleak nahi duenean; horregatik, beti egongo da erantzuna.
- 458c) Mezuaren hartzaileak nahi duenean gertatuko dela, ez igorleak nahi duenean; horregatik, batzuetan, gerta daiteke erantzunik ez egotea.
- 458d) Mezuaren igorleak nahi duenean gertatuko dela, ez hartzaileak nahi duenean; horregatik, batzuetan, gerta daiteke erantzunik ez egotea.

459 Webean (pantailan) irakurtzeari dagokionez:

- 459a) Paperean irakurtzea bezala da.
- 459b) Irakurtzeko ohiturak aldatu ditu, pantailako testuak ez baitira paperean bezala irakurtzen.
- 459c) Erosoagoa da beti.
- 459d) Testuak paperezko testuen ereduen arabera idaztea eskatzen du.

460 Testu bat ordenagailuan irakurtzea:

- 460a) Paperean bezala irakurtzen da, abiadura berean.
- 460b) Azkarrago irakurtzen da paperean baino.
- 460c) Motelago irakurtzen da paperean baino.
- 460d) Irakurtzeari dagokionez, ez du inolako berezitasunik paperezko testu batean irakurtzearekin alderatuta.

461 Zeri esaten diogu administrazio-hizkera?:

- 461a) Administrazioak herritarrekin soilik komunikatzeko erabiltzen duen hizkerari.
- 461b) Administrazioak bere langileekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkerari.
- 461c) Administrazioak beste administrazio batzuekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkerari.
- 461d) Administrazioak kanpoko zein barneko harremanetan erabiltzen duen hizkerari.

462 Gaztelaniazko administrazio-hizkeraren ezaugarriak dira honako hauek:

- 462a) Soiltasuna, teknizismorik eta formalismorik eza.
- 462b) Hitz eta joskera errepikakorrak, besteak beste.
- 462c) Naturaltasuna, espontaneotasuna eta teknizismorik eza.
- 462d) Konplexutasunik eza, latinismoak eta esaldi laburrak.

463 Euskarazko administrazio-hizkeraren ezaugarriak dira honako hauek:

- 463a) Soiltasuna, argitasuna eta espontaneotasuna.
- 463b) Gaztelaniazko hizkuntza-kalkoak erabiltzea eta aditzaren forma modernoak erabiltzea, besteak beste.
- 463c) Pasiboaren eta subjuntiboaren egiturak ez erabiltzea.
- 463d) Egitura pasiboak eta subjuntiboak gehiegi erabiltzea, besteak beste.

464 Zerk eragiten du lengoaiaren eta hizkuntzaren erabilera sexista?:

- 464a) Egungo ikaskuntza-ereduek bakar-bakarrik.
- 464b) Kultura eta gizarte sexista eta androzentriko batean bizi izateak.
- 464c) Gizarte moderno eta garatu batean bizi izateak.
- 464d) Gizarte global eta berdinak batean bizi izateak.

465 Hizkuntza behar bezala ez erabiltzeko arrazoia den aldetik, zer da sexismoa?:

- 465a) Singularreko hirugarren pertsonaren erabilera sustatzea.
- 465b) Gizonei eta emakumeei beren sexuaren arabera antzeko balio, gaitasun eta rolak esleitzea.
- 465c) Gizonei eta emakumeei beren sexuaren arabera balio, gaitasun eta rol desberdinak esleitzea.
- 465d) Gizonei eta emakumeei berdintasunezko tratua ematea.

466 Administrazio-jarduerak izaera dokumentala duela diogunean, zer esan nahi dugu?:

- 466a) Dokumentuak aurretik eskatuta soilik eskaintzen dituela zerbitzuak.
- 466b) Dokumentuak direla administrazio publikoaren egintzak gauzatzeko euskarria.
- 466c) Notarioak abalaturako dokumentu publiko ofizialen bidez soilik erlazionatzen direla administrazio publikoak.
- 466d) Administrazioarekiko epaiketetan dokumentu bidezko frogak baino ezin direla erabili.

467 Xedea kontuan hartuta, nola sailkatzen dira administrazio-dokumentuak?:

- 467a) Apelazio-, ebazpen-, egiaztatze- eta ziurtatze-dokumentuak.
- 467b) Erabaki-, transmisio, ziurtatze- eta judizio-dokumentuak.
- 467c) Ebazpen-, aurkaratze-, trantsizio- eta judizio-dokumentuak.
- 467d) Apelazio-, ebazpen-, inpugnazio eta judizio-dokumentuak.

468 Ofizioa, administrazio-dokumentua den aldetik, noiz erabiltzen da?:

- 468a) Enplegu publikoaren eskaintza egiteko, normalean.
- 468b) Administrazio-unitateen eta -hornitzaileen arteko komunikazioetarako, normalean.
- 468c) Administrazio-unitateen eta -organoen arteko komunikazioetarako, normalean.
- 468d) Administrazio-organoen eta legegintza-organoen arteko komunikazioetarako, normalean.

469 Posta elektronikoaren ortotipografiari dagokionez:

- 469a) Letra larriak erabili behar dira testu osoan, haren garrantzia azpimarratzen baitute.
- 469b) Letra larriak erabili behar dira testu osoan, legitimitatea eta autoritatea adierazten baitute.
- 469c) Ez dira letra larriak erabili behar, haserrea iradokitzen eta irakurketa zailtzen baitute.
- 469d) Ez dira letra larriak erabili behar, irakurlea nekatu egiten baitute.

27. gaia

470 Zer da aurrez aurrekoa ez den komunikazioa?:

- 470a) Administratuaren letradua bertan izan gabe gertatzen dena.
- 470b) Solaskideak bananduta daudenean.
- 470c) Administrazioaren letradua bertan izan gabe gertatzen dena.
- 470d) Administrazioaren edo administratuaren letradua bertan izan gabe gertatzen dena.

471 Ahozko komunikazioaren ezaugarriak dira honako hauek:

- 471a) Izaera iraunkorra, homogenea eta noranzko bikoia, besteak beste.
- 471b) Noranzko bikoia, formaltasuna eta konplexutasuna, besteak beste.
- 471c) Aldebakartasuna, formaltasuna eta konplexutasuna, besteak beste.
- 471d) Izaera iragankorra, denbora errealean gertatzen da eta noranzko bikoia da, besteak beste.

472 Ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktiko egokiak dira, besteak beste, honako hauek:

- 472a) Sintaxi konplexua erabiltzea eta adibiderik ez.
- 472b) Sintaxi sinplea eta adibideak erabiltzea.
- 472c) Lehenestea ezezko esaldiak, baiezkoen gainetik.
- 472d) Lehenestea galderazko esaldiak, ezezkoen gainetik.

473 Ahozko edo idatzizko testuinguru batean:

- 473a) Modu berean komunikatu behar dugu.
- 473b) Ezin dugu modu berean komunikatu.
- 473c) Bezeroei eskaintzen diegun denbora bereizten dugu.
- 473d) Ez dugu bereizten bezeroei eskaintzen diegun denbora.

474 Idatzizko komunikazioan ez bezala, ahozko komunikazioan:

- 474a) Administratua etengabe zalantzan jar daiteke.
- 474b) Inprobisatu egin daiteke, ez dugu zertan eduki itxi bat transmititu.
- 474c) Araua bete gabe utz daiteke, ez baita horren berri jasota geratzen.
- 474d) Ahotsari eta entzuteari buruzko elementuei ez zaie garrantzirik ematen.

475 Zer da proxemika?:

- 475a) Hurbiltasun semantikoa ere esaten zaio, eta hitz egitean pertsonen duten zuzentasuna aztertzen du.
- 475b) Hurbiltasun erlatiboa ere esaten zaio, eta pertsonen arteko tratua aztertzen du.
- 475c) Hurbiltasun espaziala ere esaten zaio, eta pertsonen ahoz komunikatzean duten espazioa eta distantzia aztertzen ditu.
- 475d) Denbora-hurbiltasuna ere esaten zaio, eta komunikazioak gertatzen diren denbora eta uneak aztertzen ditu.

**476 Hizkuntzaren alderdi ez-semantikoak aztertzen dituen diziplinari, hala nola ahotsaren bolu-
mena, isiluneak edo hitz egiteko erritmoa, nola deitzen zaio?:**

- 476a) Proxemikoa.
- 476b) Kinesikoa.
- 476c) Paralinguistikoa.
- 476d) Parasemantikoa.

477 Hitzik gabeko hizkuntzari dagokionez:

- 477a) Ez du inoiz hitzezko mezu baten kontra egiten.
- 477b) Fidagarritasunez eta pentsatu gabe adierazten du komunikatzailearen egoera emozio-
nala.
- 477c) Beti da koherentea hitzezkoarekin.
- 477d) Ez du hitzezko mezua indartzen.

478 Administrazioan, herritarrekin harreman zuzena duten langileek:

- 478a) Ez dituzte ezagutu behar hitzik gabeko komunikazioaren gakoak.
- 478b) Hitzik gabeko komunikazioaren gakoak ezagutu behar dituzte.
- 478c) Ez dituzte saihestu behar hitzik gabeko komunikazioaren mezu negatiboak.
- 478d) Ez dituzte saihestu behar eztarria garbitzea, distrakzioak, asperdura keinuak, eta hitzik ga-
beko komunikazioaren beste mezu negatibo batzuk.

479 Zerk du eragina aurrez aurreko arretan?:

- 479a) Esaten denak bakarrik du eragina.
- 479b) Gauzak nola esaten diren, horrek bakarrik du eragina.
- 479c) Eragina izan dezake bai esaten denak, bai eta esaten ez denak ere.
- 479d) Eragina izan dezake bai pentsatzen denak, bai eta pentsatzen ez denak ere.

480 Zeintzuk dira aurrez aurreko arretaren faseak?:

- 480a) Lau dira: hasierako kontaktua, harrera, beharra kudeatzea eta aurkaratzea.
- 480b) Hiru dira: harrera, beharra identifikatzea eta amaiera.
- 480c) Lau dira: harrera, beharra identifikatzea, beharra kudeatzea eta amaiera.
- 480d) Hiru dira: hasierako kontaktua, beharra kudeatzea eta aurkaratzea.

481 Zer adierazten du gure solaskideari begietara begiratzeak?:

- 481a) Edukazio txarra adierazten du, eta, beraz saihestu egin behar da.
- 481b) Interesa eta arreta.
- 481c) Aginpidea eta zorrotasuna.
- 481d) Lotsa eta interesik eza.

482 Zer da asertibotasuna?:

- 482a) Bezeroaren arretan saihestu beharreko akatsa.
- 482b) Bezeroari behar bezala galdetzeko trebetasuna.
- 482c) Pertsonak pentsatzen, desiratzen edo irizten dutena zuzenean adierazteko duten trebetasuna, besteen iritzia alde batera utzi gabe.
- 482d) Lege egokia aplikatuz gainditzen den akatsa.

483 Entzute aktiboak eta kontzentrazioak zer eskatzen dute?:

- 483a) Gure arreta administrazioan jartzea.
- 483b) Gure arreta publikoarengan, oro har, jartzea, eta administrazio-lana egiteko erabiltzen den ordenagailuan.
- 483c) Herritarrarengan jartzea gure arreta, eta ez ilaran, ordularian, ordenagailuan edo lankidearengan.
- 483d) Zuzendaritza-organoan jartzea beti gure arreta.

484 Nola deitzen zaio jasotako kritikak ekarpen positibo gisa eta hobekuntza profesionaleko elementu gisa onartzen eta bideratzen laguntzen digun nolakotasunari?:

- 484a) Funtsezkotasuna.
- 484b) Asertibotasuna.
- 484c) Sinkretismoa.
- 484d) Silogismoa.

485 Telefono bidezko komunikazioa:

- 485a) Administrazioaren eremuan gutxi erabilitako komunikazio-modua da.
- 485b) Administrazioaren zerbitzu orokorretan gutxi erabiltzen da.
- 485c) Administrazioaren esparruan izaten den komunikazio-modu garrantzitsuenetako bat da.
- 485d) Ez dira aldatzen ari beste komunikazio-bide batzuk, posta elektronikoak, esaterako.

486 Telefono bidezko komunikazioa:

- 486a) Bitarteko bidezkoa da; beraz, ez da trebetasun berezirik behar administrazioko enplegatuaren edo funtzionario publikoaren aldetik.
- 486b) Berehalakoa da; beraz, mezua ez ezik, mezua komunikatzeko modua eta, batez ere, ahots-tonua ere funtsezkoak dira.
- 486c) Berehalakoa da, eta, horregatik, ahotsaz gain, hainbat kanal erabil daitezke.
- 486d) Bitarteko bidezkoa da, kanal bakarra erabiltzen badugu ere: ahotsa.

487 Zeintzuk dira telefono bidezko arretaren faseak?:

- 487a) Bost dira: aurkezpena, mezua entzutea, bezeroari galdetzea, bezeroari argibideak ematea eta azken inkesta.
- 487b) Lau dira: aurkezpena, mezua entzutea eta beharra identifikatzea, erantzuna eta agurra eta amaiera.
- 487c) Lau dira: bezeroaren hautaketa, aurkezpena, agurra eta amaiera.
- 487d) Bost dira: bezeroaren aurkezpena, administrazioko langilearen edo funtzionario publikoaren aurkezpena, bien arteko agurra, amaiera eta ebaluazioa.

28. gaia

488 Dokumentuak identifikatzeko eta haien edukiaren eta kokalekuaren berri emateko balio duen tresna, zein da?:

- 488a) Aurkibidea.
- 488b) Katalogoa.
- 488c) Tesauroak.
- 488d) Signatura.

489 Zein da liburutegi entziklopedikoen ezaugarria?:

- 489a) Bere funtsen eta erabiltzaileen izaera orokorra.
- 489b) Ikerketara bideratuta egotea sarri.
- 489c) Pribatuak izatea edo erakunde publiko edo elkarte baten sostengua izatea.
- 489d) Bere funtsen eta erabiltzaileen izaera espezializatua.

490 Non aurki daiteke sarriago «literatura grisa» delakoa?:

- 490a) Talde berezientzako liburutegietan.
- 490b) Liburutegi nazionaletan.
- 490c) Dokumentazio-zentroetan.
- 490d) Liburutegi publikoetan.

491 Dokumentu baten edukiaren analisiaren edo barne-analisiaren oinarritzko eragiketen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?:

- 491a) Sailkapena.
- 491b) Katalogazioa.
- 491c) Laburpenak egitea.
- 491d) Indexazioa.

492 Zein da dokumentuak sailkatzeko lengoia hedatuenetako bat?:

- 492a) ISBD.
- 492b) MARC21.
- 492c) Tesaurus.
- 492d) SHU.

- 493 Nazioarteko Deskribapen Bibliografiko Normalizatuak (ISBD) nazioarteko arau batzuk biltzen ditu jaso beharreko datuen formari eta edukiari buruz. Non jaso behar dira, hain zuzen?:**
- 493a) Dokumentu baten deskribapen bibliografikoan.
 - 493b) Dokumentu bat indexatzean edo irispide-puntuak zehaztean.
 - 493c) Dokumentu baten signatura topografikoan.
 - 493d) Dokumentu bat erregistratzean.
- 494 Dokumentu baten barne-analisia edo edukiaren analisia egiteko garaian, oso zabaldua dago Saillapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) erabilera. Zer da, ordea?:**
- 494a) Dokumentuak sailkatzeko lengoaia, deskriptoreetan edo gai-terminoetan oinarrituta.
 - 494b) Katalogazio-estandarren multzoa.
 - 494c) Dokumentuak indexatzeko lengoaia, gako-hitzen zerrendetan oinarrituta.
 - 494d) Dokumentuak sailkatzeko lengoaia, zenbaki-kodeetan oinarrituta.
- 495 Informazioa biltegitatu eta berreskuratzean, bai eta liburutegietako sistema automatizatuaren artean informazio bibliografikoa trukatu eta komunikatzean ere, MARCek zeregin garantzitsua izan du. Izan ere:**
- 495a) Liburutegiak kudeatzeko sistema integratua da.
 - 495b) Informazioa kodetzeko aukera ematen duen formatua da.
 - 495c) Softwarea da.
 - 495d) Katalogazio-estandar bat da.
- 496 Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, udal liburutegi publikoek gain beste hauek ere izan daitezke Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kide (adierazi erantzun OKERRA):**
- 496a) Irakurketa publikoko sarean integartzeko hitzarmenen bidez, beren liburutegi-zerbitzuak herritar guztien eskura jartzen dituzten liburutegi pribatuak.
 - 496b) Ikastetxe publikoetako liburutegiak.
 - 496c) Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik dauden erabilera publiko orokorreko liburutegiak.
 - 496d) Kasuan kasuko hitzarmenen bidez irakurketa publikoko sarean beren borondatez sartzten diren foru-liburutegiak.
- 497 Liburutegi espezializatueta eta dokumentazio-zentroetan, dokumentuak eskuratzeko edo garbitzeko erabiltzen dituzten irizpideen artean, zein nabarmentzen da?:**
- 497a) Dokumentuaren narriadura-maila.
 - 497b) Aurrekontu erabilgarria.
 - 497c) Erabiltzaileen iradokizunak.
 - 497d) Dokumentua zaharkituta geratzea.
- 498 Liburutegi eta dokumentazio-zentro gehienek LKSlak erabiltzen dituzte tresna informatiko gisa. Izan ere, honako hau ahalbidetzen dute:**
- 498a) Liburutegietako funtzio desberdinen kudeaketa automatizatzea.
 - 498b) Eduki digitalen irakurketa.
 - 498c) Datuak automatizatzea eta berreskuratu edo trukatu ahal izatea.
 - 498d) Identifikazio bibliografikoaren normalizazioa.

- 499 Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, Euskadiko Liburutegi Sistema osatzen dute liburutegi hauek (adierazi erantzun OKERRA):**
- 499a) Irakurketa publikoko sarea.
 - 499b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendekoak izan arren, irakurketa publikoko sarean sartuta ez dauden liburutegiak.
 - 499c) Liburutegi espezializatuak eta irakurketa publikoko sarean sartuta ez dauden gainerako liburutegiak.
 - 499d) Euskadiko Liburutegia.
- 500 Dokumentu bat liburutegi batera iristen denean, jaso edo errezibitu egiten da, eta hainbat lan egiten da (adierazi erantzun OKERRA):**
- 500a) Espurgoa.
 - 500b) Zigilatzea.
 - 500c) Erregistratzea.
 - 500d) Lapurreten aurkakoak jartzea.
- 501 Liburutegi bateko dokumentu bakoitzaren signaturari dagokionez (adierazi baieztapen OKERRA):**
- 501a) Dokumentua apaletan aurkitzeko aukera ematen du.
 - 501b) Txaplatan edo bizkar-etiketan jasotzen da.
 - 501c) Irispide libreko funtsetan bat dator SHUrekin.
 - 501d) Deskriptoreetan edo «gako-hitzetan» oinarritutako lengoaia dokumentala erabiltzen du.
- 502 Liburutegi-partzuergoak sortzeko funtsezko arrazoen artean, honako premia hau dago berziki:**
- 502a) Liburutegien arteko maileguak arintzea.
 - 502b) Funtsak elkarrekin eskuratzea eta hornitzaile eta argitaletxeekin batera negoziatzea.
 - 502c) Zuzeneko manipulaziotik babestu nahi diren funtsak digitalizatzea.
 - 502d) Liburutegietan eta dokumentazio-zentroetan eskaintzen diren zerbitzuak gehitzea.

29. gaia

503 Lege organikoak dira:

- 503a) Gai garrantzitsuak arautzen dituztenak.
- 503b) Konstituzio-organoei buruzkoak.
- 503c) Konstituzioak aurrez finkatutako zenbait gai arautzen dituztenak.
- 503d) Kongresuaren eta Senatuaren gehiengo osoz onartzen direnak.

504 Lege organikoek dagokienez:

- 504a) Ez dute onartzeko prozedura berezirik.
- 504b) Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legegileek onartzen dituzte, baina prozedura berezi bat jarraituz.
- 504c) Estatuko legegileek baino ezin dituzte egin.
- 504d) Lege arruntetatik bereizten dira, Kongresuaren eta Senatuaren gehiengo osoz onartzen baitira.

505 Nork baliogabetu dezake Konstituzioaren arabera ez den lege bat?:

- 505a) Konstituzio Auzitegiak bakarrik.
- 505b) Epailak eta auzitegiak.
- 505c) Herriaren ordezkariaren araugintza denez, lege bat ezin da judizialki kontrolatu, Legebiltzarrak bakarrik.
- 505d) Konstituzio Auzitegiak eta Giza Eskubideen Auzitegiak.

506 Lege-erreserba dela eta, zein da baieztapen zuzena?:

- 506a) Konstituzioaren arabera, gai batzuk lege eta beste batzuk erregelamendu bidez arautu behar dira.
- 506b) Erregelamendu-erreserba legearekin eta Konstituzioarekin bat badator bakarrik egin daiteke.
- 506c) Lege-erreserba berme konstituzionala da gai jakin batzuen erregulazioa lege egin dadin nahitaez.
- 506d) Lege-erreserbak erabat baztertzen du gai baten erregulazioan erregelamenduzko edozein garapen.

507 Legea arau-kategoria bat da, eta:

- 507a) Ez dago beste arau baten mende.
- 507b) Zuzeneko legitimitate demokratikoa du.
- 507c) Konstituzioaren aginduen garapen hutsa da.
- 507d) Konstituzioak baino maila txikiagoa du, baina gainerako arau-kategoria guztiak baino indar eta maila handiagoa, lege-dekretua eta legegintzako dekretua barne.

508 Autonomia erkidegoetako legeei dagokienez:

- 508a) Ez dute estatuko legeen maila eta indar bera.
- 508b) Lege arruntak eta lege organikoak izan daitezke, Espainiako Parlamentuko legeak bezala.
- 508c) Dagokion autonomia-erkidegoko Auzitegi Nagusiak kontrolatzen ditu.
- 508d) Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeek maila eta indar bera izango dute, nahiz eta batzuek eta besteek Konstituzioak eta autonomia-estatutuek zehaztutako gaien barruan jardun.

509 Lege organiko bidez arautu beharreko gaiak:

- 509a) Konstituzioak zerrenda ireki bat egiten du.
- 509b) Lege organiko bidez arautu behar dira I. tituluko eskubide guztiak.
- 509c) Autonomia-estatutuak lege organiko bidez onartu behar dira.
- 509d) Legegileak aukera dezake zer gai arautu lege arrunten bidez eta zein lege organikoen bidez.

510 Konstituzioaren arabera, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?:

- 510a) Gorte Nagusiek Gobernuari eskuorde diezaiokete lege-mailako arauak emateko ahalmena, eskuordetze-lege baten bidez.
- 510b) Gorte Nagusiek Gobernuari eskuorde diezaiokete lege-mailako arauak emateko ahalmena, baina ez edozein gaitan.
- 510c) Konstituzioaren arabera, badira beste zenbait arau, nahiz eta ez izan zentzu hertsian legeak (Gorte Nagusiek eginak), legeen maila eta indar bera dutenak.
- 510d) EK-ren 82. artikulua aukera ematen die Gorteei, eskuordetze-lege baten bidez, lege-indarreko arau bat emateko ahalmena Gobernuari esleitzeko, lege-dekretu deritzona.

511 Legegintza-eskuordetzaren ezaugarri hauetatik, zein da OKERRA?:

- 511a) Legegintza-eskuordetze emango zaio Gobernuari hura baliatzeko epea jarrita.
- 511b) Konstituzioak debekatu egiten du legegintza-eskuordetze lege organikoari erreserbatutako gaiei buruzkoa izatea.
- 511c) Eskuordetzak espresua behar du izan, nahiz eta eskuordetze inplizituak egitea onar daitezkeen, baina ez denbora mugagaberako.
- 511d) Eskuordetze behin bakarrik baliatzeko ematen da; behin Gobernuak baliatuta, agortu egiten da.

512 Konstituzioaren arabera, nola egingo da testu artikulatu bat eratzeko legegintza-eskuordetze?:

- 512a) Oinarri-lege baten bidez.
- 512b) Lege organiko baten bidez.
- 512c) Eskuordetzaren xedea eta irismena zehatz mugatuko duen legegintzako dekretu baten bidez.
- 512d) Gorteen lege baten bidez; lege horrek ezingo du atzerako eragina duten arauak emateko ahalmenik eman, baina bere aldaketa baimendu ahal izango du.

513 Nork kontrolatzen ditu legegintzako dekretuak?:

- 513a) Gobernuak.
- 513b) Konstituzio Auzitegiak.
- 513c) Parlamentuak baino ezin ditu kontrolatu.
- 513d) Konstituzio Auzitegiak baino ezin ditu kontrolatu, lege-mailako arauak baitira.

514 Konstituzioaren arabera, nolako arauak dira lege-dekretuak?:

- 514a) Lege indarreko arauak dira, Parlamentuak eman ditzakeenak aparteko eta presako beharrezana dagoenean.
- 514b) Lege indarreko arauak dira, Gobernuak eman ditzakeenak aparteko eta presako beharrezana dagoenean.
- 514c) Lege indarreko arauak dira, Gobernuak eman ditzakeenak aparteko eta presako beharrezana dagoenean.
- 514d) Lege indarreko arauak dira, Kongresuak eman ditzakeenak aparteko eta presako beharrezana dagoenean.

515 Konstituzioaren arabera, lege-dekretuei buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:

- 515a) Lege-dekretua promulgatu ondoren sartuko da indarrean eta berehala eztabaidatu eta bozkatu beharko da Diputatuen Kongresuan, promulgatu eta hogeita hamar eguneko epean.
- 515b) Gorteek lege-proiektu gisa izapidetu dezakete lege-dekretua, presazko prozeduraren bidez.
- 515c) Lege-dekretuen jurisdikzio-kontrola Konstituzio Auzitegiak izango du.
- 515d) Konstituzioak ez du aukerarik ematen autonomia-erkidegoetako gobernuek lege-dekretuak onartzeko.

516 Legegintza-dekretuak Gobernuak emandako lege-mailako arauak dira, eta:

- 516a) Kongresuak kontrolatu behar ditu *a posteriori*.
- 516b) Gorteen baimen espresua behar dute.
- 516c) Edozein gairi buruzkoak izan daitezke.
- 516d) Behin-behinekoak dira.

517 Nork kontrolatu behar ditu legegintza-dekretuak eta lege-dekretuak?:

- 517a) Gorteek baino ez.
- 517b) Konstituzio Auzitegiak.
- 517c) Auzitegi arruntek.
- 517d) Kongresuak.

518 Legearekiko duten loturan, erregelamenduei dagokienez:

- 518a) Aurreko lege batean xedatutakoa urratu dezakete.
- 518b) Ezin dira sartu legeari erreserbatutako gaien eremuan, legea garatzeko ez bada.
- 518c) Ondorengo lege batek ezin ditu aldatu.
- 518d) Erregelamenduari erreserbatutako gaiak baino ezin dituzte arautu.

519 Arauen arteko hierarkiaren printzipioaren arabera:

- 519a) Ondorengo arau batek beti alda dezake aurreko beste bat, edozein mailatakoa dela ere.
- 519b) Arauak deusezak dira hierarkian goragoko mailakoak diren arauak xedatutakoa urratzen badute.
- 519c) Arau bat maila behegaroko beste arau batek alda dezake, ezarritako prozedurari jarraituz gero.
- 519d) Lege organikoek lege arruntek baino maila hierarkiko handiagoa dute.

520 Erregelamendu-arau batek goragoko mailako beste erregelamendu-arau bat urratzen badu:

- 520a) Deuseztat joko du auzitegi arrunt eskudunak.
- 520b) Baliogabea izango da, auzitegietan aurkaratu beharrik gabe.
- 520c) Deuseztat joko du Konstituzio Auzitegiak.
- 520d) Erregelamendu-arauek ez dute hierarkia-harremanik elkarren artean.

521 Legezketasun-printzipioaren arabera, administrazioaren jarduna:

- 521a) Konstituzioari eta legeei men eginez egin beharko da, ez erregelamendu-mailako araei men eginez.
- 521b) Kasu zehatz baterako salbuetsi dezake erregelamendu batean oro har ezarritakoa.
- 521c) Ordenamendu juridiko osoaren mende dago.
- 521d) Herritarrek bakarrik bete behar dituzte ordenamendu juridikoaren arau guztiak.

522 Konstituzioak nori ematen dio berariaz erregelamenduak egiteko ahala?:

- 522a) Parlamentuari.
- 522b) Parlamentuari eta Gobernuari.
- 522c) Gobernuari.
- 522d) Gorteei.

523 Nazioarteko tratatuak Espainiako ordenamenduan duten posizioari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?:

- 523a) Nazioarteko tratatuak ez daude Konstituzioaren mende.
- 523b) Nazioarteko tratatuak tratatuetan bertan edo Nazioarteko Zuzenbidearen arau orokorretan aurreikusitako moduan baino ezin dira indargabetu, aldatu edo eten, eta, hortaz, ez legeen bitartez.
- 523c) Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren 2014ko Legearekin bat etorritik, arauen artean gatazkarik sortuz gero, nazioarteko tratatuetan jasotako arauak nagusituko dira ordenamenduko beste edozein arauen aldean, Konstituzioa barne.
- 523d) Tratatuaren eta legearen arteko harremana hierarkia-printzipioak arautzen du soilik, eta, beraz, tratatuak arautzen duena ezin izango du barne-lege batek arautu.

524 Printzipio hauetatik zeini EZ dio men egiten erregelamenduak egiteko ahalak?:

- 524a) Administrazio publikoaren legezketasun-printzipioari.
- 524b) Arbitrariotasuna debekatzeko printzipioari.
- 524c) Erregelamendu-arauen atzeraeraginaren printzipioari.
- 524d) Erregelamenduak bakarrarentzat indargabetu ezinaren printzipioari.

30. gaia

525 Nongo kide dira Gobernuaren ordezkariordeak?:

- 525a) Estatuko Administrazio Orokorraren organo zentraletako kide.
- 525b) Estatuko Administrazio periferikoaren kide.
- 525c) Estatuko Administrazio Orokorraren zuzendaritza-organoetako kide.
- 525d) Estatuko Administrazio Zentralaren organo periferikoetako kide.

526 Administrazio-antolaketari dagokionez:

- 526a) Autonomia-erkidegoek ez dute eskumenik beren administrazioa antolatzeko, eta Estatuak ezarritako irizpideak jarraitu eta aplikatu behar dituzte.
- 526b) Autonomia-erkidegoek eskumena dute bere administrazioa arautzeko, baina Estatuak ezarritako administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriari jarraituz.
- 526c) Autonomia-erkidegoek beren administrazioaren araubide juridikoaren funtsezko elementuak ezar ditzakete.
- 526d) Estatuko administrazio periferikoak ezartzen du autonomia-erkidegoetako administrazioaren araubide juridikoa.

527 Euskal Autonomia Erkidegoaren egungo antolaketa-egitura:

- 527a) Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legean, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen 1/1997 Legegintzako Dekretuan oinarrituta lantzen da.
- 527b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean dago jasota.
- 527c) Autonomia Estatutuan dago zehaztuta.
- 527d) Autonomia Estatutuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean dago araututa.

528 Organo hauetatik, zeinek osatzen du nahitaez udal guztien egitura edo antolaketa?:

- 528a) Alkateordeak.
- 528b) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- 528c) Informazio Batzordeak.
- 528d) Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzordeak.

529 Non dago araututa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako erakundeen antolaketa?:

- 529a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.
- 529b) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean.
- 529c) Lurralde historiko bakoitzeko erakunde-antolaketa buruzko foru-arauan.
- 529d) Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legean.

530 Administrazioek bere burua antolatzeko duten ahala baliatuz hartzen dituzten antolaketa-neurriak dagokienez, (adierazi erantzun OKERRA):

- 530a) Lege-mailako arau juridikoen bidez hartu behar dira nahitaez.
- 530b) Erregelamendu-mailako arauen bidez har daitezke.
- 530c) Ezin dute administrazio-organoak sortzeko edo ezabatzeke ahalmena ekarri, baina bai aldatzeko, betiere organo horien oinarriko egiturari eutsiz.
- 530d) Administrazio-antolaketa neurriak baino ez dira, eta, beraz, ez dira arau juridikoak.

531 Administrazio-organoek hierarkian mendeko dituzten organoen jarduerak zuzentzeko jarraibideak eta zerbitzu-aginduak:

- 531a) Arau juridikoak dira, eta argitaratzen direnetik dituzte ondorioak.
- 531b) Erregelamenduak dira, mendeko administrazio-organoak nahiz herritarrak lotzen dituztenak.
- 531c) Administrazioaren jarduera zuzentzea dute helburu, eta ez antolamendua berritzea.
- 531d) Horiek bete ezik, jarduerak baliogabeak izango dira.

532 Administrazio-organo bati eskumen bat propiotzat esleituz gero:

- 532a) Eskumenari ezin zaio uko egin.
- 532b) Uko egin dakioket behar bezala justifikatuta dagoenean.
- 532c) Administrazio-organo horrek bakarrik erabil dezakeela esan nahi du, eta ez dagoela eskumena eskuordetzeko aukerarik.
- 532d) Gaia dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek baliatzen duen eskumenak ez du esan nahi egindako jarduera administratiboa baliogabea denik.

533 Administrazio Publikoaren hierarkizazioari dagokionez:

- 533a) Eskumenak bertikalean banatzeko aukera ematen du.
- 533b) Eskumenak horizontalean banatzeko aukera ematen du.
- 533c) Administrazio-organoen botereak eta zereginak antolatzeko aukera ematen du, eskumen-irizpidearen arabera.
- 533d) Ez da administrazio-organoak antolatzeko irizpide bat.

534 Honako figura hautetatik, zein EZ dago aurreikusita eskumen propioak baliatzean ukaezintasun-printzipioaren salbuespen edo modulazioa gisa?:

- 534a) Eskumenak eskuordetzea.
- 534b) Abokazioa.
- 534c) Kudeaketa-gomendia.
- 534d) Administrazio-igorpena.

535 Eskumenak eskuordetzan ematea (adierazi baieztapen OKERRA):

- 535a) Eskumenak baliatzeko transmisio-teknika bat da, eta behin-behinekotasuna du ezaugarri.
- 535b) Administrazio-ebazpenak eskuordetza baliatuz ematen direnean, espresuki adierazi behar da hala eman direla, eta organo eskuordetzaileak emandakotzat joko dira.
- 535c) Eduki mugatuko figura da; izan ere, zenbait eskumen ezin dira eskuordetza eman eta azpieskuordetza bakarrik onartzen da premia-irizpidearen arabera justifikatuta dagoenean.
- 535d) Organo eskuordetzaileak eskumenaren titulartasunari eusten dio beti, nahiz eta eskumena egikaritzeko aukera beste organo bati esleitu.

536 Hierarkia-printzipioaren arabera, teknika honen bitartez, goragoko organoek aukera dute beheragoko organoren baten eskumena kasu jakin batean baliatzeko:

- 536a) Abokazioa esaten zaio.
- 536b) Ordezkapena esaten zaio.
- 536c) Kudeaketa-gomendioa esaten zaio.
- 536d) Eskuordetzea esaten zaio.

537 Abokazioa izeneko teknikari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?:

- 537a) Eskuordetzan emandako eskumenen kasuan ezin da abokazioa erabili.
- 537b) Abokazio erabakiak erregelamenduzko arau juridikoaren forma izan behar du.
- 537c) Abokazio erabakia aldizkari ofizialean argitaratu behar da.
- 537d) Abokazio erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik jarri.

538 Kudeaketa-gomendioari dagokionez:

- 538a) Teknika horren bidez, eskumen baten titulartasuna aldatzen da.
- 538b) Ez dio eragiten administrazio-organo bati esleitutako eskumenen titulartasunari edo haiek baliatzeari.
- 538c) Ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea.
- 538d) Lankidetzeta-printzipioa ez, baizik eta hierarkia- eta eskuordetzeta-printzipioen araberrako teknika da.

539 Administrazio publikoetako kide anitzeko organoen deialdiak eta bilkurak arautzeari buruz indarrean dagoen legeria kontuan hartuta, zein da baieztapen okerra?:

- 539a) Organoa behar bezala eratu eta batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, buruak eta idazkariak —edo hala dagokionean ordezkoek— eta organoko kide-kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko dute, aurrez aurre edo urrutitik.
- 539b) Kide anitzeko organoek arau bereziak aurreikus ditzakete bigarren deialdia egiteko, *quoruma* hain zorrotza izan gabe.
- 539c) Ezin da inola ere eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik.
- 539d) Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira. Aurkako botoa ematen badute edo abstenitzen badira, salbuetsita geratuko dira erabakietatik erator daitezkeen erantzukizunetatik.

540 Administrazio publikoetako kide anitzeko organoetako idazkariari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritakoa kontuan hartuta, zein da baieztapen okerra?:

- 540a) Kide anitzeko organoek idazkari bat izango dute, nahitaez kide anitzeko organoko kideetako bat.
- 540b) Kide anitzeko organoen jarduketan legezketasun formala zein materiala zaindu beharko du.
- 540c) Organo horren jarduketak ziurtatu beharko ditu idazkariak.
- 540d) Eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta erregelak errespetatu daitezela bermatuko du idazkariak.

541 Administrazio publikoetako kide anitzeko organoetako buruz indarrean dagoen araudiari dagokionez:

- 541a) Ez du onartzen kide anitzeko organoek beren bilkurak urrutitik eratu eta egin ahal izatea, salbu eta bilera aurrez aurre egiteko zailtasunak badaude, eta zailtasun horiek hori justifikatzen badute.
- 541b) Bilkurak ezin dira grabatu, behar bezala justifikatuta ez badago.
- 541c) Akten edukia arintzen du eta haien onarpena bizkortzen du.
- 541d) Ziurtagiriak bitarteko elektronikoen bidez egiteko aukera ematen du, nahiz eta arau orokorra oraindik paper-euskarrian egitea izan.

542 Administrazio-organoetako pertsonak abstenitzeko arrazoiak daude adierazita legean zenbait inguruabar gertatuz gero. Abstenitzeko beharra betetzen ez bada, zer gertatuko da?:

- 542a) Jarduketak baliogabeak izango dira nahitaez.
- 542b) Jarduketak ez dira nahitaez baliogabeak izango, baina dagokion erantzukizuna ekarriko du.
- 542c) Hierarkian gorago dagoenak ordezkatu egin beharko du ukitua.
- 542d) Hierarkian gorago dagoenak egintza baliogabetzat jo beharko du, eta ukitua ordezkatu.

543 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean aitortutako arrazoietan oinarritutako agintari eta enplegatu publikoen errekusazioari dagokionez:

- 543a) Interesdunek edozein unetan susta dezakete, prozedura izapidetu aurretik edo ondoren.
- 543b) Baliozkoa izateko, nahikoa da legean adierazitako arrazoiaren bat aipatzea.
- 543c) Errekusazioa proposatzen bada, arazo intzidental bat gertatzen da, eta, ohi denaren kontra, eten egiten du espedientearen tramitazioa.
- 543d) Hierarkian gorago dagoenak errekusazioari buruz ematen duen ebazpena izapide-egintza bat denez, ebazpen horren aurka ezin da errekurtso autonomorik jarri.

31. gaia

544 Hauetako zein da administrazio-egintza bat?:

- 544a) Administrazioaren ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioa.
- 544b) Zehapen-ebazpenaren proposamena.
- 544c) Udal-obra bat.
- 544d) Taberna bat irekitzeko lizentzia-eskaera.

545 Hauetatik, zeinek amaitzen du administrazio-bidea?:

- 545a) Gora jotzeko errekurtsua jartzeak.
- 545b) Hierarkian goragoko organoa duen administrazio-organo baten ebazpenak.
- 545c) Ondare-erantzukizuneko prozeduraren ebazpenak.
- 545d) Berraztertze-errekurtsua jartzeak.

546 Izapidezko administrazio-egintzari dagokionez:

- 546a) Ebazpena da beti.
- 546b) Ezin da inoiz modu autonomoan aurkaratu.
- 546c) Ezin du gaiaren funtsa erabaki.
- 546d) Errekurritu egin daiteke, babesgabetasuna eragiten badu.

547 Administrazio-egintzak:

- 547a) Haien edukia ezin da guztiz diskrezionala izan.
- 547b) Haien edukia ezin da guztiz arautua izan, arbitrariotasuna eragingo luketelako.
- 547c) Funtzionario bati hiru urtekoak aitortzen dizkion egintzak eduki arautua zein diskrezionala du.
- 547d) Beti da arautua egintza irmoa denean.

548 Arauan aurreikusitakoaz bestelako helburu batekin ematen bada egintza bat:

- 548a) Egintza zehaztugabea da.
- 548b) Ezinezko edukia duen egintza da.
- 548c) Aginte-desbideratzea eragiten da.
- 548d) Eduki diskrezionala duen egintza da.

549 Hauetako bat EZ da arrazoitu behar:

- 549a) Udal baten ebazpena, auzotar bat zigortzen duena.
- 549b) Administrazio-errekurtso baten ezespena.
- 549c) Pertsona jakin batzuei laguntzak emateko erabakia, non eta ez diren hirugarrenen eskubi-deak edo interesak kaltetzen.
- 549d) Egintza bat eteteko erabakia.

550 Egintza idatziz jasotzea:

- 550a) Ezinbesteko eskakizuna da, ahoz adierazitako egintzak egotea eragozten duena.
- 550b) Ez da beti beharrezkoa.
- 550c) Presuntziozko egintzetan baino ez da onartzen.
- 550d) Salbuetsita geratzen da kide anitzeko organoek emandako ebazpenetarako.

551 Egintzaren efikazia:

- 551a) Beti da atzeraeraginezkoa.
- 551b) Geroratu egingo da goragoko onespeneren mende badago.
- 551c) Inoiz ez da atzeraeraginezkoa.
- 551d) Beti da berehalakoa, ematen den egunetik sortzen ditu ondorioak.

552 Aurkaratutako administrazio-egintza etetea:

- 552a) Arau orokorra da edozein errekurtsio administratibo edo judizialean.
- 552b) Errekurtsioa beti jarri behar da egintzaren deuseztasun-kausa batean oinarrituta.
- 552c) Ez da aplikatzen administrazio-egintza baten errekurtsioa ez den testuinguru batean.
- 552d) Automatikoa da eskaera egin eta hilabetera ebazpen espresurik eman ez bada.

553 Zein da egintza baten jakinarazpena bideratzeko epea?:

- 553a) 15 egunekoa, egintza eman zen egunetik.
- 553b) 20 egunekoa, egintza eman zen egunetik.
- 553c) 10 egunekoa, egintza eman zen egunetik.
- 553d) Ez dago jakinarazpen-eperik.

554 Egintza baten jakinarazpenak eduki arrunteko betekizunen bat betetzen ez badu:

- 554a) Inoiz ez du ondorioz izango.
- 554b) Nahikoa izango da, nahiz eta ebazpenaren testu osoa ez jaso.
- 554c) Ondorioak izango ditu interesdunak dagokion errekurtsioa jartzen badu egintzaren aurka.
- 554d) Ondorioak izango ditu soilik elektronikoa bada.

555 Administrazio-egintza berehala betearaztekoa izango da:

- 555a) Beti.
- 555b) Salbu eta berraztertze-errekurtsioa jar dakiokkeen zehapen bat ebazten badu.
- 555c) Salbu eta eteteko eskaera ezesten bada.
- 555d) Xedapen batek berariaz ezartzen duenean bakarrik.

556 Administrazio-egintza baten ondorioz dirua ordaindu behar izanez gero:

- 556a) Premiamendu-prozedura aplika daiteke.
- 556b) Betearazpen subsidiariora jotzen da.
- 556c) Pertsonak derrigortu egin daiteke.
- 556d) Ezinezkoa da nahitaezko betearazpena.

557 Zein da administrazio-ebazpen espresu bat jakinarazteko epea?:

- 557a) Sei hilabetekoa, beti.
- 557b) Sei hilabetekoa, subsidiarioki.
- 557c) Hiru hilabetekoa, subsidiarioki.
- 557d) Hiru hilabetekoa, beti.

558 Ebazteko epeak prozedura hasteko akordioa hartzen denetik zenbatuko dira:

- 558a) Prozedura ofizios hasi bada.
- 558b) Jakinarazteko epea sei hilabetekoa bada bakarrik.
- 558c) Epea interesdunak eskatuta hasi bada.
- 558d) Ebazteko epea hiru hilabetekoa bada bakarrik.

559 Isiltasun positiboa:

- 559a) Arau orokorra da prozedura guztietan.
- 559b) Inoiz ez da arau orokorra.
- 559c) Arau orokorra da alderdi batek eskatuta hasitako prozeduretan.
- 559d) Arau orokorra da ofizios hasitako prozeduretan.

560 Egintza baten presuntziazko ezespenean:

- 560a) Gerora ezin da ebazpen espresurik eman.
- 560b) Ondorengo ebazpen espresua ezestekoa izango da beti.
- 560c) Ondorengo ebazpen espresua baiestekoa izango da beti.
- 560d) Ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, isiltasunaren esanahia ez da loteslea izango.

561 Administrazio-egintza bat emateko organo bat hierarkikoki nabarmen eskumen gabea baldin bada:

- 561a) Egintza deuseztagarria izango da.
- 561b) Egintza deuseza izango da.
- 561c) Baliogabetasunik ez dakarren irregulartasuna litzateke.
- 561d) Egintza deuseztagarria izango da, baldin eta organoa, gainera, gaiagatik eskumen gabea bada.

562 Zer dakar administrazio-egintza baten forma-akatsak?:

- 562a) Egintzaren deuseztagarritasuna, beti.
- 562b) Inoiz ez egintzaren deuseztagarritasuna.
- 562c) Egintzaren deuseztagarritasuna, interesduna babesik gabe geratzen bada.
- 562d) Egintzaren deusezetasuna.

32. gaia

563 Administrazio-prozedura da administrazioak jarraitu beharreko bidea:

- 563a) Erregelamenduak onartzeko.
- 563b) Administrazio-egintzak emateko.
- 563c) Kontratuak sinatzeko.
- 563d) Egiten duen edozein jarduketarako.

564 Administrazio-prozedurak eskaintzen dituen bermeen artean EZ dago hauetako bat:

- 564a) Administrazio-egintzen legezkotasun-kontrola.
- 564b) Interesdunen informazio- eta parte hartze-eskubideak.
- 564c) Administrazio-jarduketaren gardentasuna.
- 564d) Interesdunek aurkeztutako eskabideen onespena.

565 Espainiako Konstituzioaren arabera:

- 565a) Konstituzioari berari dagokio administrazio-prozedura arautzea.
- 565b) Erabakiak bere horretan hartzea saihesteko, administrazio bakoitzak administrazio-prozedura arautuko duen arau bat onartuko du.
- 565c) Administrazio-prozedura lege organiko bidez arautu behar da.
- 565d) Legeak arautuko du administrazio-egintzak burutzeko prozedura.

566 Administrazio-prozedura erkidea Estatuaren eskumen gisa arautzeak zer esan nahi du?:

- 566a) Estatuako legeak administrazio-prozedura zehatz-mehatz arautzen duela.
- 566b) Estatuako legeak administrazio-prozedura guztietan bete beharreko gutxieneko prozedura-arau eta -berme batzuk jasotzen dituela.
- 566c) Estatuak bakarrik eman ditzakeela administrazio-prozedurari buruzko legeak.
- 566d) Gai batzuetan autonomia-erkidegoei legegintza-eskumenak aitortzen bazaizkie ere, autonomia-erkidegoek ezin izango dutela prozedurazko araurik eman.

567 Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak:

- 567a) Administrazioaren *ad extra* harremanak arautzen ditu, hau da, administrazioaren eta herritarren arteko harremanak.
- 567b) Administrazioen *ad intra* harremanak arautzen ditu, hau da, administrazio bakoitzaren barne-antolamendu eta -funtzionamenduko gaiak, bai eta administrazioen arteko harremanak ere.
- 567c) Administrazioen *ad extra* harremanak nahiz *ad intra* harremanak arautzen ditu.
- 567d) Administrazio-prozeduraren erregulazio guztiz berria sartu du.

568 Administrazio-prozedurak sinplifikatzeak, zer ekarri du, besteak beste?:

- 568a) Jarduera jakin batzuk hasteko, administrazio-prozeduraren ordeztu, erantzukizunpeko adierazpenak edota komunikazioak erabiltzea.
- 568b) Administrazio-prozeduratik beharrezkoak ez diren izapideak ezabatzea, baina prozedura sinplifikatu bat garatzeko aukerarik utzi gabe.
- 568c) Interesdunek ezin parte hartu ahal izatea eragiten dieten administrazio-prozeduretan.
- 568d) Administrazioak ez izapidetzea jada administrazio-prozedurarik; izan ere, haren parte hartzea *a posteriori* baino ez da aurreikusten, partikularren jarduerak kontrolatuz.

569 Hauetatik, zeintzuk dira administrazio publikoak?:

- 569a) Estatuko administrazio orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta unibertsitate publikoak.
- 569b) Estatuko administrazio orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
- 569c) Estatuko administrazioa, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak, organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.
- 569d) Estatuko administrazioa, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta zuzenbide pribatuko entitateak.

570 Adingabeei dagokienez:

- 570a) Ez dute administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik.
- 570b) Administrazioaren aurrean jarduteko gaitasuna dute, beren legezko ordezkariak parte hartzea eskatzen ez duten eskubideak eta interesak baliatzeko eta defenditzeko.
- 570c) Administrazioaren aurrean jarduteko gaitasuna dute, legezko ordezkariak hala onartzen dienean.
- 570d) Jarduteko gaitasuna ez izategatik, ez dira inola ere interesduntzat hartuko administrazio-prozedura batean.

571 Administratuek administrazioaren aurrean dituzten egoera juridikoak:

- 571a) Betebeharra, egoera pasibo gisa, harreman juridiko jakin batetik dator.
- 571b) Betebeharraren jatorrian arau bat dago.
- 571c) Egoera mistoek ahalmenak ematen dizkiete administratuei.
- 571d) Herritarrak mendetasun-egoeran daude administrazio-ahalekiko.

572 Administrazio-prozeduran nor EZ da interesduntzat jotzen?:

- 572a) Eskubide edo bidezko interesen titular modura prozedura sustatzen dutenak.
- 572b) Prozedura instruitzen duten administrazioak.
- 572c) Prozedura haiek hasi ez arren, prozeduran hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- 572d) Prozedura haiek hasi ez arren, ebazpena eman aurretik prozeduran aurkeztu diren interes legitimoen titularrak.

573 Administrazio-prozedura batean interesdun denak eskubidea du:

- 573a) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzeko.
- 573b) Eskaerak baietsizat jotzeko, administrazioak ez badu ebazpena epearen barruan ebazten eta jakinarazten.
- 573c) Administrazio-prozeduraren izapidetze-egoera zein den jakiteko, baina prozedura hasteko fasean bakarrik.
- 573d) Jatorrizko dokumentuak aurkezteari uko egiteko beti.

574 Nor EZ dago behartuta administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera?:

- 574a) Pertsona fisikoak.
- 574b) Pertsona juridikoak.
- 574c) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- 574d) Administrazio publikoetako enpleguak, enplegu publiko izateagatik administrazio publikoekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.

575 Noiz erabili behar da, nahitaez, sinadura elektronikoa?:

- 575a) Administrazioaren aurrean edozein jarduketa egiteko.
- 575b) Errekurtsoak jartzeko.
- 575c) Alegazioak aurkezteko.
- 575d) Froga egitea proposatzeko.

576 Nahitaezkoa al da ordezkari-tza administrazio-prozeduran?:

- 576a) Nahitaezkoa da, interesdunak beti izan behar baitu bere ordezkariaren laguntza.
- 576b) Ez da nahitaezkoa, baina interesdunak jarduteko gaitasuna duen pertsona fisiko bat izenda dezake ordezkari gisa.
- 576c) Nahitaezkoa da, eta administrazioari dagokio administrazio-prozedura bakoitzean ordezkaria izendatzea.
- 576d) Ez da nahitaezkoa, baina emanez gero, pertsona juridiko baten alde bakarrik egin ahal izango da.

577 Ordezkariak jarduketa bat egiten badu interesdunaren izenean:

- 577a) Ordezkari-tza beti egiaztatu beharko da.
- 577b) Jarduketa ez da onartuko egiaztagiririk ez badago.
- 577c) Eskari bat aurkeztean bada, jarduketa gauzatu-tzat joko da hamar eguneko epean ordezkari-tza egiaztatzen bada.
- 577d) Edozein jarduketetan ordezkari-tza badagoela uste da.

578 Zein da abstentzioaren eta errekusazioaren helburua?:

- 578a) Administrazio-erabakien inpartzialtasuna bermatzea.
- 578b) Administrazio-prozeduretan kasu bakoitzean eskatzen diren ezagutzak dituzten pertsonen bakarrik esku hartzea.
- 578c) Administrazio-prozeduretan hartutako administrazio-ebazpenak beti espresuak izatea.
- 578d) Interesdunei espedienterako sarbidea bermatzea.

579 Zer gertatzen da abstenitu ezik, hartarako arrazoiak egonik ere?:

- 579a) Emandako egintza baliogabetu egingo da.
- 579b) Interesdunak onartu egin behar du.
- 579c) Delitua da.
- 579d) Emandako egintza ez da berez baliogabetzen.

580 Errekusazioari dagokionez:

- 580a) Arazo intzidental bezala, ez du administrazio-prozeduraren izapidetzea eteten.
- 580b) Administrazio-prozedura izapidetzen ari den organoaren titularrak duen eskubidea da.
- 580c) Interesdunaren eskubidea da.
- 580d) Behin planteatuta, errekusatutako subjektuak berak ebatziko du.

33. gaia

581 Administrazio-prozedura hasi aurretik behin-behineko neurriak hartzea erabakitzen de- nean:

- 581a) Prozedura gehienez ere hamabost eguneko epean hasi beharko da.
- 581b) Ezinbestekoa da alde aurretik alderdi interesdunari entzunaldia ematea.
- 581c) Prozedura amaitu arte iraungo dute neurriek.
- 581d) Prozeduran zehar ezin dira aldatu.

582 Salatzailleak salatzen duen arau-haustean parte hartu badu eta arau-hauste horrek Admi- nistrazioen ondarea kaltetu badu:

- 582a) Zehapena betetzetik salbuetsi ahal izango da, baldin eta lehena bada prozedura hastea ahalbidetzen duten frogak aurkezten.
- 582b) Zehapena betetzetik salbuetsi ahal izango da, baldin eta administrazioak dagoeneko esku artean dituen frogei balio esanguratsua ematen dieten froga-elementuak eskaintzen ba-
ditu.
- 582c) Zehapena murriztuko zaio, baldin eta lehena bada prozedura hastea ahalbidetzen duten frogak aurkezten.
- 582d) Nolanahi ere, egindako arau-hausteari dagokion zehapena ezarriko zaio, Legeak ez baitu arau horren salbuespenik aurreikusten.

583 Salaketari dagokionez:

- 583a) Partikular batek aurkezten badu, administrazio-prozedura hasteko kasu bat da, interesdu-
nak eskatuta.
- 583b) Salaketa aurkezten duena interesdun bihurtzen da automatikoki dagokion prozeduran.
- 583c) Administrazioarentzat administrazio-prozedura hasi beharra dakar.
- 583d) Administrazio-prozedura ofizioz hasteko kasu bat da.

584 Eskaerak:

- 584a) Aurrez aurre edo elektronikoki aurkez daitezke, baina aurkezteko unea erregistro elektronikokoan sartzen den unea da.
- 584b) Bide elektronikotik aurkeztu behar dira nahitaez, nahiz eta eskaera aurkezten duenak administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez egon.
- 584c) Aurrez aurre aurkezten dira bakarrik posta-bulegoetara jotzen denean, administrazio elektronikoen ezarpenak bertan behera utzi baitu aurrez aurreko aurkezpena administrazioan bertan.
- 584d) Akastunak badira, automatikoki baztertuko dira.

585 Administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dagoenak aurrez aurre aurkezten badu eskaera:

- 585a) Eskaera onartu egingo da, eta administrazioak berak emango dio sarrera eskaerari erregistro elektronikokoan.
- 585b) Administrazioak baztertu egingo du eskaera.
- 585c) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, baina eskaera aurrez aurre aurkeztu zen eguna joko da aurkezpen-datatzat.
- 585d) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, eta zuzenketa egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

586 Administrazioak, prozeduraren instrukzioa egin bitartean, interesdunari eskatzen badio izapide bat betetzeko hamar eguneko epean, eta interesdunak ez badu betetzen:

- 586a) Izapiderako eskubidea galduko du automatikoki, epea igaro delako.
- 586b) Iraungi egingo da prozedura.
- 586c) Izapidea betetzeko eskubidea galdu duela adierazten duen ebazpena jakinarazi aurretik bete ahal izango du izapidea, baita jakinarazpenaren egun berean ere.
- 586d) Izapidea betetzeko eskubidea galdu duela adierazten duen ebazpena jakinarazi aurretik bete ahal izango du izapidea, baina ez jakinarazpenaren egun berean.

587 Epeen zenbaketa:

- 587a) Ordutan adierazten badira, administrazio-bulegoak jendearentzat irekita dauden orduak bakarrik joko dira balioduntzat.
- 587b) Urtetan adierazten badira, epea dagokion urteko azken egun baliodunean amaitzen da.
- 587c) Egunetan adierazten badira, egun natural guztiak zenbatuko dira, kontrakorik xedatu ezear.
- 587d) Egunetan adierazten badira, oro har, egun baliodunak zenbatuko dira, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

588 Hilabetetan adierazitako epeak:

- 588a) Hilabete guztiek hogeita hamar egun dituztela jotzen da, eta egun natural bezala zenbatzen dira.
- 588b) Datatik datara zenbatzen dira, hau da, jakinarazpena 11n jasotzen bada, zenbaketa hilaren 12an hasiko da, eta, beraz, muga-eguneko hilaren 12an amaituko da.
- 588c) Epearen azken eguna egun baliogabea bada, aurreko egun baliodunean amaituko da epea.
- 588d) Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunetan amaitzen dela joko da.

589 Erregistro elektronikoak ezarri direnetik:

- 589a) Urteko egun guztietan aurkeztu daitezke dokumentuak, eguneko 24 orduetan.
- 589b) Dokumentuak egun baliogabe batean aurkezten badira, aurreko egun baliodunean aurkeztu direla ulertuko da.
- 589c) Erregistroen ordutegia ez da aldatzen, administrazio-bulegoak irekita dauden ordutegian bakarrik erregistra baitaitezke dokumentuak.
- 589d) Administrazioek bete beharreko epeak aurkezten diren egunaren biharamunean hasten dira.

590 Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, zein da txostenei buruzko arau orokorra?:

- 590a) Nahitaezkoak eta lotesleak dira.
- 590b) Nahitaezkoak eta ez-lotesleak dira.
- 590c) Aukerakoak eta ez-lotesleak dira.
- 590d) Aukerakoak eta lotesleak dira.

591 Txostena ez bada adierazitako epean ematen:

- 591a) Prozedurak aurrera jarraituko du, txostena nahitaezkoa ez bada.
- 591b) Ebazteko gehieneko epea automatikoki eteten da, txostena jaso arte.
- 591c) Ebazteko gehieneko epea eten daiteke mugagabe.
- 591d) Prozedurak aurrera jarraituko du, edozein dela ere txosten mota.

592 Interesdunek alegazioak aurkez ditzakete administrazio-prozeduran zehar?:

- 592a) Prozeduraren hasierako fasean bakarrik.
- 592b) Ebazpena eman aurretik, edozein unetan.
- 592c) Entzunaldi-izapidea egin baino lehen, edozein unetan.
- 592d) Ebazpen-proposamena idatzi ondoren bakarrik.

593 Interesdunek proposatutako frogabideak baztertzea:

- 593a) Ezin da, defentsa-gabezia sortuko litzatekeelako.
- 593b) Nabarmen desegokiak edo alferrikakoak direnean erabaki daiteke.
- 593c) Ez dago aurreikusita, administrazioak berak proposatu behar baititu frogabideak.
- 593d) Interesdunen araberakoa da.

594 Entzunaldi-izapideari dagokionez:

- 594a) Kendu egin daiteke, interesdunek hura baztertzea erabakitzen badute.
- 594b) Nahitaezko izapidea da administrazio-prozedura guztietan.
- 594c) Interesdunek frogabideak proposatzeko aukera ematen du.
- 594d) Interesdunak alegazioak aurkeztera behartzen ditu.

595 Administrazio-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren kongruentzia-printzipioaren adierazpenetako bat da honako hau:

- 595a) Lotura duten baina interesdunek planteatu ez dituzten gaiak agertzen baldin badira, haiek ere ebatzi ditzake administrazioak beste entzunaldi-izapide bat ireki beharrik gabe.
- 595b) Administrazioa ez dago ebaztera behartuta aplikatzekoak diren arauak nahikoak ez direnean.
- 595c) Ebazpenak ezin du okerrago bihurtu administrazioaren aurrean errekurtsua jartzen duen pertsonaren egoera juridikoa.
- 595d) Administrazioak interesdunek eskatutakoa baino ez du ebatzi behar.

596 Zein da atzera egitearen eta uko egitearen arteko aldea?:

- 596a) Atzera egiten da prozeduran edo eskaeran eta uko egiten zaio eskubideari.
- 596b) Atzera egiten da eskubidean eta uko egiten zaio prozedurari.
- 596c) Atzera egitea interesdunak planteatzen du, eta administrazioari dagokio uko egitea planteatzea.
- 596d) Atzera eginez gero, prozedura interesdun guztientzat amaitzen da, eta hori ez da gertatzen uko egitearekin.

597 Zer ekarriko du administrazio-prozedura iraungitzeak?:

- 597a) Zehapen-prozedura bat bada, administrazioak beste prozedura bat has dezakeela arau-haustea preskribatu ez den bitartean.
- 597b) Zehapen-prozedura bat bada, arau-haustearen preskripzio automatikoa.
- 597c) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, interesdunak beste eskaera bat aurkezteko eskubidea galtzen duela.
- 597d) Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea etetea.

598 Administrazio-prozeduraren itundutako amaierari dagokionez:

- 598a) Bidezkoa da administrazio-prozedura mota guztietan.
- 598b) Administrazioaren eta interesdunen arteko lankidetzaren adibide bat da.
- 598c) Administrazioak epe barruan ebazten ez duen kasuetarako dago aurreikusita.
- 598d) Administrazioak ebazpen baten bidez amaitzen duela prozedura esan nahi du.

34. gaia

599 Zeinek du izaera subsidiarioa?:

- 599a) Administrazio-errekurtsoak.
- 599b) Ofiziozko berrikuspenak.
- 599c) Biek, errekurtsoak eta berrikuspenak.
- 599d) Bietako batek ere ez, ez errekurtsoak ez berrikuspenak.

600 Zeintzuk berrikus daitezke ofizioz?:

- 600a) Erregelamenduak.
- 600b) Edozein eskubideri kalte egiten dioten egintzak.
- 600c) Administrazio-bidea amaitzen ez duten egintzak.
- 600d) Arau-hauste zibila dakarten egintzak.

601 Kaltegarritasun-deklarazioari dagokionez:

- 601a) Ezinbestekoa da administrazioak bere egintza deuseza aurkaratu ahal izateko.
- 601b) Ez da beharrezkoa interesdunei entzunaldia ematea.
- 601c) Egintza deuseztagarriei eragiten die.
- 601d) Ez da oinarri prozesaltzat hartzen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartzeko.

602 Oker materialen eta egitezkoen zuzenketari dagokionez:

- 602a) Alderdi batek eskatuta egin daiteke.
- 602b) Ez da beharrezkoa interesdunari entzunaldia ematea.
- 602c) Epe jakin batean gertatu behar da.
- 602d) Egintzaren zentzua nabarmen aldatzen du.

603 Egintzak errebokatzea:

- 603a) Aldeko egintzei dagokie bakarrik.
- 603b) Aldeko egintzei zein kargak ezartzen dituzten egintzei dagokie.
- 603c) Izaera orokorreko xedapen arau-emaleei dagokie bakarrik.
- 603d) Kargak ezartzen dituzten egintzei dagokie bakarrik.

604 Norena da administrazio-errekurtso bat ebazteko eskumena?:

- 604a) Egintza eman zuen organoarena, errekurtsoa gora jotzekoa bada.
- 604b) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoarena, errekurtsoa berraztertzea bada.
- 604c) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoarena beti.
- 604d) Hierarkian gorago dagoen organoarena, egintzak administrazio-bidea agortzen ez badu.

605 Egintza errekurrizeko, honako hau ez da oztopo:

- 605a) Interesduna agertu ez izana egintza eragin duen aurretiazko administrazio-espeditentean.
- 605b) Egintzaren edukiak eraginik ez izatea.
- 605c) Administrazio autonomikoa izatea.
- 605d) Epea igarotzea.

606 Zein egintzaren aurka jar daiteke administrazio-errekurtsoa?:

- 606a) Edozein izapide-egintzaren aurka.
- 606b) Defentsa-gabezia sortzen duen izapide-egintza baten aurka.
- 606c) Behin betiko egintza baten aurka bakarrik.
- 606d) Administrazio-prozedurari amaiera ematen dion egintzaren aurka bakarrik.

607 Administrazio-errekurtso bat aurkeztean nahitaezko dokumenturen bat eranstea ahaztuz gero, zer gertatzen da?:

- 607a) Errekurtsoa ezin izango da izapidetu oztopo formal garrantzitsua delako.
- 607b) Administrazioak hamar eguneko epea eman behar dit akats hori zuzentzeko.
- 607c) Prozeduraren ondorengo edozein unetan aurkez dezaket, nahi izanez gero.
- 607d) Ez du inolako ondoriorik prozedurarako.

608 Zer esan nahi du administrazio-egintza irmoa izateak?:

- 608a) Dagokion errekurtsoa ez dela aurkeztu epearen barruan.
- 608b) Egintzak administrazio-bidea agortu duela.
- 608c) Egintzaren efikazia etenda geratzen dela irmoa den bitartean.
- 608d) Hierarkian goragokoa ez duen organo batek eman duela egintza.

609 Administrazio-errekurtsoak izapidetzean:

- 609a) Ez dago inola ere entzunaldi-izapiderik.
- 609b) APELen, oro har, entzunaldi-izapidea aurreikusten da.
- 609c) Alegazioak aurkez daitezke, salbuespen gisa.
- 609d) APELek espresuki debekatzen du entzunaldi-izapidea.

610 Administrazio-errekurtsoak ebaztean frogak egitea:

- 610a) Interesdunak ezin du eskatu.
- 610b) Ez da halakorik egiten.
- 610c) Ezinbesteko izapidea da.
- 610d) Interesdunak ezin du eskatu, egintza eragin zuen prozeduran huts egin izana berari egotzi ahal bazaio.

611 Eskuordetuta emandako egintza baten aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen denean:

- 611a) Egintza eman zuen organoak berak ebazten du errekurtsoa.
- 611b) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoak ebazten du errekurtsoa.
- 611c) Eskuordetza-emailearen hierarkian goragoko organoak ebazten du errekurtsoa.
- 611d) Ez du aurrera egingo, eskuordetzak eragotzi egiten baitu inolako errekurtsorik jartzea.

612 Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenari dagokionez:

- 612a) Berraztertze-errekurtsua jar dakioko, administrazio-bidea agortzen baitu.
- 612b) Ezin da jurisdikzio-bidean errekurritu.
- 612c) Egintza espresuen aurka baino ez da jartzen.
- 612d) Gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi behar da ebazpena.

613 Berraztertze-errekurtsuari dagokionez:

- 613a) Interesdunari jurisdikzio-bidera jotzea eragozten dio harik eta ebatzi arte.
- 613b) Hiru hilabeteko epean egin behar da, errekurritutako egintza espresua denean.
- 613c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko baldintza da.
- 613d) Administrazio-bidea agortzen du.

614 Zein da berraztertze-errekurtsua ebazteko epea?:

- 614a) Hiru hilabete.
- 614b) Bi hilabete.
- 614c) Hilabete.
- 614d) Hamabost egun.

615 Berrikuspen-errekurtsu bereziari dagokionez:

- 615a) Errekurritutako egintza irmoa izatea eskatzen du.
- 615b) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoari jarri behar zaio.
- 615c) Edozein deuseztasun-arrazoirengatik baino ez da jarriko.
- 615d) Errekurritutako egintza eman zenetik, hiru hilabeteko epean jarri behar da.

616 Berrikuspen-errekurtsu bereziaren ebazpena:

- 616a) Ezin da presuntzioskoa izan.
- 616b) Errekurtsua jarri zaion organoaren hierarkian goragokoak ematen du.
- 616c) Espresua eta ezestekoa bada, gora jotzeko errekurtsua jar dakioko.
- 616d) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu daiteke.

35. gaia

617 Botere publikoen erantzukizunari buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?:

- 617a) Espainiako Konstituzioaren arabera, partikularrek, legeak finkatutako eran, eskubidea izango dute, beren ondasun eta eskubideetan izandako lesio guztien ordaina jasotzeko, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta lesio horiek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz gertatu badira.
- 617b) Espainiako Konstituzioak botere publikoen erantzukizuna eta arbitrariotasun-debekua aldarrikatzen du.
- 617c) Espainiako Konstituzioaren arabera, hutsegite judizialez eragindako kalteek zein Justizia Administrazioaren jardun anormalaren ondorio direnek eskubidea emango dute kalte-ordaina jasotzeko, Estatuaren kontura, legearekin ados.
- 617d) Estatuak administrazioaren ondare-erantzukizunaren oinarritzko araubidea arautzeko eskumena du, eta, ondoren, autonomia-erkidegoek araubide hori arau bidez garatu ahal izango dute.

618 Non dago jasota administrazio publikoen erantzukizunari buruz indarrean dagoen araubide juridikoa?:

- 618a) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean.
- 618b) Zigor Kodean.
- 618c) Kode Zibilean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean.
- 618d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean.

619 Administrazioaren ondare-erantzukizunaren oinarria (partikularren arteko harremanetan erantzukizun zibila edo kontratuz kanpoko deitzen dena):

- 619a) Partikularren arteko kontratuz kanpoko erantzukizunaren berdina da.
- 619b) Administrazioaren erruan edo zabarkerian oinarritzen da, eta erantzukizuna objektiboa da.
- 619c) Administrazioaren erruan edo zabarkerian oinarritzen da, eta erantzukizuna subjektiboa da.
- 619d) Partikularrak jasan behar ez duen kalte antijuridikoa jasatean oinarritzen da.

620 Administrazioaren ondare-erantzukizuna:

- 620a) Erantzukizuna subjektiboa da, gertaera lesiboaren eragileari egozteko modukoa.
- 620b) Erantzukizuna objektiboa da, eragindako lesioan bakarrik oinarritzen dena, eta ez kausatzailearen erruan.
- 620c) Erantzukizuna subjektiboa edo objektiboa izan daiteke, kasuaren arabera.
- 620d) Ez da administrazioaren erruan edo zabarkerian oinarritzen, baizik eta egintza kaltegarria egiten duen funtzionarioaren erruan.

621 Administrazio publikoak partikular bati eragindako lesioa, kalte-ordaina jasotzeko eskubi-dea sor dezakeena:

- 621a) Lesioa partikular bati eragindako kaltean baino ez datza.
- 621b) Lesioa soil-soilik kalte ekonomikotzat jotzen da: ondasun edo interes juridiko bat desgertzea edota balioa galtzea.
- 621c) Lesioaren kontzeptua araudiaren araberakoa da: administrazioak ezin du ordenamendu juridikoarekin bat ez datorren kalterik sortu, eta, beraz, eragindako partikularrak jasan behar ez dituenak.
- 621d) Ez da soilik kalte antijuridiko baten ondorio, baizik eta ordenamenduaren arabera eragindako kalte baten ondorio ere izan daiteke (adibidez: nahitaezko desjabetze bat, eraispen-aginduak, eta abar).

622 Froga ondorioetarako, ondare-erantzukizunaren oinarria objektiboa izateak zer esan nahi du?:

- 622a) Partikularrek bakarrik frogatu behar dutela jasan beharrik ez zuten kalteren bat eragin dietela eta kalte hori administrazio-jarduera baten ondoriozkoa dela.
- 622b) Partikularrek frogatu behar dutela administrazioaren errua edo zabarkeria egon dela eragindako kaltean.
- 622c) Partikularrek frogatu behar dutela Administrazioako enplegatu publiko batek falta pertsonal bat egin duela.
- 622d) Partikularrek frogatu behar dutela kalte ekonomikoa bat eragin zaiela eta kalte hori enplegatu publiko baten errua edo zabarkeriaren ondorio dela.

623 Administrazioak berak eragindako lesioengandik duen erantzukizun juridikoa, nolakoa da?:

- 623a) Ondarezkoa baino ez da, bere ondarearekin baino ez du erantzuten.
- 623b) Ondarezkoa da, eta penala edo diziplinazkoa ere izan daiteke.
- 623c) Ondarezkoa da, eta, era berean, politikoa ere izan daiteke.
- 623d) Ondarezkoa da, eta, era berean, penala eta politikoa ere izan daiteke.

624 Administrazio publikoak erantzun beharreko kaltea eragiteko egokiak diren administrazio-jarduerak, zeintzuk dira?:

- 624a) Zentzu hertsian zerbitzu publikoak direnak bakarrik (osasuna, garraioa, etab.).
- 624b) Jarduera materialak bakarrik.
- 624c) Jarduera materialak, baina baita jarduerarik eza edo jarduera juridikoa.
- 624d) Jarduera materialak eta jarduera juridikoa, baina ez jarduerarik eza.

625 Administrazio publikoak partikularren bati eragindako kalteengatik bere ondarearekin erantzuteko, zer baldintza bete behar dira?:

- 625a) Kaltea eta administrazioaren errua edo zabarkeria.
- 625b) Erantzukizunaren kausa (kaltea eragiten duen jarduera), kaltea eta kausalitate-erlazioa.
- 625c) Erantzukizunaren kausa eta kaltea, baina bien arteko kausalitate-harremanik ez da behar.
- 625d) Nahikoa da eragindako kaltea.

626 Administrazio publikoak noiz erantzungo du bere ondarearekin partikular bati eragindako kalteengatik? (Adierazi erantzun OKERRA):

- 626a) Zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorio direnean.
- 626b) Zerbitzu publiko baten funtzionamendu anormalaren ondorio direnean nahitaez.
- 626c) Garrantzitsuena kaltearen antijuridikotasuna da, ez kaltea eragin duen administrazio-jarduketaren juridikotasuna edo antijuridikotasuna (edo zuzenbidearekiko desadostasuna).
- 626d) Zerbitzu publiko baten funtzionamenduak «normala» dirudien kasuetan ere erantzuteko betebeharra du administrazioak, baldin eta partikularrak ez badu edozelan ere eragin zaion kaltea jasateko betebeharririk.

627 Noiz dago Administrazio publikoak eragindako kalte bat jasateko betebeharr juridikoa?:

- 627a) Inoiz ez.
- 627b) Baldin eta administrazioak legez daukan ahal bat baliatzen badu.
- 627c) Administrazioak administrazio-ahalak modu legitimoan baliatzearen ondorioak jasan behar dituzte partikularrek, nahiz eta administrazioak ordenamenduekin bat ez datorren moduan baliatu.
- 627d) Administrazioak ordenamendu juridikoaren arabera baliatzen dituen bere ahalak.

628 Emaitza kaltegarria administrazio publiko bati egotzi ahal izateko, nor izango da kaltea eragin duen jardueraren egilea?:

- 628a) Administrazio-antolaketa sartutako agintari, funtzionario edo enplegatu bat, harremana edozein dela ere.
- 628b) Funtzionario bat, nahitaez.
- 628c) Funtzionario bat edo enplegatu publiko bat, nahiz eta bere eginkizunetatik kanpo jardun.
- 628d) Kaltea funtzionarioak edo enplegatu publikoak egindako delitu baten ondorio denean ere sortzen da administrazioaren ondare-erantzukizuna.

629 Administrazio publikoak partikular bati eragindako kalteengatik bere ondarearekin erantzuteko, zer gertatu behar da?:

- 629a) Kausalitate-erlazio bat egon behar da, nahitaez, eragindako kaltearen eta kaltea eragin duen administrazio-jardueraren artean.
- 629b) Ez da beti beharrezkoa kausalitate-erlazioa egotea eragindako kaltearen eta kaltea eragin duen administrazio-jardueraren artean.
- 629c) Indarrean dagoen legeriak ezartzen du azken emaitza laguntzen duen edozein kausa kaltearen kausatzat hartu behar dela.
- 629d) Ez da beharrezkoa kausalitate-erlazioa egotea eragindako kaltearen eta kaltea eragin duen administrazio-jardueraren artean.

630 Eragindako kalteengatik Administrazio Publikoari kalte-ordaina eskatzeko eskubidea baliatzeari dagokionez:

- 630a) Kalte-ordaina arrazoitzen duen gertaera edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik bost urtera preskribatzen du.
- 630b) Administrazio publikoaren ondare-erantzukizuneko prozedurak interesdunen eskariz baino ez dira hasten, inoiz ez ofizioz.
- 630c) Prozedura izapidetzean, alegazio-, froga- eta entzunaldi-izapide arruntez gain, txostenak eta irizpenak ere eskatu behar dira.
- 630d) Administrazio publikoek partikularrei eragindako kalte-galeren erreklamazioez arduratzeko jurisdikzio eskuduna zein den zehaztea, harreman juridikoaren (zuzenbide publiko edo pribatua) eta kalte-galera horiek gertatu diren esparruaren (soziosanitarioa edo administrazio orokorra) arabera da.

631 Administrazio publikoen zerbitzura dauden agintarien eta bestelako langileen erantzukizunari dagokionez:

- 631a) Partikularrei eragindako kalteengatik zuzenean erantzungo dute, baldin eta beren aldetik doloa edo errua badago.
- 631b) Zuzenean erantzungo dute horiek partikularrei eragindako kalteengatik.
- 631c) Partikularrei eragindako kalte-galerengatik zuzenean erantzungo du beti Administrazioak, salbuespenik gabe.
- 631d) Partikularrei eragindako kalte-galerengatik zuzenean erantzungo du administrazioak, baina ez beren eginkizunak betetzen ez dituztenean eragindako kalteen kasuan.

36. gaia

632 Internetera konektatutako edozein ordenagailutan dagoen orri batetik bestera estekei jarraitzeari, nola deitzen zaio?:

- 632a) Konpilazioa.
- 632b) Elkarrekintza.
- 632c) Nabigatzea.
- 632d) Translazioa.

633 Honako hauen artean, zein EZ da nabigatzaile erabilienetako bat?:

- 633a) Safari.
- 633b) Concert.
- 633c) Firefox.
- 633d) Opera.

634 Zein da Apple-ren gailuetan jadanik instalatuta datorren nabigatzailea?:

- 634a) Chrome.
- 634b) Firefox.
- 634c) Opera.
- 634d) Safari.

635 Zeintzuk dira Microsoften ekosistemaren berezko nabigatzaileak, Windows sistema eragilearekin zuzenean lotuta daudenak?:

- 635a) Explorer eta Edge.
- 635b) Safari eta Opera.
- 635c) Mozilla eta Firefox.
- 635d) Brave eta Chrome.

636 Nola esaten zaio erabiltzailearen jarduera gogora ez dadin helburua duen nabigazio-moduari?:

- 636a) Pribatua edo ezkutua.
- 636b) Espia edo sekretua.
- 636c) Gainbegiratua edo kontrolatua.
- 636d) Segurua edo babestua.

- 637 Modu pribatua nabigatzen denean, zeintzuk EZ dira ezabatzen?:**
- 637a) Nabigazio-historiako edukiak.
 - 637b) Deskargatu diren fitxategiak.
 - 637c) Cookieak.
 - 637d) Inprimakietan sartutako edukiak.
- 638 Webgune baten lokalizazioa URLarekin adierazten da. Nola esaten zaio aurrerago berreskuratzeko nabigatzailean biltegitratutako lokalizazio bati?:**
- 638a) Leihoa.
 - 638b) Markatzailea.
 - 638c) Erlaitza.
 - 638d) Ikonoa.
- 639 Nola esaten zaio nabigatzaileak biltegitratutako informazioari, hau da, bisitatutako orrialdeak barne hartzen dituen informazioari?:**
- 639a) Cookieak.
 - 639b) Cachea.
 - 639c) Nabigazio-historia.
 - 639d) Markatzaileak.
- 640 Nola esaten zaie nabigatzaileei funtzionalitateak eta hobekuntzak gehitzeko aukera ematen duten programei?:**
- 640a) Markatzaileak.
 - 640b) Handitzeak.
 - 640c) Erlaitzak.
 - 640d) Hedapenak.
- 641 Bilatzaile ezagunen artean hauetako zein EZ dago?:**
- 641a) Brave.
 - 641b) Bing.
 - 641c) DucDuckGo.
 - 641d) Ask.com.
- 642 Nabigatzaileen eta bilatzaileen arteko harremanari dagokionez:**
- 642a) Nabigatzaile batetik lehenetsitako bilatzaile bat baino ezin dugu erabili.
 - 642b) Nabigatzaile bat instala dezakegu bilatzaile baten orrian.
 - 642c) Nabigatzaileak linean daude instalatuta, eta bilatzaileak, berriz, konputagailuan.
 - 642d) Nabigatzaile batetik hainbat bilatzaile erabil ditzakegu.
- 643 Googlen ahots bidezko bilaketak egiteko, hasteko, zer esan behar da?:**
- 643a) Let's go Google.
 - 643b) Ok Google.
 - 643c) Come on Google.
 - 643d) Go now Google.

- 644 Bilatzaile guztiek ez dituzte emaitza berak ematen bilaketa jakin batean, ezta ordena berean ere. Googleren bilatzailearen kasuan, zenbat posizionamendu-faktorek eragiten dute orrialde bat posizio batean edo bestean agertzea emaitzen orrialdeetan?:
- 644a) 200 baino gehiagok.
 - 644b) 1.000 baino gehiagok.
 - 644c) 10 eta 20 artean.
 - 644d) 100 inguruk.
- 645 Googlen bilaketa-aukera aurreratuen artean, ken (–) sinboloa dago. Zertarako erabiltzen da?:
- 645a) Eduki zehatza duten esaldien bilaketak hautatzeko.
 - 645b) Emaitza-kopuru txikiagoa nahi dela adierazteko.
 - 645c) Adierazteko eduki bat bilatzen ari dela eta atzetik beste bat duela.
 - 645d) Interesatzen ez zaizkigun hitzak dituztenak emaitzetatik kanpo uzteko.
- 646 Zer erabiltzen da Googleren bidez mota jakin bateko fitxategietan jasotako emaitzak bilatzeko?:
- 646a) Filetype.
 - 646b) Infile.
 - 646c) Filerequest.
 - 646d) Documenttype.

37. gaia

- 647 Nola esaten zaie Interneten erabilerarekin planeta osoan zehar hedatu diren berri faltsu edo engainagarriei?:
- 647a) Dark web news.
 - 647b) Fake news.
 - 647c) Deep web news.
 - 647d) Hot news.
- 648 Interneteko eduki batzuk publizitatearen bidez diru-sarrerak irabazteko sortuak daude (edukien kalitatearen edo zehaztapenaren kaltetan, bereziki), eta izenburu sentsazionalistetan oinarritzen dira sarbide gehiago erakartzeko. Nola deitzen zaie eduki horiei?:
- 648a) Phishing baits.
 - 648b) Clickbaits.
 - 648c) Worms.
 - 648d) Trojan horses.
- 649 Web-orri baten kalitatea identifikatzen laguntzen duten adierazleen artean dago autoretza. Hori egiaztatzen laguntzen duen informazio bat webgunearen domeinua da. Ondorengo hauetatik, zein EZ da jotzen normalean iturri fidagarritzat?:
- 649a) .gov.
 - 649b) .onion.
 - 649c) .org.
 - 649d) .edu.
- 650 Web-orri baten kalitatea identifikatzen laguntzen duten adierazleen artean, baliabide osagarriak eskuratzeko aukera dago. Zein da iturriaren kalitatea txikia dela iradokitzen duen adierazle posible bat?:
- 650a) Erreferentzia-zerrenda oso zabala ematea.
 - 650b) Esteka apurtuak edo indarrean ez daudenak eskaintzea.
 - 650c) Kanpoko erreferentzietan oinarritzea.
 - 650d) Eduki oso eguneratuetara jotzea.

- 651 Interneten lortutako beste pertsona edo erakunde batzuen edukiak erabili behar direnean, zein da jardunbide egokia?:**
- 651a) Informazioari babesa kentzea, erabiltzen errazagoa izan dadin.
 - 651b) Edukiak hainbat aldiz erabiltzea.
 - 651c) Word dokumentuak bakarrik erabiltzea, ebaki-itsatsia errazteko.
 - 651d) Berariaz aitortzea egilea nor den.
- 652 Estatuko legeriaren arabera, obra literario, artistiko edo zientifiko baten jabetza intelektuala egileari dagokio, hura sortze hutsagatik. Beraz, nolakoa da obren babesa?:**
- 652a) Erregistro formala behar du.
 - 652b) Automatikoa da.
 - 652c) Eraginkorra da egilea bizi den artean.
 - 652d) Kudeagarria da kostu ertainetan.
- 653 Nola esaten zaie sortzaileek beren obren gainean dituzten eskubideei?:**
- 653a) Egile-eskubideak.
 - 653b) Asmakuntza-eskubideak.
 - 653c) Copyright.
 - 653d) Sormen-lizentziak.
- 654 Mendebaldeko herrialdeetako egile-eskubideei buruzko lehen aipamenak, zein mendetakoak dira?:**
- 654a) K.a. I. mendekoak.
 - 654b) X. mendekoak.
 - 654c) XVIII. mendekoak.
 - 654d) XX. mendekoak.
- 655 Egile-eskubideak oinarrizko giza eskubidetzat hartzen dira. Non daude jasota?:**
- 655a) Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan.
 - 655b) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 27. artikuluan.
 - 655c) Gernikako Estatutuaren 27. artikuluan.
 - 655d) Gizakien eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren 27. artikuluan.
- 656 Obra bat jabari publikora igarotzen da egilea hil zenetik epe bat igarotakoan. Europako Zuzenbidean, zein da epe hori?:**
- 656a) 10 urte.
 - 656b) 30 urte.
 - 656c) 50 urte.
 - 656d) 70 urte.
- 657 Egile-eskubidearen arloko eskubide moralek bi alderdi espezifiko biltzen dituzte. Zein da horietako bat?:**
- 657a) Lanaren konfidentziasuna zaintzeko eskubidea.
 - 657b) Lanaren osotasuna zaintzeko eskubidea.
 - 657c) Lanaren banaketa zaintzeko eskubidea.
 - 657d) Lanaren trazabilitatea zaintzeko eskubidea.

- 658 Creative Commons lizentziak lau baldintzatan oinarrituta sortzen dira. Nola esaten zaio lizentziak baimendutako obraren edozein ustiapenetan egilea nor den aitortu behar dela ezartzen duen baldintzari?:
- 658a) Aitortzea (Attribution).
 - 658b) Autoretza (Authorship).
 - 658c) Ustiapena (Exploitation).
 - 658d) Obra eratorririk gabe (No Derivate Works).
- 659 Creative Commons lizentziak lau baldintzatan oinarrituta sortzen dira. Nola esaten zaio obraren ustiapena merkataritzakoak ez diren erabileretara mugatzen duen baldintzari?:
- 659a) Ez-komertziala (Non commercial).
 - 659b) Merkaturatze librea (Free marketing).
 - 659c) Ustiapen debekatua (Exploitation not allowed).
 - 659d) Ez onurarako (Non profit).
- 660 Creative Commons lizentziak lau baldintzatan oinarrituta sortzen dira. Nola esaten zaio obra ustiatzeko baimenak obra eratorri bat sortzeko eraldaketa ez duela barne hartzen ezartzen duen baldintzari?:
- 660a) Bertsio estatikoa (Static version).
 - 660b) Nahitaezko osotasuna (Mandatory integrity).
 - 660c) Berdin partekatu (Share alike).
 - 660d) Obra eratorririk gabe (No Derivate Works).
- 661 Creative Commons lizentziak lau baldintzatan oinarrituta sortzen dira. Nola esaten zaio ustiatzeko baimenak obra eratorriak sortzea onartzen duen baldintzari, baldin eta zabalkun-dea lizentzia berberarekin egiten bada?:
- 661a) Lizentzia partekatua (Shared license).
 - 661b) Berdin eraldatu (Transform equal).
 - 661c) Obra eratorririk gabe (No Derivate Works).
 - 661d) Berdin partekatu (Share alike).

38. gaia

662 Informazioa biltegitatu eta berreskuratu behar denean, garrantzitsua da fitxategiak eta karpetak bereiztea. Nolakoa da bi elementu mota horien arteko erlazioa?:

- 662a) Karpetak fitxategietan gordetzen dira normalean.
- 662b) Normalean karpeta bakarra egoten da fitxategi bakoitzeko, eta alderantziz.
- 662c) Karpeta bat hainbat fitxategitan gordetzen da normalean.
- 662d) Fitxategiak karpetetan gordetzen dira normalean.

663 Fitxategiak eta direktorioak administratzeko erabiltzaile-interfazea ematen duten programa informatikoei hainbat izen ematen zaie. Horien artean EZ dago hauetako bat:

- 663a) Fitxategi-kudeatzailea.
- 663b) Fitxategi-administratzailea.
- 663c) Fitxategi-konpiladorea.
- 663d) Fitxategi-esploratzailea.

664 Windows sistema eragileak, lehenetsita, karpeta batzuk ezartzen ditu, gorde beharreko fitxategi motaren arabera antolatuta. Horien artean EZ dago hauetako bat:

- 664a) Musika.
- 664b) Nabigatzaileak.
- 664c) 3D objektuak.
- 664d) Bideoak.

665 Luzapena fitxategi baten izenaren zatia da, eta fitxategiaren eduki-mota adierazteko erabiltzen da. Ohiko luzapenetako bat da honako hau:

- 665a) DPF.
- 665b) PJE.
- 665c) DOW.
- 665d) ODT.

- 666 Testuak sortu, ikusi edota editatzeko programa espezifikoaren artean Word, Notepad edo Writer daude. Programa horiei lotutako luzapen ohikoaren artean daude honako hauek:
- 666a) jpg, gif, bmp eta png.
 - 666b) avi, mpeg, wmv eta flv.
 - 666c) odx, ogg, wav, wma.
 - 666d) txt, doc, docx eta odt.
- 667 Irudiak erabiltzeko programa espezifikoaren artean Paint, Argazkiak edo Gimp daude. Programa horiei lotutako luzapen ohikoaren artean daude honako hauek:
- 667a) txt, doc, docx eta odt.
 - 667b) avi, mpeg, wmv eta flv.
 - 667c) odx, ogg, wav, wma.
 - 667d) jpg, gif, bmp eta png.
- 668 Bideoak erabiltzeko programa espezifikoaren artean VLC, FLV edo Movie Maker daude. Programa horiei lotutako luzapen ohikoaren artean daude honako hauek:
- 668a) jpg, gif, bmp eta png.
 - 668b) avi, mpeg, wmv eta flv.
 - 668c) txt, doc, docx eta odt.
 - 668d) odx, ogg, wav, wma.
- 669 Soinua erabiltzeko programa espezifikoaren artean VLC, Audacity edo SoundEditor daude. Programa horiei lotutako luzapen ohikoaren artean daude honako hauek:
- 669a) odx, ogg, wav, wma.
 - 669b) avi, mpeg, wmv eta flv.
 - 669c) jpg, gif, bmp eta png.
 - 669d) txt, doc, docx eta odt.
- 670 Informazioa leku gutxian erabiltzeko edo Internet bidez zabaltzeko erabiltzen diren fitxategi konprimituen formatuen artean, hauetako zein EZ dago?:
- 670a) zip.
 - 670b) pdf.
 - 670c) rar.
 - 670d) tar.
- 671 Fitxategietan eta fitxategi multzoetan fitxategiak administratzeko programek egiten dituzten eragiketa ohikoaren artean, hauetako zein EZ dago?:
- 671a) Izena aldatu.
 - 671b) Bilatu.
 - 671c) Konpilatu.
 - 671d) Sarbide-baimenak aldatu.
- 672 Programak instalatzeko edo exekutatzeko erabili ohi diren fitxategi exekutagarrien formatuen artean, hauetako zein EZ dago?:
- 672a) aox.
 - 672b) exe.
 - 672c) bat.
 - 672d) dll.

- 673 Fitxategietako eragiketen artean (normalean laster-menuarekin eskura daitezke), sistemak lehenetsitakoa ez den aplikazio batekin fitxategi bat irekitzeko erabiltzen dena dago. Nola deitzen zaio eragiketa horri?:
- 673a) Ireki honekin...
 - 673b) Ireki hedatuta.
 - 673c) Ireki maneiatua.
 - 673d) Ireki hemendik...
- 674 Fitxategi baten gainean bi klik eginez gero, sistemak lehenetsitako aplikazioarekin irekitzen da. Fitxategi mota baterako lehenetsitako aplikazio hori aldatzeko, zer menu erabiliko dugu?:
- 674a) Aukerak.
 - 674b) Lehenetsiak.
 - 674c) Propietateak.
 - 674d) Aplikazioak.
- 675 Internetetik jaitzitako fitxategi bat biltegitratzen denean, karpeta batean gordetzen da lehenetsita. Nola deitzen da lehenetsitako biltegitratze-karpeta hori?:
- 675a) Dokumentuak.
 - 675b) Deskargak.
 - 675c) Interneteko fitxategiak.
 - 675d) Artxiboak.
- 676 Maiz egiten diren ekintzak bizkortzeko, hala nola ebaki/itsatsi edo kopiatu/itsatsi, teklatu-lasterbideak erabiltzen dira sistema eragile gehienetan. Zein lasterbide dagokio «itsatsi» ekintzari?:
- 676a) Ctrl + V.
 - 676b) Ctrl + C.
 - 676c) Ctrl + X.
 - 676d) Ctrl + P.

39. gaia

677 Ahotsaren bidez elkarri eragiten dioten gailuen artean, hauetako zein dago?:

- 677a) Ruski.
- 677b) Mephisto.
- 677c) Rupert.
- 677d) Alexa.

678 Nola esaten zaie gorputzeko lekuren batean jartzen diren eta gailu elektronikoekin elkarrekin jarduten duten gailuei?:

- 678a) Wearable.
- 678b) Bodywear.
- 678c) Bodytoy.
- 678d) Bodyboard.

679 Nola deitzen zaio interneten informazioa denbora errealean aldi berean trukatzeko duen komunikazio motari?:

- 679a) Pautatua.
- 679b) Koordinatua.
- 679c) Asinkronikoa.
- 679d) Sinkronikoa.

680 Komunikazio sinkronikoaren adierazgarri dira honako hauek:

- 680a) Posta elektronikoa.
- 680b) Blogak.
- 680c) Notizia-taldeak.
- 680d) Bideokonferentziak.

681 Zein da komunikazio sinkronikoaren ezaugarria?:

- 681a) Interakzioan parte hartzen dutenen aldiberekotasuna.
- 681b) Interakzioan parte hartzen dutenak espazio fisiko berean egotea.
- 681c) Interakzioan gehienez ere bi eragilek parte hartzea.
- 681d) Ahozko interakziora mugatzen da.

682 Komunikazio sinkronikoaren tresnen artean, hauetako zein EZ dago?:

- 682a) Txata.
- 682b) Posta elektronikoa.
- 682c) Bat-bateko mezularitza.
- 682d) Bideokonferentzia.

683 Mezularitza elektronikoko aplikazioen artean, hauetako zein EZ dago?:

- 683a) WhatsApp.
- 683b) Hangouts.
- 683c) Telegram.
- 683d) InstantReply.

684 Eskuragarri dauden azterlanen arabera, zein da Espainian gehien erabiltzen den mezularitza-aplikazioa?:

- 684a) WhatsApp.
- 684b) Telegram.
- 684c) Hangouts.
- 684d) Discord.

685 WhatsApp-en segurtasun-ezaugarrien artean dago zifratze hau erabiltzea:

- 685a) Muturretik muturrerakoa.
- 685b) Muturreko kriptograma.
- 685c) Muturretik jatorrira.
- 685d) Garraio-geruza.

686 Nola deitzen zaio enpresa eta negozio txikietarako berariaz diseinatutako WhatsApp aldaerari?:

- 686a) WhatsApp for PYMEs.
- 686b) WhatsApp Business.
- 686c) WhatsApp Money.
- 686d) WhatsApp Trade.

687 Telegramen audientzia mugagabeei bidal dakizkieke mezuak. Nola esaten zaie administrazioaileek mezuak sortzeko, haien edukia editatzeko eta harpidedunen zerrenda kudeatzeko erabil ditzaketen baliabideei?:

- 687a) Kanalak.
- 687b) Portuak.
- 687c) Zerrendak.
- 687d) Multzoak.

688 Txat batean elkarrizketan ari den erabiltzaileetako bat gutxienez robota bada, nola deitzen da txata?:

- 688a) Robotalk.
- 688b) Speechbot.
- 688c) Txatbot.
- 688d) Talkchat.

- 689 Zein da interneteko kortesia- edo portaera-arau (hezkuntza) orokorren multzoa aipatzeko erabiltzen den hitza?:
- 689a) Netiketa.
 - 689b) eKortesia.
 - 689c) eDukazioa.
 - 689d) Nedukazioa.
- 690 Gaur egun bideokonferentziak egiteko erabiltzen diren tresnen artean hauetako zein EZ dago?:
- 690a) Jitsi.
 - 690b) Zoom.
 - 690c) Skype.
 - 690d) Vidix.
- 691 Meetings aplikazioa, Teams-en integratua, elkarlanerako eta komunikaziorako plataforma batean integratuta dago, eta honako produktu hauen familiakoa da:
- 691a) Amazon.
 - 691b) Google.
 - 691c) Facebook.
 - 691d) Microsoft.

40. gaia

- 692 Zein da ergonomiaren arloan lan egiten duten elkarte zientifikoak mundu osoan biltzen dituen erakundea?:
- 692a) Ergonomia Sustatzeko Aliantza (APE).
 - 692b) Munduko Ergonomia Federazioa (WEF).
 - 692c) Ergonomia Sustatzeko Nazioarteko Liga (LIPE).
 - 692d) Ergonomiako Nazioarteko Elkarte (IEA).
- 693 Ergonomiaren helburua lan-inguruneko hiru elementu optimizatzea da, pertsonari, teknikari eta antolaketari lotutako metodoen bidez. Zeintzuk dira hiru elementu horiek?:
- 693a) Soziala, antolaketakoa eta lanekoa.
 - 693b) Psikologikoa, fisikoa eta soziala.
 - 693c) Gizakia, makina eta giroa.
 - 693d) Psikologikoa, lanekoa eta ingurumenekoa.
- 694 UNE arauak CTN 81/SC 5-aren ardura dira, ergonomian eta psikosoziozologian espezializatua dena. 5. azpibatzerdea lantalde (GT) batzuetan bereizita dago. Hauetako zein dago horien artean?:
- 694a) GT3. Bistaratze-pantailen ezaugarri ergonomikoak.
 - 694b) GT1. Gailu adimendunen printzipio ergonomikoak.
 - 694c) Eserleku etzangarrien ergonomia.
 - 694d) Sare sozialekiko gehiegizko esposizioaren arriskuak.
- 695 Zein arauk ezartzen ditu lan-sistemak diseinatzeko printzipio ergonomikoak?:
- 695a) UNE-EN ISO 717.
 - 695b) UNE-EN ISO 6385.
 - 695c) UNE-EN IEC 60987.
 - 695d) UNE-EN 12251.

696 Badira datuak erakusten dutenak hezur eta muskuluetakoa nahasmenduek lotura dutela arrisku psikosozialeko faktoreekin. Zein dago, besteak beste, horien artean?:

- 696a) Sare sozialekiko esposizio intentsiboa.
- 696b) Laneko gogobetetasun urria.
- 696c) Lan-jarduerarekiko etengabe konektatuta egotea gailu mugikorren bidez.
- 696d) Aparteko orduak gutxi ordaintzea.

697 Sorbaldako eta lepoko hezur eta muskuluetakoa nahasmenduen artean, hauetako zein dago?:

- 697a) Lepoko hautsiaren sindromea.
- 697b) Karpoko flotagailuaren tendinitisa.
- 697c) Sorbalda izoztua.
- 697d) Tortolosi eragindakoa.

698 Eskuko eta eskumuturreko hezur eta muskuluetakoa nahasmenduen artean, hauetako zein dago?:

- 698a) Falange distalen tortikolisa.
- 698b) Tentsodilatazio erradiokarpianoa.
- 698c) Dujshebaev-en kontraktura.
- 698d) Karpoko kanalaren sindromea.

699 Besoko eta ukondoko hezur eta muskuluetakoa nahasmenduen artean, hauetako zein dago?:

- 699a) Kanal epitrokleitikoaren sindromea.
- 699b) Epikondilitisa.
- 699c) Bruxismoa.
- 699d) Dupuytren-en kontraktura.

700 Gerrialdeko hezur eta muskuluetakoa nahasmenduen artean, hauetako zein dago?:

- 700a) Lunboziatalgia.
- 700b) Pubalgia.
- 700c) Lunbohaustura akutua.
- 700d) Lunbatitis aldizkakoa.

701 Garrantzitsua da buruak pantailarekiko postura egokia izatea. Zein da altura egokia?:

- 701a) Pantailaren erdiko zatia ikusmen-lerroaren parean egon behar da, edo pixka bat behe-reago.
- 701b) Pantailaren beheko zatia ikusmen-lerroaren mailan egon behar da, edo pixka bat gorago.
- 701c) Pantailaren goiko zatia ikusmen-lerroaren parean egon behar da, edo pixka bat behe-ago.
- 701d) Pantailaren goiko zatia ikusmen-lerroaren gainetik 25 cm-ra gutxienez.

702 Zenbatekoa izan behar da pantailaren eta begien arteko distantzia?:

- 702a) 25 eta 40 zentimetro bitartekoa.
- 702b) Gehienez 25 zentimetrokoa.
- 702c) 40 eta 90 zentimetro bitartekoa.
- 702d) Gutxienez 90 zentimetrokoa.

- 703 Eserita, ordenagailuaren aurrean, izterrek eta hankek angelu bat osatuz egon behar dute. Zenbatekoa izango da, gutxi gorabehera, angelu hori?:
- 703a) 30 gradukoa.
 - 703b) 60 gradukoa.
 - 703c) 90 gradukoa.
 - 703d) 45 gradukoa.
- 704 Eserita, ordenagailuaren aurrean, izterrek eta bizkarrak angelu bat osatuz egon behar dute. Zenbatekoa izango da, gutxi gorabehera, angelu hori?:
- 704a) 90-100 gradukoa.
 - 704b) 120 gradukoa.
 - 704c) 70-80 gradukoa.
 - 704d) 60 gradukoa.
- 705 Lanean dihardugula bizkarraren posizio egokia oso garrantzitsua da. Horrez gain, beste xehetasun batzuk ere zaindu behar dira, hala nola, eserita egonda, hankak eserlekutik zintzilik izatea eta oinek euskarririk ez izatea. Izan ere, zer eragin dezake horrek?:
- 705a) Guillain-Barréren sindromea izateko arriskua areagotu dezake.
 - 705b) Epe luzera, beheko gorputz-adarren dismetria eragin dezake.
 - 705c) Haurdunaldian, tentsio-zefalea izateko aukera areagotzen du.
 - 705d) Zirkulazio txarra izanez gero, okerragotu egin dezake hanketako edema.
- 706 Argi urdin mota desberdinak daude. Zehazki, argi urdin-turkesarekiko esposizioa dela eta:
- 706a) Nekea eta ikusmen-estresa eragiten du.
 - 706b) Kalte egin diezaioke erretinari eta bizkortu egin dezake adinarekin lotutako makulako endekapena (ALME) agertzea.
 - 706c) Errendimendua eta ikasteko gaitasuna hobetu ditzake.
 - 706d) Kataratak sortzea eragiten duela susmatzen da.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

